



**EUSKAL KULTURAREN TRANSMISIOA  
DIASPORAN  
XXI. MENDE HASIERAN**

*Benan Oregi Iñurrieta*

## AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA GAUR.....	4
Euskalduntasunaz.....	5
Euskal kulturaz.....	9
Euskal "diasporaz".....	12
Bidegurutzean, gune hegemonikoen bila.....	13
XXI. MENDEAREN HASIERA ETA POSMODERNITATEA.....	16
EUSKAL DIASPORA ANTOLATUA.....	18
8/1994 Legea.....	20
Diru-laguntzak.....	23
Mugimenduak Argentina eta Estatu Batuetako diasporetan.....	25
1) Idaho Senate Memorial 114.....	32
2) Wall Street Journal.....	33
3) Stanford University.....	36
Itzulera.....	39
EUSKAL KULTURAREN ADIERAZPENAK DIASPORAN.....	43
DIASPORAREKIN "ZUBIGINTZAN".....	45
ERAKUNDE SARE BERRI BAT.....	48
Euskadiren Ordezkaritzak.....	48
Kulturaren Euskal Plana.....	50
Etxepare Institutua: ...jalgi hadi mundura.....	51
Eusko Ikaskuntza.....	54
EUSKAL EMIGRAZIOAREN HISTORIAREN BILKETA.....	55
Andrés de Irujo saria.....	55
Euskaldunak Munduan bilduma eta Urazandi proiektua.....	55
Migrazioen museo eta interpretazio zentroaren egitasmoa.....	56
Interes orokorrekoa eta norabide bikoia.....	57
Konpromisoa.....	58
Jarduerak.....	58
Lehen txostena.....	58
Izandako harremanak.....	58
Bigarren txostena.....	59
IKT-AK ETA PLATAFORMA INTERNETEN.....	60
EUSKAL ETXEEN ETORKIZUNA.....	62
AMAITZEKO, HAUSNARKETA.....	65
ELKARRIZKETA EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURUARI.....	68
BIBLIOGRAFIA.....	81

## SARRERA

*"Pour être un Basque authentique, trois choses sont requises: porter un nom sonnante qui dise l'origine; parler la langue des fils d'Aïtor, et... avoir un oncle en Amérique". Pierre Lhande, "L'émigration Basque", 1910*

"Ikasi eta erakutsi, geurea da eta" – John M. Ysursa,  
*Basque Dance* liburuaren egilea

Euskal herritar guztiok emigrazioarekin dugun identifikazio orokorra 1994 urtean Eusko Legebiltzarrean izandako eztabaidetan gelditu zen islatuta, hain zuzen, kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanak arautzen dituen Lege-egitasmoa aztertzen ari zirelarik. Talde politiko desberdinetako ordezkarien adierazpenek argi utzi zuten denok dugula lotura bat emigrazioarekin, edozein izan horren arrazoia, ekonomikoa ala politikoa. Ondorioz, maiatzaren 27ko 8/1994 Legea izango zena, Legebiltzarrean ordezkaturako talde politiko guztien aldeko botoari esker onartu zen, hau da, kontrako botoirik gabe (3 abstentziorekin).

Lege horren onarpenak aro berri bati eman zion hasiera orain hamalau urte. Alde batetik, urteetan munduan zehar barreiatuta egondako euskal etxe eta taldeei sare antolatu bateko parte izateko aukera eman zien Legearen ondoren onartutako egiturak: Kongresua, Aholku Batzordea, eta kanpoko euskaldunen premiei aurre egiteko sortutako Zuzendaritza bera (Lehendakaritza).

Bestetik, elkarren berri izan dute Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunek eta, gaur, elkarrengandik eta Euskal Herritik gero eta hurbilago bizi dira.

## **EUSKAL NORTASUNA ETA KULTURA GAUR**

Eusko Ikaskuntzak eta Euskal Kultur Erakundeak orain lau urte ekin zioten Euskal Herriko zazpi lurraldeetan zehar XXI. mende hasierako euskal nortasuna eta kultura zertan ziren aztertzeari. Horretarako, zazpi lurraldeetako biztanleen iritzi eta jarrerak jasoko zituen ikerketa burutu zuten, teknika kuantitatibo eta kualitatibo desberdinak erabiliz.

2006ko urte amaieran eman ziren ezagutzera azterlan horren emaitzak, "Euskal kultura eta nortasuna XXI. mendearen hasieran" (hemendik aurrera "ENK XXI m") lana argitaratzearekin.

Ikerketa horren emaitzek, askorentzat, argi gorriak piztu zituzten.

Iñaki Martinez de Lunak (2007) horrela laburbiltzen ditu lanaren ondorioak:

- Euskal Herriko kulturaren egun dauden kultura eta nortasun adierak oso ezberdinak dira, edukiz eta esanahiez.
- Adiera horiek ikuspuntu ezberdinetan oinarritzen dira: primordialista (edo esentzialista), instrumentalista zein konstruktibista.
- Euskaltasunaren usadioekin batera, aspaldian gure artean dauden erdaltasunarenak ere zeharo erroturik ditugu gaur egun.
- Pluraltasun hori gizarte garaikide guztietan ematen da.
- Euskaltasuna zazpi lurraldeetan zabaldua dago.
- Euskal Herriko lurraldeen arteko eguneroko harreman-jarioa eta hurbiltasun sinbolikoa ere gailentzen da herritarren gehiengoarengan.
- Euskaltasunaren elementuen artetik euskara da ezinbesteko osagai edo erreferentea.
- Euskal kultura eta nortasuna krisialdi, trantsizio eta, etorkizunari begira, bidegurutze batean dago.
- Aurrera egingo badu, malgutasunez jokatu beharra dago. Pluraltasun horretan, kanpoko euskal herritarrek ere (euskal diasporak zein etorkinek) badute zer esanik.
- Nahasketa kulturala eta bitariko (edo askotariko) nortasunak gero eta zabalduago egongo dira gure artean.
- Globalizazioaren eraginak "gure" egiteko modu propioa da gakoa.
- Informazio eta Komunikazioaren Teknologia berriek (IKT) erronka zein aukera berrien aurrean jartzen gaituzte.
- Tradizioaren zimenduen gainean eraiki behar da geroa.
- Kultura, pizgarri eta akuilua izan daiteke euskal nortasunarentzat.

Euskal kulturaren eta nortasunaren inguruko kontzeptu, termino eta ideia guzti horiek sarritan eta aho desberdinetatik entzun izan dira.

Gogoeta guzti horiek diasporaren egoerarekin zerikusi handia dute, orrialde hauetan agerian utziko denez.

## **Euskalduntasunaz**

Euskal nortasun edo euskaltasunari dagokionez, jakinekoa da kontzeptu horiek ulertzeko modu anitzak daudela gaur egungo gizartean, eta historian zehar ere aldatuz joan dela kontzeptuaren definizioa, Josu Amezagak erakutsi digun moduan.

Modernitateak primordialismoa edo esentzialismoa ekarri zituen moduan, post-modernitateak konstruktibismoa ekarri du (instrumentalismoa, zirkunstantzialismoa edo mobilizazionismoa bidelagun).

Euskal diasporari dagokionez, Gloria Toticaguenak dio definizio arantek jarraitzen dutela indarrean, odola, arraza, jatorria, abizenak... bezalako elementuak gailentzen baitira munduan zehar barreiatutako euskaldun jatorriko gizataldeen artean. Hitz gutxitan esateko, Euskal Herrian gaudituta dauden primordialismo edo esentzialismotik gertu daudela kanpoko euskaldunak.

Deigarria da diasporako euskaldunen erantzunen nolakotasunari erreparatzea, jokamolde berdinari jarraitzen baitiote munduko bazter guztietan barreiatuta dauden euskaldunek: norberaren kasua zelakoa, euskaltasunaren definizioa halakoa. Hala, euskararen ezagutza mantendu duenak euskararekin lotzen du euskaltasuna, jatorri euskaldunekoa denak abizen edo odolarekin, Euskal Herrian jaiotakoak lurraldetasunarekin, eta abar.

Gure gaurko ikuspuntutik atzean gelditutako ikuspegi horiek, halere, indarrean dira toki askotan, gauzak aldatzen doazen arren. Horren lekuko dira hainbat euskal etxeetako estatutuetan bertako kide arrunta izateko edo zuzendaritza batzordeko kide izateko jarri izan diren mugak: Euskal jatorrikoa izatea edo bestela euskal jatorriko norbaitekin ezkondu egotea, Euskal Herrian jaiotakoa izatea, euskal abizena izatea, eta halakoak.

Gaur egun, kultur elkarre bateko kide izateko pentsaezinak diren baldintzak dira, guztiak ere. Baina jarriko bagina euskal etxeak sortu zireneko urteetan (1860 eta 1870 hamarkadetan sortu ziren lehenengoak), errazago ulertuko litzateke, euskal sena galtzeko arriskutik babestu beharraz ohartu bait ziren.

Argi dagoena da Gerra Zibilaren ostetik 1980 urtera bitartean, epe guzti horretan zehar, toki askotara ez zela euskaldunak joan, eta beste batzuetara gutxi batzuk baino ez, eta gauzak Euskal Herrian trantsiziotik hona eta batez ere EAEko erakundeekin sorrerarekin hainbeste aldatu diren moduan (onerako eta ez hain onerako, gero aipatuko dugun moduan), itsasoz bestaldeko euskaldunak ez dutela bizi izan euren aldarrikapen kultural sinboliko horien instituzionalizazio berdina. Horrek esplikatzen du zergatik bizi izan diren isolatuta eta Euskal Herri baserri-giroko eta bukoliko bat erreferente bakartzat izan zutela ia laurogeita hamargarren hamarkadara arte.

Oiartzabal eta Oiartzabalek (2005) diotenez:

Consideramos las diásporas vascas realidades culturales plurales... Estos emigrantes aportan sus propios sentidos de vasquidad...

Denontzako onargarria den euskaldun izatearen definizio bat aurkitzeko gai izan ez garen arren, argi beharko genuke izan inor ez dela nor euskal herritar izaera beste inori ukatzeko.

Diasporan gerta daitezkeen asimilazio erabatekoaren eta nortasun etnikoa mantentzearen artean, badira egora batzuk instrumentalismoa ere gertatzen ari dela susmatzera eraman dezaketenak. Esan nahi da norbanakoen eta taldeen ahaleginak ikusten direla euskal diasporan ere sinbolo etnikoen inguruan mobilizatuz baliabide material, politiko eta sozialetara (eta ekonomikoetara) iristea izanik azken helburua. Hori esplikatzen Totoricaguenaren lanean mobilizazionismoa aipatzen da, eta McKayren aipua ekartzen du (2003, 43. orr) baina instrumentalismo bezala ere uler daitezkeen egoera da.

Honen adibide izan daiteke azken urteetan bizi dugun egoera hau: euskal etxe berriak sortzen ari dira (5-7 urteko, azken urteotan) emigrazioz 50 urte edo gehiagotan jaso ez duten tokietan.

Christian Coulonek (ENK XXI, 17. orr) dioenez, nortasun dinamikak kidetzapen indibidualagoetan sartzen ari dira eta inoiz baino lotuago daude ez herentziari eta usadioari, baizik eta pertsonaren banakako hautuari. Beraz, nortasunak esleituak baino aldarrikatuak dira. Subjektibitatea bihurtzen da desberdintasunaren osagai nagusi.

Halere, nago hautua nortasun baten aldekoa izan bada, arrazoi batengatik behar duela izan: nolabaiteko ezagutza, hurbiltasuna, maitasuna, zaletasuna, sentimendua... zerbaitetan oinarritutako hautua izango dela beti, komunitate jakin bateko kide izateko norberak egiten duen aldarria (ez noa berriz derrigorrez primordialismoaren jarreretara, halere).

Croucherrek azaltzen du ondo:

Ethnicity is a constructed identity, but its construction relies on appeals to primordial sentiments of belonging. It is constructed, in other words, with reference to kinship, blood ties, shared origins, and common ancestry (ENK XXI, 139 orr.).

Argi dugu zirkunstantziak agintzen dutela bakoitzaren nortasuna eraikitzeke orduan eta ideia horri erantzuten dio konstruktibismoaren teoriak hain zuzen, hortaz, nortasuna etengabe egiten eta aldatzen doan zerbait dela onartu beharko genuke.

Ildo berorretatik, arestian aipatutako ikerketan *neurrirako nortasunaz* edo *menuaz* hitz egiten da... Euskalduntasunaren gero eta definizio lausoago baterantz goazela aipatzen delarik.

Egoera berrian, nortasun-heldu-leku, zutoin edo euskarriak inoiz baino beharrezkoagoak ditugu, "komunitate" bateko kide izateko dugun premia gero eta larriagoa denez gero. Globalizazioaren ondorioetako bat baino ez da.

Horregatik esan da euskal kultura eta nortasuna bultzatzeko egungo aukerak handiagoak izan daitezkeela aurreko bi mendeetakoak baino.

Iñaki Arrutik azaldu berri duen moduan, gizartea ez da gaur nortasun zuriz eta beltzez osatzen: kolore askotakoak dira egun Euskal Herriko nortasunak.

Ondorioz, euskal nortasunaren eta kulturaren inguruko definizio egokitu bat beharko litzateke, kontzeptu hartzaileago bat: inori ateak itxi beharrean ireki eta gonbidapena luzatuz euskaltasunera hurbildu nahi duen orori... Jarrera berdinekoa dela deritzot Teo Etxaburu, "inklusiboa" kontzeptua darabilenean.

Diasporatik, Totoricagunea, White eta Zulaika bezalako autoreek ere modu horretan ikusten dute euskalduntasuna gaur, munduko edozein euskaldun kontzeptuaren barruan hartu ahal izateko. Nortasun transnazionala kontzeptua da Gloria Totoricaguenak bere egin duena azken lanetan.

Argitxu Camusek (2007) dio:

The concept of transnational identity matches well with diaspora consciousness.

Eta gero Totoricaguena aipatzen du:

...Basques are physically connected to the host countries where they currently live, and emotionally and psychologically connected to the ancestral homelands... It implies the ability to superpose identities without having to choose one over the other...

Gaurko lana litzeteke lotura emozional eta psikologiko horiek mantentzen laguntzea.

Halere, hor daude nortasun hibridoak ere, gehiago ematen direnak bigarren, hirugarren edo laugarren belaunaldietan. Horien kasuan, Camusen ustez, bai egongo litzateke nortasun bat bestearen gaintetik, eta ez esparru desberdinak okupatzen, aurreko kasuan moduan.

Beste alde batetik, gaurko egoeran, eta globalizazioaren ondorioz, badirudi aniztasunaren izenean, kultura gutxituen *revival* bat bizitzen ari garela. Besteengandik desberdindu nahian, bakoitzak bere bideari ekiten dio.

Esaten da behin eta berriz euskal nortasuna eta kultura bidegurutzean daudela gaur. Egia da hausnarketa bat egiteko premia larria dagoela, baina arriskuekin batera egoera berriek eskaintzen dizkiguten aukerak ere baliatu behar dira.

Beraz, krisian baino, tentsio gune batean gaudela nago, indartuta ateratzeko aukerarekin: Informazio eta Komunikazioaren Teknologiak (IKT) dira gaur kanpoko euskaldun jatorriko askori begira erabiltzen hasi diren erremintak, eta horren fruituak nabarmen ikusten dira.

Euskal etxeetan belaunaldi berriek hartu behar dute aitzindaritzza: modernizatu eta egoera berrira egokitu beharrean daude, iraungo badute. Gazteei heldu-leku bat eskaini behar zaie, euren neurrikoa, euskal komunitateko kide senti daitezen. Eta ez da horretan oraindik asmatu.

Horri laguntzen dio mundu globalizatuan besteengandik bereizi nahiak eta baita ere 1937an Marcus Lee Hansen historialariak aurrikusi zuen fenomenoak (asimilazionistek ikusi ez zutena): hirugarren belaunaldiaren fenomenoak deitu izan denak (*Third-generation phenomenon*). Horren arabera, "*what the son wishes to forget the grand-son wishes to remember*" (seme-alabek ahaztu nahi izan dutena, bilobek gogoratu nahi dute) (Douglassek aipatua, 2000). Eta fenomeno hau ere gertatzen ari da euskal jatorriko gazteekin, nahiz eta gehienetan euren gurasoen aldetik "ahazteko" nahia baino, harremanetan jarraitzeko ezintasuna izen den gehiago (Frankismo garaia, ...)

Komunitate sentimenduak nonahi sortu dira eta sortzen ari dira euskal diasporan, lehenengo 1994tik aurrera elkarren berri izateko eta Euskal Herriarekin loturak estutzeko duten hainbat programari esker, besteak beste, lau urtetik behin egiten den mundu mailako kongresua.

Baina baita komunikabide tradizionalen bidez ere: *Euskal etxeak* aldizkaria 1989tik hona munduko 35.000 etxetan banatzen da 2 hilabetero (30.425 aleko tirada izan du 2007ko urte amaieran 79. alearen gaztelaniazko bertsioak, eta 4.606koa ingelesezkoak); *Canal Vasco* bidez munduko euskaldunek Euskal Telebistako saioak jarraitzeko aukera dute...). Hori jende edadetuari begira (ez bakarrik, noski).

Baina gaur egun, lan honetan aurrerago ikusiko dugun moduan, mundu birtualean ere plataformak gero eta gehiago dira, eta horien inguruan benetako komunitateak sortzen ari dira, besteak beste, Eusko Ikaskuntzaren EuskoSare ekimenaren bitartez ([www.euskosare.org](http://www.euskosare.org)), [www.euskalkultura.com](http://www.euskalkultura.com) eta [www.eitb24.com](http://www.eitb24.com) webguneen bitartez... Diasporan bertan sortzen ari diren web orri, eztabaida foro, txatak,... dinamika berriak dira, oraintsura arte ezagutzen ez zirenak.

Gogoan izan behar dugu kultura eta nortasun kolektiboak eratzen direla besteek gutaz duten iritzien bitartez eta horregatik sarean egon beharra dagoela euskaldunon berri emanez.



## **Euskal kulturaz**

Eusko Ikaskuntzaren lanean kulturen dikotomiaz ari dira: herri kultura eta kultura elitista (Amezaga); kultura barreiatua eta instituzionaldua (Durmont, 1982), eta horien parekoa litzatekeen Joxe Angel Irigarairen "*constituyente*" eta "*constituido*", ...

Diasporan kultur herrikoa baldin bada ere etnikotasun sinbolikoaren tokia betetzen duena gehien bat, kultura jasoago edo elitista batentzako tartea ere izan da. Jaialdiez, herri-kirolez eta euskal dantzez gain (horiek *leisure ethnicity* edo asteburuko etnikotasun agerraldi bezala ulertu beharko genituzke), badira kultura jasoagoak ere euskal diasporan: Unibertsitate mailan adibidez Renoko Euskal Ikasketen Zentroa, 1960 hamarkada amaieran sortua izan zena eta gaur egunean munduko 24 unibertsitatetan daude euskal kulturaren inguruko ikasketak (Etxepare Institutuaren oinarri izango den plataforma osatzen dutenak).

Jon Sarasuaren "etxea – aita" eta "sutondoa – ama" horren aldagaiak izan dituzte diasporan; sutondoaren ordeztu "hotela" izan zuten, eta hortik kanporago euskaldunen instituzioak sortzen joan zirenean "euskal etxeak" bete izan du espazio erreferentzial horren tokia.

Euskaldunek plazan egin izan dituzte ospakizunak eta diasporako euskaldunei kosta egin zitzaizen arren, esan daiteke (Estatu Batuei dagokienez, 1959ko jaialdiaz geroztik) han ere eman dutela eremu publikora ateratzeko urratsa, besteen aurrean euren harrotasuna, *Basque pride*, erakustera.

Komunitate bateko kide izateko sinboloek duten garrantziaz aipamen bat egin nahi nuke. Bizitzan zehar ibilbide parekoak egin izanaren narrazioek lokarri sendoak sortzen dituzte emigranteen artean; afektibotasuna, babes, sostengua, "gutasuna"...

Eta denontzako baliagarria den kulturaren definiziorik aurkitzerik izan ez badugu ere, hiru eremutan bana daitezke euskal kulturaren osagaiak, baita ere diasporan: tradizioa, sormena eta egunerokotasuna.

Kontua da horietako bakoitzak pisu desberdina izango duela jatorrizko lurraldean eta diasporan; tradizioak garrantzia handiagoa du Euskal Herrian baino, eta sormenerako aukerak ez dira horrenbestekoak (tradiziotik barrena ez bada). Azkenik, egunerokotasunak egun kultura definitzeko duen garrantzia ez dago diasporan, batez ere egunerokotasun horretan euskaldun askok eta askok ez dutelako mantentzen euskal ohiturarik, gizarte arrotzetan egonik (familiaren baitan ematen diren praktikak salbu).

Horregatik, Gurrutxagaren egunerokotasunaren teoria hori ez litzateke aplikagarria izango neurri berdinean diasporara, nire ustez. Gurrutxagak dio:

... la conciencia del Nosotros penetra desde los mecanismos sociales gestados en la vida cotidiana... Son los vínculos sociales de la sociabilidad inmediata –pueblo, barrio, familia, amigos, trabajo, vivienda, etc.- los que generan la definición fuerte de la vivencia identitaria... No ocurre lo mismo con todos aquellos signos que siendo significativos, son la representación de alguna de las realidades que coexisten en la sociedad vasca; por ejemplo, la lengua o la política (ENK XXIIm, 144 orr.).

Diasporan sinboloek duten garrantzia nabarmena da: etxeetako paretetan eskegita dauden lauburu, ikurrina, Gernikako Arbola, artzainen argazki... guztiak balio du euskaldunen etxe bezala identifikatzeko (Euskal Herrian egiten ez dena, premiarik ez dagoelako). Berdin, kanpoko ekintzetan erakusgarri euskaldunak erabiltzeko ohituraz: txapela, dantzarien jantziak,... eguneroko bizitzan erabiltzen ez direnak horiek ere, baina beste komunitate batzuegandik bereizteko eta desberdin azaltzeko oso baliagarriak direnak.

Kulturaren osagarriei dagokienez, baliteke, Euskal Herrian moduan, euskarak okupatzea zentralitatea diasporako euskaldunen artean ere. Pierre Lhanderen definizioan ere bigarren tokian zegoen euskara (halere, 1910ean plazaratutakoa da bere lana), eta hori bat dator gaur egun ere Iparraldeko euskaldunen artean jasotako iritziekin. Hala ere, Estatu Batuetan izan ezik (eta interesgarria da aztertzea zergatia, hurrengorako gelditzen dena) kanpoko euskaldunak bizi diren herrialde gehienetan gaztelania izanik nagusi, euskarak galdua zuen presentzia ia erabat (transmisio faltagatik).

Hala ere, egun euskal etxe gehienetan eta esandako Unibertsitateetan euskara ikasteko aukera eskaintzen da eta 2.000 inguru dira diasporako ikasleak, horietatik 900 Argentinan (HABEk emandako datuen arabera).

Euskararen aldeko ekimen guzti horiei esker, nabaria da euskara hartzen ari den pixua diasporan: gero eta jende gehiagok du kontaktua hizkuntzarekin, aukera izatekoa, eta Euskararen Nazioarteko Eguna (abenduarien 3a, San Frantzisko Xabierrekoaren eguna, diasporan 1949tik ospatzen dena) ere ospakizun handia bihurtu da azken urteetan munduko hainbat tokitan.

Eusko Ikaskuntzaren ikerketan esaten da kontraesan bat aurkitzen dugula euskarari euskal kulturaren barnean ematen zaion lekuari buruz: batetik, ukatu egiten da euskara ezinbesteko baldintza denik adierazpen bat euskal kulturatzat hartzeko, eta bestetik, euskal kulturaren ezaugarri adierazgarriena euskara dela kontsideratzen da. Erreferentzialtasun handia du baina adostasuna ez da erabatekoa, euskaraz ez diren kultur ekintzak kanpo uzteak arazoak sortzen dituelako (ENK XXIIm, 84. eta 140. orr.).

Paradoxa horren arrazoiak zeintzuk? Hiru hipotesi maneiatzen dira lanean:

- 1) Euskal kultura eta nortasunari buruzko jarrera malgua (ateak irekitzea, hain zuzen).
- 2) Akulturalizazioarena: hemen jaio eta bizi direnek ez dute euskararen premia sentitzen eta ez dute ikasten.

- 3) Estatu sozialetik abiatuta, baliteke premiazkoa ez izatean euskara, leku sinboliko handiagoa izatea eguneroko gizarte baldintzek hizkuntza horri egiten dioten lekua baino.

Bada, Hizkuntzaren betekizunaz hausnarketa egin beharra dago luze gabe (Martinez de Luna eta ENK XXI m, 142. orr).

Hizkuntzaz haratago, euskal eremuan ere (diasporan barne, gaineratu behar) bada kulturaren birsailkapen teknokratikoarekin batera agertzen den iraultze hirukoitza (ENK XXI m, 125. orr.):

- 1) Planteamendu garaikide eta etorkizunera begirakoa egiten hasia da euskal gizartea euskal kulturaren definizioaz.

Gogora ekarri nahi da euskal erakundeetatik ere gabezia bat ikusi izan dela euskal etxeetatik eskatzen zen kultur produktuen inguruan; hain zuzen, tradizioarekin lotutako kultura eskatzen zuten, alde batetik, Euskal Herrian gaur egun produzitzen denaren ezagutza faltagatik, eta bestetik, hori zelako han produzitzen edo kopiatzen zutena, beste interesik gabe.

Egoera horri aurre egin nahian, 2003an deialdi berezi bat jarri zen abian, bira kulturalak izenarekin, Euskal Herrian arrakasta lortu duten era guztietako kultur manifestazioak kanpoko euskaldunengana eramateko helburua duena. Azken urteetan bide honetatik, hainbat musikari, poeta, antzerkigile, eta abar hurbildu dira diasporara, eta horrek aberastu egin du egungo Euskal Herriaren eta kulturaren ezagutza euren aldetik neurri handi batean.

Inoiz kritikatu ere izan da programa hau, batez ere hasieran, eta *Basque schizophrenia* deitu zion diasporako kultur arduradun ezagun batek: eurek (diasporatik) tradizioa eskatu eta hemendik (Administratibotik) modernitatea erakutsi nahi. Urtea joan urtea etorri, ulertu da ez dela bertan izan dezaketen kultur produkzio arruntik bidaltzen eta egin daitekeela tradizioan oinarritutako kultur produkzio moderno franko eta maila altuko.

- 2) Boluntarismo eta militantziazatik ardura guztia Administrazioaren esku uztera igaro gara, teknokratizatzeraz.

Bada ardura bat bai euskal erakundeen aldetik eta baita euskal etxe eta kanpoko euskaldunen aldetik gauzak ondo egiten ari ote diren. Euskal Herrian (EAEn kasu honetan) erakunde propioak direnetik laguntza handiak ematen zaizkie kanpoko euskaldunei, Legearen zioen adierazpenean esaten denez, zor historiko baten itzuli moduan.

Kontuan izan behar da gaur egun euskal emigranteen jomuga izan ziren herrialde asko eta asko (batez ere Hego Amerikan) egoera ekonomiko larrietan bizi direla. Beraz, laguntza asistentzialak, kulturalak, eraikinen

konponketarakoak, trukeak, Euskal Herrira etortzeko programak,... Laguntza sorta ugaria da eta diruz nahiko ondo hornitua.

Horrek gizatalde horien desaktibatzea ekar lezake alde batetik (Euskal Herrian euskararen inguruan gertatu den moduan, hein handi batean), boluntarioak paralizatzera,... eta arrisku hori hor badago ere, bigarren ondorioa iruditzen zait arriskutsuagoa, alegia: subentzioen kontura bizitzeko ohiturak heda daitezke, eta horrek pertsonen eta erakundeen interes ekonomikoak (euskal etxe berrien sorrera) eta sozialak (Zuzendaritzetan beste batzuei erreleboa emateko zailtasunak...) piz ditzake.

- 3) Profesionalek eta erakundeek sortutako kultura horrek haustura batera eramane dezake: kultura profesional horren eta nortasun kolektiboaren arteko hausturara, alegia.

Euskal Herriaren eta diasporaren arteko dinamika berri guzti hauen ondorioz, boluntarioz osatutako elkarteak diren euskal etxeetan eta federazioetan langile batzuk liberatu eta profesionaltzen hasi dira (batez ere Argentinako FEVA eta Estatu Batuetako NABO Federazioetan). Bestela ezinezkoa egiten zitzairen informazio eta komunikazio uholdeei behar bezala erantzutea, eta aukerak etengabe galtzen ziren.

Ez dirudi harreman sarea profesionalen eta teknokraten artean gelditzen denik, halere. Beraz, oraingo dinamika kontuan izanik, ez da arriskurik ikusten diasporaren nortasun kolektiboarekiko haustura baterako (Euskal Herrian gerta badaiteke ere, diasporan oso lotuta eta gertutik jarraitzen dira ekimen guztiak).

Eusko Ikaskuntzaren ikerketak agerian uzten du kultura pizgarri edo akuilu bat izan daitekeela euskal nortasunarentzat eta gizartearentzat berarentzat. Eta bide horretan belaunaldi berrien partehartzea ezinbestekoa dirudi; "hori da aurrera egiteko bidean aurkitzen den erronka larrienetako bat" (ENK XXIIm, 147. orr.).

### **Euskal "diasporaz"**

Zergatik hitz egiten da euskal "diasporaz"?

Robin Cohenena da Gloria Totoricaguenak bere lanetan behin eta berriz darabilen diasporaren definizioa. Hauek lirarteke ezaugarriak:

- (1) dispersal from an original homeland, often traumatically; (2) alternatively, the expansion from the homeland in search of work, in pursuit of trade or to further colonial ambitions; (3) a collective memory and myth about the homeland; (4) an idealization of the supposed ancestral homeland; (5) a return movement; (6) a strong ethnic group consciousness sustained over a long time; (7) a troubled relationship with the host societies; (8) a sense of solidarity with co-ethnic members in other countries; and (9) the

possibility of a distinctive, creative, enriching life in tolerant host countries (Cohen 1997:180)

Toticaguenaren aburuz, euskaldunen emigrazioaren kasuan, bederatzia baldintzetatik ia guztiak ematen dira, zazpigarrena izan ezik. Euskaldunek ez bait dute harrerako gizarteekin harreman iskanbilatsu edo arazotsurik izan.

Beraz, bederatzia baldintza horietatik beste zortziak emateak zilegi egiten du "diaspora" terminoaren erabilera euskaldunen emigrazioa definitzeko. Erabilera horren kontrako ahotsik altxatu izan bada ere euskaldunon artean, gaur egun normaltasun osoz erabiltzen da, Europako beste emigrazio batzuen harridurarako. Adibidez, Brian Lambkinek berak, AEMIko Presidenteak, Euskal Gizataldeen IV. Biltzarrean horrela adierazi zuen, irlandarrek ez bait dute oraindik onartu euren emigrazioaz hitz egiteko orduan erabilgarri denik terminoa.

Egun, kanpoko euskal herritarrek bi talde osatzen dituzte: kanpoan bizi diren euskal emigranteen ondorengoak, hau da, euskal diaspora; eta beste alde batetik, Euskal Herrira datorren inmigrazio berria, hau da, etorkinak.

Nik hirugarren kategoria edo azpikategoria bat erantsiko nuke, hots: diasporako seme-alaba izanik, Euskal Herrira datozenak bertan bizi eta lan egitera (itzulitakoak). Baina hori aurrerago aztertuko dugu.

### **Bidegurutzean, gune hegemonikoen bila**

XXI. mende hasiera honetan euskal kultura bidegurutze batean aurkitzen dela esaten da. Baieztapen horrek harridura sor lezake, Euskal Herrian inoiz baino biziago baitaude kulturaren hainbat arlo, pil-pilean, eta egunero-egunero sortzen dira kultur eremu guztietan hainbat eta hainbat ekimen berri, gehiegi agian. Galdera litzateke: ba al dago gero guzti hori kontsumitzerik?

Kalitateari dagokionean ere, badira adierazle baikorrak.

Orduan, zer dela eta "bidegurutzean"?

Alde batetik, munduko plazan jokatzeko hasiak garelako globalizazioak ekarri digun bizimoduaren ondorioz. Horrek esan nahi du aukera kultural guztiak egoera berdinetik abiatzen direla mundu mailako merkatura, euskal kulturarena barne.

Baina, prest al gaude? Ba al ditugu beharrezko diren azpiegiturak, antolakuntza, baliabideak, planifikazioa... merkatu horretan arrakasta izateko? Ohi bezala, Euskal Herrian ez da ikuspegi bakarra nagusitu horri erantzuteko: batzuk, aukerak ikusten dituzte eskenatoki berri honetan. Inoiz izan ez dugun presentzia dugu nazioarte mailan, eta baliabideak ere sekulakoak dira. Erabaki

egokiak eta bide zuzena hartuz gero, bermatuko dugu euskal kulturaren etorkizuna beste belaunaldi batzuetarako.

Gauzak beste era batera ikusten dituztenak ere badira: hauen aburuz, Euskal Autonomi Erkidegoa instituzionalizatu zenetik, hau da, azken 25 urteetan, ez da abian jarri orain martxan dagoena bezalako euskal kulturaren planik.

Euskal Kulturaren Planak estrainekoz aztertu ditu hainbat arlo, beti ere euskal kulturaren ikuspegi instituzionala oinarri hartuta, esan nahi da, Gernikako Estatutuaren 7. artikuluan jasotako euskaldunaren definizioa oinarri hartuta: euskalduna da euskal herritarra ("hiritarra" esaten da orain), bertan bizi dena; ondorioz, euskal kultura izango da bertan ekoizten dena. Beste galdera bat: non gelditzen da orduan diaspora?

Plan horren ardura duen Kontseiluak egin duen identitatea eta kulturari buruzko hausnarketan bertan aitortzen da egiteke dagoen lan bat dela pertsonen beraien nortasuna eraikitzen laguntzen dieten guneak definitzea, eta erronka nagusia gune horien aniztasuna ekintza instituzional eta eztabaida publikora eramatea litzatekeela, denen aitortpena jaso eta euskaldunaren definizio ireki eta dinamiko bat sustatzeko.

Euskal Kulturaren Planaren koordinatzaile lanetan ari den Ramon Zalloren esanetan:

Jatorriak eta sentimenduak direla-eta, oraindik ez dira euskal identitate modernoaren oinarriak ezarri eta euskararen egoera diglosikoaren ondoriozko arriskuak ez dira desagertu. Beraz, euskal kulturari dagokionez, oraindik ere, gizartea zehaztu eta identifikatzeko eta euskal kultura bideragarri bihurtzeko arazoak daude.

Euskaraz eta gaztelaniaz (edo hizkuntzen beharrik gabe, zenbait arlotan) produzitzen da gaurko euskal kultura.

Halere, komunitate bat eratu ahal izaten da, identitate komuna,

...gizartearen baitatik, herritartasunean eta elkartasunean oinarritutako gizarte-antolaketaren baitatik eta kultur politiken bidez zehazten den proiektu kultural jakin baten baitan egiten bada. (Zallo 2006:131)

Ikuspegi horren aurkakoa izango litzateke, adibidez, Odriozola. Bere esanetan, zalantzarik gabe onartzen den moduan Ameriketako egindako filme bat amerikarra dela, Euskal Herriaren kasuan hizkuntza minorizatua izanik gurea, ez dago aukera hori.

Kulturak, segun eta ze funtzio betetzen duen, herri-historiaren harira moldatua zegoena desegin ere egiten du nazio-nortasunen arteko borrokan... arazoa ez datza nazkatzeraino darabilgun pluraltasunaren leloan, hegemoniak ezarritako dinamikan baino.

Hegemonia kontzeptua da baita ere Sarasuak behin eta berriz aipatzen duena. Bere aburuz, hegemonia kontzeptuari bueltak eman gabe ez dugu irtenbiderik XXI. menderako. Bere hipotesia izango litzateke bizi-iraupen estrategiaren parte, ahalmen guneak sortu behar direla, botere guneak.

Euskara, dio Sarasuak, nekazaritza ekologikoa bezala tratatu beharko genuke, ez baitu etorkizunik gaurko merkatu logikaren barruan; beste logika teknologiko bat, sozial bat, eta kasik espirituala ere behar du. Eta adibide gisa bertsolaritzaren fenomenoak aipatzen du.

Koldo Tapia eta beste batzuk, tartean Jon Sarasua bera, izan ziren Bertsozale Elkartearen nondik norakoarekin oso-osoan asmatu zutenak, estrategia egokia tajutuz. Horretarako, logika propioa sortu zuten eta merkatuarekin eta botere publikoekin jokatzeko eta jolasten asmatu zuten (Txepetxen nuklearizazio ideia hezurramitu zutelarik Bertsozale Elkartearen sorrera eta izpirituarekin).

Gune hegemonikoak sortzen asmatu duten beste batzuk Bilboko "Zenbat Gara" elkarteak dira, Kafe Antzokia eta inguruko sarearekin. Azken hori Jacqueline Urlak aztertu du *The Global meets the Local in Basque Cultural Politics* lanean. Badira hainbat euskara elkarte, herri aldizkari, toki komunikabide bide beretik dabilzanak azken urteotan. Bada, beraz, gure hegemonikorik, gutxi batzuk badira ere.

Euskal gizarteari begirada bat botaz gero, Euskobarometroko eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteko ikerketetan oinarrituta, Aierdik darabiltzan datuen arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan, eskubia-ezkerra posizioei dagokienez, gizartea kohesionatua dago orohar, batzuetan beste 4,0-an kokatzen baita gehiengoa (0-tik 10-era, 0 izanik ezkerreko muturra eta 10 eskuinekoa). Esan liteke, euskal gizartea zentro politikotik ezkererago kokatzen dela batzuetan. Eta eskubiko puntan dauden artetik ezkerrekoan dauden arterako tartea txikia da. Beraz, gizarte nahiko kohesionatua da.

Identitateari dagokionez, ostera, jarrera espainolista eta euskaldunen arteko aldea askoz ere handiagoa da.

Hegemonia kulturalari dagokionez, Bertso Txapelketa finalean Barakaldoko BEC-en egindako inkestari erreparatu dio Aierdik, bertsolaritzan izan daitekeelako euskararekin zuzenean lotutako kultur adierazpide bat. Bertaratuko jendearen artean egindako ikerketak dio entzulego horren %88-ak ezker eskalan kokatzen duela bere burua, eta oso abertzaletzat definituko litzatekeela.

## XXI. MENDEAREN HASIERA ETA POSMODERNITATEA

Zenbait pentsalari neoliberalistek, Fukuyamak esaterako, XX. mende amaierarako ez zuen istilu bizirik ikusten, Aierdik dioenez. Euren teoria neoliberalistak nahikoa izango zirelakoan zeuden globalizazio aroa esplikatu eta barne-hartzeko.

Hala eta guztiz ere, ez gizarte neoliberalak eta ezta Estatu sozialdemokratek ere, irudiz elkartasunean oinarrituta sortuak izan zirenak, eta liberalismo garaiko *laissez faire laissez passer* gaindituari aurre egitekoak zirenak, ez dute asmatu gizakiaren premia guztiei erantzuten.

Europa bezalako gizarte aberatsetan bizi garenok desagerrarazi ditugu gure arteko mugak baina herrialde pobreekiko hesi gero eta altuagoak eta gaindiezinagoak eraiki nahian gabiltza.

Alter-globalizazioak dio beste mundu bat posible dela, baina ez nahi dugun mundua. André Gord suediarrek dio koalizio bat egin beharrean dagoela gizateria, bere interesen kontra bada ere (eta hori oso ideia sakona da, Aierdiren esanetan). Beraz, mugak existitzen dira, baita indibidualizazio prozesuan ere.

Soziologo euskaldunaren esanetan, orain arte identitatea patua zen moduan, gaur egun neurri gabeko biografia alternatiboak bizitzeko aukera da norbanakoak nahi duena. Hainbeste aukeraren aurrean, "ilusio biografikoa" sortu da: alde batetik, edonork ditu munduko aukera guztiak gizarte honetan arrakasta izateko sormenaren edozein esparrutan, eta horrek bultzatu egiten du gizakia, bere nartzisismoak eraginda, produzitzera. Gaur edonor da ekoizle: idazle, margolari, ... Aukera anitzen sistema horrek frustrazio ugari dakar, ordea.

Gizarteak eskaintzen ez dituenak norberak bilatu behar dituenek, gero eta zailtasun handiagoak aurkitzen dira... Aurrerabidearen edo progresoaren ideia berrasmatu beharra dago, balore sendo batzuk.

Bat nator Aierdirekin narratiba berri bat falta zaigula dioenean, orain 50 urte bazegoen narratiba ezkertiar bat.

"Gu" nazionala tresna ezin hobea izan liteke indibiduotik kolektiborako salto egiteko premian elkartasun hori sortzeko, baina baita muga ere.

Zygmunt Baumanen teoriaren arabera, modernitatean harrizkoa zena, posmodernitatean likido bihurtu da: gizakiak, erakundeak, lehen harrizkoak zirenak, likido bihurtu dira. Hartu familia, adibidez. Modernitatearen garaira bitartean egitura harrizkoa zuen familiak, eta gaur urtu egin da. Euskal



Autonomi Erkidegoan ere, jakin berri dugunez, gailendu egin dira dagoeneko: familia eredu diferenteak tradizionalak baino gehiago dira dagoeneko, beraz, hautazkoa da bizi nahi dugun familia eredu ere.

Eta norberaren identitatearen kudeaketari dagokionez, Eduardo Apodakak esaten digun moduan, gaur egun kultura da bi gairen garapen zaindua:

Alde batetik, gaur egungo askatasuna, gure gizarteko balio handiena, hautatu ahal izatea da.

Bestetik, posmodernismoaren ideologok diote ez garela konformatu behar identitate bakarrarekin, ondo osatua behar duela izan identitateak, partzialtasunean galdua (hautuaren bitartez). Hortaz, identitate bakarrari eusten diona fanatikotzat jotzen da, posmodernitate likidoan ez delako bizi, harrizko garaian bizi delako, hortaz, gixajo bat da.

Lehengo harrizko paisaia ur-uholde gogorra jasaten ari da. Baina, zenbateraino da iragazteko modukoa harria? Ala iragazkaitza da?

Gaur egun, ez omen dago jakiterik abangoardia norantza doan. Dena dago mugimenduan, eta guztia egiten duen zati bakoitza ari denez mugitzen, ezin omen da esan noranzko joera hartuko duen gizarteak. Indibidualizazio garaiak dira, likidoa dario harriari gainera, baina ez tantaka, ez: ufalaren azpian daude harri zaharrak.

Nago posmodernitate garaietan bizi garenez, zeintzuetan identitate anitzak eta hautazkoak ari diren gailentzen, errespetatu beharrean gaudela bai-ala-bai kanpoko euskaldunek euren euskalduntasuna bizitzeko dituzten erak, hain zuzen, Zulaikak dioen moduan, hautu hori egiten dutenean...

Identitate likidoaren garaian, zer da, beraz, euskaldun izatea? Gaur moderno izatea, identitate bakar bati helduta ezin bizi izatea omen da. Beste herrialde batzuetan identitate bikoitzak, baita nazionalak ere, plano diferenteetan bizi dituzte, naturaltasunez, eta ez dira batzuk besteen aurkakoak.

Aro berri honetan, globalizazio eta posmodernitatearen aroa deitu izan diogun honetan, arrazoia eta sekularizazioa dira nagusi: merkatua, hautua, nortasunak eraikitzeke aukerak... baina aldi berean, ez al dago heldu-leku espiritualen behar bat, inoiz baino nabariago? Indibidualizatze horrek ez al darama gizakia nora ezera?

## EUSKAL DIASPORA ANTOLATUA

Urko Apaolaza historialari eta kazetariak Argia aldizkariaren Larrun azken gehigarrian (2125 zk., 2008) euskal etheen egungo egoeraz egin du gogoeta.

Horrela deskribatzen du egungo egoera:

Euskal etheen egungo egoera ez da oso pozgarria, bai zaharkitua. Gazteak erakartzeko arazo ugari dago eta azaleko folklorean erortzeko arrisku itzela, krisia begi-bistakoa da, euskal nortasunaren mugak gero eta lausoagoak baitira globalizazioaren inperioan. Jakina, moduak eta moduak daude euskaldun sentitzeko, eta atzerrian identitateak memorian barrena bidaiatzen du libre. Baita Euskal Herriko erakundeek elikatzen duten diasporak aldaketak behar ditu, freskotasuna eta egitura arinak. Euskal etxeek aintzinako inertiak baztertu eta belaunaldi berrien beharrak asetu behar dituzte, iraungo badute.

Apaolazak dioen moduan, euskal erakundeak aro modernoaren hasieratik sortzen joan baziren ere (batez ere Peru, Mexiko eta Txileko kofradiak), horiek konkistatzaileen garaiko erakundeak izan ziren, eta euskaldunek garai horretan izan zuten presentzia eta garrantziaren lekuko baino ez dira.

Hala eta guztiz ere, euskal etxeak, gaur ezagutzen ditugun moduan, XIX. mende amaieran sortu ziren, lehena Montevideon (*Laurak bat*, 1876), nahiz eta badauden zantzuak esateko Habanan bazegoela ordurako euskal etxe bat, 1868an sortua.

Erakunde haien sorrerari erreparatuz gero, kontuan hartu behar da hasiera hasieratik izan zirela liskarrak euskaldunen artean, batez ere erakundeon oinarriak jartzerakoan, ez zirelako ados jartzen Euskal Herriarekiko harremanetan: euskal foruen auzia puri-purian zegoen garaia zen eta abertzaletasuna ere jaiotzear zegoen Bizkaian.

Hegoaldetik joandako emigratzaileek, José María Tapiz ikerlariak aztertu duenez, foruen galeraren aurka egiten zuten erakundeetan, eta iparraldekoek, ostera, ez zuten horren inguruko interesik azaltzen.

Apaolazak dioen moduan, 1910 inguruan lehia latza lehertu zen euskal etheen barnean, Aranaren abertzaletasuna alde batetik eta fuerismoa edo karlismoa bestetik. Liskar horren ondorioz erakundeen zatiketak eta berrien sorrerak ere eman ziren. Adibidez, Montevideon, Centro Euskarro-Español-era joan ziren karlistak eta 1912an sortu zen Euskalerra izeneko euskal etxe abertzalea. Rosariokoa ere zatiketa baten ondorioz jaio zen.

Zer esanik ez dago, gerra zibil garaian erbesteratu ziren milaka abertzalek indarberritu egin zituztela besoak zabalik hartu zituzten euskal etxeak, batez ere Argentinan, Txilen eta Uruguain (baita Mexikon ere, neurri apalagoan).

Argentinan "Comité Pro-Inmigración Vasca" izeneko Batzordea eratu zen inon baino indar handiagoarekin. Batzorde horren lanari esker onartu zuen Argentinan Errepublikako Ortiz Presidenteak 1940ko urtarrilaren 20ko Dekretu ospetsua, euskaldunentzat kanpotik izan den laguntzarik handiena ekarri zuena.

Dekretu horren bitartez, euskaldunei (Espainiakoak nahiz Frantziakoak) Argentinara sartzeko erraztasun guztiak ematen zitzaizkien, paperak eskatu beharrean, "Comité Pro-Inmigración..." horren berme moral eta materialaz sartuko baitziren.

Esan beharrik ez dago Ortiz Presidente bera euskal jatorrikoa izateak asko lagundu zuela.

Apaolazak dio:

Orduz geroztik ez da tsunami gehiago egon (150.000 inguru erbesteratu izan ziren gerra zibilaren ondorioz) basogizon, artzain eta pilotariz osatutako olatu txikiak baizik.

Eta hala da izan: Ipar Amerikarako bidea hartu zuten gehienek senideen edo auzokoen deia erantzunez hartu zuten hara joateko erabakia; asko eta asko, esan beharra dago, baserri girokoak ziren eta gogor lan egiteko prest joan ziren, gazterik, lurralde haietara. Kasu honetan ere badira *push-pull* faktoreak jokoan, baina ez dira Hego-Amerikara joan zirenek bultzatu zituzten arrazoi berberak, eta hortik datoz hasiera hasieratik emigrazio bataren eta bestearen arteko alde nabarmenak.

Horregatik nahiago izaten du Oscar Alvarez historialariak euskal "emigrazioez" hitz egin, pluralean.

Estatu Batuetara sartzeko erraztasunak ere amaitu ziren batez ere 1934ean *Taylor Grazing Act* izenaz ezagutzen den araudia onartu zutenean: horren ondorioz, artaldeak larre publikoetan han-hemenka erabiltzea amaitu egin zen, ganaduzaleen interesak gailendu zitzaizkielarik artzainei.

Azken artzain taldeak berrogeita hamargarren hamarkadan joandakoak izango dira, eta hirurogeigarren hamarkadan gutxi batzuk gehiago.

Estatu Batuetako kasuan ere, lehen euskal etxeak XIX. mendekoak izan zirela esan daiteke, orduko euskal etxeak ostatuak zirelarik. 1849ko "forty niners" famatu haien ondotik iritsi omen ziren lehen euskaldunen taldeak Kaliforniara (aurreko misioen historia albo batera utzita: kasu horretan, Fermin Lasuen eta abar aipatu beharrean aurkituko ginatke, baino ez da orain lan honen helburua, kolonizatzaileen aroz hitz egitea).

Meatzak non, euskaldunak han. Hori hasieratik izan omen zen horrela, eta batez ere Hego Ameriketatik joan ei ziren lehen taldeak Estatu Batuetako

Mendebaldera, ogibidea aldatu eta artzaintzan hasi ziren arte. Gero barrukaldera zabaltzen joan ziren, beti ere Mendebaldeko Estatuetan barreiatuz: Kaliforniatik Nevada, Oregon, Washington, Utah, Colorado, Texas, Washington iparralderago, Wyoming,...

Ordurako, bidaia zuzenean egiten zuten Euskal Herritik, gehienek New Yorketik barrena (Ellis Island-en muga pasa ondoren seguruenik). Han izango zuten Valentín Aguirre eta bere sare ondo antolatua zai (hotela, bidai eta enplegu agentzia...), haurrak bidaltzen zituelarik Manhattanera iristen ziren ontzietara, "Euskaldunik ba al da hemen?" esanez. Makinatxo bat euskaldunek pasa zuten haren hotelean lehen gau amerikarra, hurrengo egunetan mendebalderantz eramango zituen trenaren zain. Hizkuntza arrotza izan, eta azken destinoa markatzen zien karteltxoak lepotik eskegita bidaltzen omen zituzten.

New Yorkeko euskal etxea 1913koa da eta Mendebaldean, adibidez, esanguratsuenetarikoa den Boisekoa, 1950ekoa (aurretik bazen konfraternitatea, baina).


Mendebaldean oraindik ere euskal ostatuak jokatzen zuten euskal etxearen papera harik eta berrogeita hamargarren hamarkada aldera emigrazioa jeitsi zen artean. Orduan ekingo zioten egoitzak eraikitzeari.

### **8/1994 Legea**

8/1994 Legea onartu zenetik hona, 161 euskal etxe erregistratu dira ofizialki. Lehen urteetan lehendik zirenak izan ziren erregistratu zirenak (1999 urtera bitartean), eta azken urteotan gerora sortzen joan direnak.

Hona hemen euskal etxeen erregistro ofizialean 2008ko martxoan jasotako euskal etxeen kopurua:

Andorra	1		Kanada	2
Argentina	76		Kolonbia	1
Australia	3		Kuba	1
Brasil	1		Mexiko	3
Dominikar Errep.	1		Paraguay	1
El Salvador	1		Peru	2
Erresuma Batua	1		Puerto Rico	1
Espainia	10		Txile	3
Estatu Batuak	36		Uruguai	9
Frantzia	2		Venezuela	5
Italia	1		GUZTIRA	161



Herraldea	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Andorra									1				
Argentina	11	30	5	6	1	4	4	1		2	7	4	1
Australia	1			1							1		
Brasil		1											
Kanada			1								1		
Txile	1	1			1								
Kolonbia									1				
Kuba												1	
El Salvador	1												
Espainia		6	1	1			1	1					
EEBB		7	14	2	9			1		2			1
Frantzia		1		1									
Italia								1					
Mexiko	1	1		1									
Paraguai			1										
Peru	1												
Puerto Rico		1											
Erres. Batua					1								
Domin. Err.		1											
Uruguai	1	6	1	1								1	
Venezuela	1	2	2					1					
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>57</b>	<b>25</b>	<b>13</b>	<b>12</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>4</b>	<b>9</b>	<b>6</b>	<b>2</b>

8/1994 Legearen onarpenak ekarri zituen aldaketa azpimarragarrienak honako hauek lirateke:

Legean, alde batetik, euskal etxeak kanpoko euskaldunen eta EAE-ko erakundeen arteko harremanak bideratzeko bide nagusi bezala definitzen dira, eta ondorioz, azken urteetan indartuta ikusi dute euren zeregina.

Legeak, bestetik, bereizi egiten ditu euskal gizataldeetako kideak eta euskal etxeetako bazkideak. Lehenak, euskal etxeetako bazkide horiez gain, lirateke baita ere: atzerrian bizi diren euskaldunak (Euskadin jaiok eta nazionalitatea mantendu dutenak), hau da, Gernikako Estatutuaren 7.2 artikuluan jasotakoak, eta Gerra Zibilaren ondorioz erbesteratuak.

Guzti horiei zerbitzu batzuk bermatzen zaizkie, eta azken biei, bazkide soilei ez bezala, beste eskubide batzuk.

Legeak, euskal etheen erregistro ofizialaz gain, harremanetarako bi erakunde ere sortu zituen: Lau urtetik behin egiten den Euskal Gizataldeen Biltzarra, eta gutxienez urtean behin biltzen den Euskal Gizataldeen Aholku Batzordea.

Marko juridiko berri hori garatzeko hainbat Dekretu onartu eta hainbat programa jarri dira abian ordutik hona, besteak beste:

- ?? Euskal etxe eta federazioei zuzendutako diru-laguntzak
- ?? Gaztemundu programa
- ?? Premia larrian daudenentzako laguntzak
- ?? Kultur birak
- ?? Bekak
- ?? Andrés de Irujo saria
- ?? Laguntza zuzenak: Boiseko Ikastolari, Llavallol eskolari eta "Argentinan Euskaraz" programari
- ?? Aldizkariak
- ?? Argitalpenak
- ?? Erakusketak
- ?? Eta beste hainbat

Lan honen helburua ez da programa guztien xehetasuna ematea. Horren jarraipenerako Alex Ugaldereen "Memoria..." liburuan datoz jasota 25 urtean zeharreko harremanak, zehatz-mehatz.

## Diru-laguntzak

Euskal etxeei eta federazioei zuzendutako diru-laguntzena da programa edo deialdi nagusia, urtero egiten dena eta diruz hoberen hornitua.

Diru-laguntzok jasotzeko araudia eta baldintzak aldatuz joan dira 1995eko lehen Dekretua onartu zenetik. Bost araubide desberdin izan dira indarrean orain arte, eta seigarrena onartu berri da 2008ko martxoan. Honako Dekretu hauek izan dira arautzaileak legea onartu zenetik hona:

- ?? 108/1994 Dekretua, martxoaren 8koa
- ?? 235/1995 Dekretua, apirilaren 11koa
- ?? 94/1996 Dekretua, maiatzaren 7koa
- ?? 97/2000 Dekretua, ekainaren 6koa
- ?? 124/2003 Dekretua, ekainaren 10ekoa
- ?? 50/2008 Dekretua, martxoaren 18koa

Jarraian zenbait datu eskaintzen diren azken urteetan diru-laguntzak nora joan diren adierazten dutenak:

<b>Eurotan</b>	<b>2004</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>
<b>Herrialdea</b>	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>	<b>Guztira</b>
Andorra	4.879	2.717		
<b>Argentina</b>	<b>493.030</b>	<b>327.168</b>	<b>400.316</b>	<b>624.258</b>
Australia	4.642		21.531	4.476
Brasil				10.516
Kanada	1.369	8.486	7.735	7.884
Txile		2.711	10.620	17.074
Kolonbia		20.710	10.639	9.772
Kuba				1.756
El Salvador	1.343			
Espainia	97.074	93.266	131.881	134.875
<b>EEBB</b>	<b>70.825</b>	<b>235.554</b>	<b>147.692</b>	<b>161.141</b>
Frantzia		45.970	45.500	60.172
Italia		19.987	23.730	31.744
Mexiko	49.269	38.239	59.429	81.146
Paraguai				
Peru	2.215		1.838	831
Puerto Rico				
Err. Batua	7.038	17.992	13.073	
Dom. Errep.		3.120		
Uruguai	12.972	49.126	76.182	86.008
Venezuela	144.831	123.568	92.314	122.565
<b>Guztira</b>	<b>889.489</b>	<b>1.012.045</b>	<b>1.228.001</b>	<b>1.354.218</b>

2008ko martxoan onartu berri den arautegi berriarekin joera izango da eskatzen duten euskal etxe eta federazioek guztiei ez ematea (bataz beste, 161etik 100

inguruk eskatzen dute diru-laguntza urtero), eta murrizten joatea behintzat jasotzaileen kopurua eta zertarakoa (adibidez, 2008tik aurrera, ohiko gastuen %50a baino gutxiago finantzatu ahal izango dute diru-laguntzekin). Lortu nahi dena da euskal etxe bakoitzak egitea aurre gastu mota horri eta kultur ekintzetan gastatzea diru-laguntzaren zati handiena.

%50eko ehuneko hori txikituz joango denez datozen urteetan, euskal etxeek auto-finantziatorako ahalegina egin beharko dute.

Urteetara bada ere, badirudu William Douglasssek diru-laguntzen inguruan 1999ko Kongresuan eman zuen aholkuari jarraitu egingo zaiola: Zioen, hain zuzen, demokrazietan tentazioa izaten dela guztien artean banatzekoa errekursoak, baina kasu honetan ez zuela zentzurik ikusten horrela jokatzeko eta programa interesgarrietan eta pena merezi duten egitasmoetan jarri beharko lirakeela sosak esan zuen ("café para todos" sistemarekin amaituz).

Urko Apaolazaren artikuluan honakoa esaten da:

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen diru-laguntzak euskal etheen ugaltzearen arrazoietakoa bat izan daiteke...

Eta galdetzen du:

...menpekotasun hori badago, ez ote dira desaktibatuko, autonomia eta erabakiak hartzeko ahalmena galduko...

Hori ardura hori FEVAren hauteskundeetako programan ere ikusi da, eta Lehendakari izendatu berriaren hainbat adierazpenetan ere auto-finantzaketaren aldeko plana abian jarri beharra aipatzen da.

Egia da baita ere Hego Amerikako euskal etxe gehienak urrun daudela autofinantziatutik, gero ikusiko den moduan.

Joseba Gabilondok askoz ere irakurketa gogorragoa egiten du diru-laguntzen inguruan:

Eusko Jarularitzak diaspora kaptatu eta instituzionalizatu egiten du, eta hori da euskal globalizazioaren adibidea...

1994an legea onartu zenetik hona ibilbide desberdina egin dute euskal etxeek, bakoitzaren nortasuna mantenduz. Halere, sare baten parte izateak eta laguntza hain ugari eskuratzeko aukera izateak, egoera nabarmen aldatu da gehienentzat.

Argentina eta Estatu Batuak izanik euskal etxe guztiek %70 batzen dituzten herrialdeak, gertuagotik aztertuko da jarrain herrialde bi horietako erakunde euskaldunen egoera.



## **Mugimenduak Argentina eta Estatu Batuetako diasporetan**

Argentina da euskal etxerik gehien duen herrialdea gaur egun (76) eta Estatu Batuek dira hurrengoa, euskal etxe kopuruari dagokionez (36). Kopuru horiek adierazten dute Eusko Jaurlaritzaren erregistro ofizialean jasotakoak zenbat diren, baina gaur egun FEVAk 95 elkarte batzen ditu eta NABOk 38.

Hain herrialde handietako euskaldunen elkarrekin bateratu eta koordinatzeko, kasu bietan dituzte euskal etxeen federazioak, azken urteetan garrantzia gero eta handiagoa hartu dutenak; FEVA (Federación de Entidades Vasco Argentinas), 1955ean sortua; eta NABO (North American Basque Organizations, Inc.), 1973an sortua.

Arestian ikusi denez, Argentinako eta Estatu Batuetako emigrazioak oso tankera diferentekoak izan ziren, eta gaur egun ere horrela jarraitzen dute izaten. Kontuan izan behar da herrialde biak oso kultura desberdinekoak direla, eta bigarren eta hirugarren belaunaldietako euskaldunak orain lehenago direla heziketaz behintzat argentinarrak edo iparramerikarrak.

Laburtuta jartzeko, hauek lirateke ezaugarri komunak eta diferentzia nabarmenenak:

FEVA (1955)	NABO (1973)
2008: 95 euskal etxe	2008: 38 euskal etxe
Politika bai, alderdikeriarik ez	Politika ez, baina...
Egitura bertikala	Egitura horizontala
Egoitza du eta 2 langile liberatu	Egoitzarik ez (liberatu bat, egunerdiz)
Zuzendaritzan ordezkaturako ee-ak	Asanblearioa (ee guztiak)
Diru-laguntzen menpekotasuna	Diru-laguntzen menpekotasunik eza
Erantzun azkarra emateko gaitasuna	Erantzun motela, gestio arazoa

Aipatu denez, Argentinako euskal etxe asko eta asko XIX. mendean jaiotakoak dira eta Estatutuak ere garai haietakoak dituzte.

Apaolazak ematen du jakitera Argentinakoa izan daitekeen euskal etxe baten zuzendaritza baten organigrama, honako hauez osatzen dela: Presidentea, ohorezko presidentea, idazkaria, idazkariordea, diruzaina, diruzain-ordea, lau bokal, beste lau bokal ordeko, kontu hartzailea... "Ogasun Ministerio bateko Kontseiluaren parekoa" izatera iritsi daitekeela dio historialariak. Pentsa daiteke hori zerbait kulturala ere badela.

Apaolazaren esanetan:

Zuzendaritzako kide askok errezelo handia dute zentroak egitura arinagoetara irekitzeko, euren etxea bezala sentitzen duten erakundeetan arrotzak baitituzte inizatiba

berritzaileak... Portaera hori areagotu egiten da dirulaguntzen babesean eta ekitaldi ofizialen oparotasunean bizi diren kideengan.

Gaur egun ba al du horrelako egiturak mantentzeak interesik?

Gainera, gertatzen da badirela euskal etxeak euren estatutuen morroi gelditu direnak: estatutu zaharkituekin eta estatutuetan bertan adierazten denez horiek aldatzeko prozedura, aldatu ere ezinik edo presidentea bera ordezkatu ezinean daudenak. Jo dezagun presidente edo zuzendaritzako kide izateko euskal jatorriko abizena izatea eskatzen zaiela (guztiei edo kopuru bati), eta ez dagoela gaur baldintza beteko duen besteko jenderik. Bere garaian arau horiek idatzi izanaren helburua, euskalduntasuna ez galtzea zen. Baina gaur primordialismo horrek topo egiten du gaur egungo euskaldun izatearen definizio ofizialarekin eta orokorrean onartuekin.


Ondorioz, badira arau batzuk beti betetzen ez direnak, adibidez, zuzendaritza organoen erdia tarteka berritu beharra (presidentetza barne), badirelako urteetan kargu horietan jarraitzen dutenak, erantzukizunak hartuko dizkieten jende faltan.

Zuzendaritza organoen berrikuntzaz ari garelarik, aipagarria da 2008ko martxoan bertan FEVAren Zuzendaritzaren berrikuntza prozesua nola garatu den.

1955ean sortu zenetik, FEVAren lehen aldiz gertatu omen da bi hautagaitza egotea Lehendakaritzarako. Hobeto esanda, karguen zati bat aldiro aldatzen da eta martxoaren 15eko bozketan Lehendakari berria ere aldatzekoak ziren (M<sup>a</sup> Luz Artetxek oraintsu kargua utzi eta gero). Horrek hauteskunde bereziak bihurtu ditu, eta bi zerrenda aurkeztu dira, zerrenda bietako jendea kanpainen ibili delarik azken asteetan. Azkenean, "FEVA para todos" hautagaitza ofizialistak irabazi zion bozketa "Centros Vascos por la Alternativa" osatzen zuen berriari, gutxigatik irabazi ere (26 euskal etxek eman zioten lehenari eta 23k bigarrenari). Beraz, emandako botoen %53arekin irabazi du Eyheraguibelen zerrendak.

Prozesuak lortu duen gauza inportanteena partehartzeak izan duen igoera izan da: lehenagokoetan, ez zen %50era iristen eta oraingoan boto eskubidea zuten euskal etheen %84a joan da bozkatzera.

FEVA osatzen duten euskal etxe kopuruari dagokionez, Juan Cruz Jaime, "Medio siglo de labor vasco-argentina, Federación de Entidades Vasco Argentinas (1955-2005)" lanean FEVAren hazkundeaz ari delarik, erakusten digun datua da hau:



2007 urteko Kongresuan jakitera emandakoaren arabera, FEVAk 95 euskal etxe ditu, 58 aktiboak; 12 adherenteak eta 25 postulanteak (legea onartu zenean, 1994an, 60 zituen guztira).

FEVAren Estatutuen zazpigarren artikuluan jasota datorrenaren arabera:

Serán asociadas adherentes las entidades que deseen permanecer al margen del gobierno de la Federación.

Eta aktiboei buruz, hona eskakizunak: 1) nortasun juridikoa izatea; 2) Argentinan kokatuta egotea; 3) Federazioaren helburuekin bat etortzea. Ez da hirugarren kategoriarik aipatzen ("postulante").

Azken urteetan FEVAren Zuzendaritza beste batzuek erabili dute, uko egin diote jarraitzeari. Litekeena da azken urteetan FEVA utzi zutenak saiatu izana zerrenda alternatiboaren bitartez erakundearen kontrola eskuratzen. Baina ez dute lortu. Izan daiteke euskal etxe historikoak (Buenos Aires probintziako zaharrenak edo horietako gehienak) egotea zerrenda ofizialean, eta aldiz, euskal etxe txikiagoak eta periferiarago kokatuak gauzak aldatu nahian dabilzanak.

Gaztetasuna beti da sana eta batez ere berrikuntzak sartzea eta parte hartze handiagoa eskatzea berrien eta txikien aldetik.

Ofizialistek egin dutena da euren eskua luzatuta eta eskaintza bat luzatu zerrenda bateraturako.

FEVAren helburuetako bat da, Estatutuetako laugarren artikuluen f) letran dioenez, "Promover la creación de nuevas entidades en las localidades donde

no existan...” Eta badirudi azken urteetan eztabaida piztu duela horrek, euskal etxe gehiago onartzen joateak merezi duen ala ez.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik behintzat, eta Argentina bezalako herrialde batean gero eta euskal etxe gehiago errekonozitzen eta erregistratzen joateak ez du zentzu handiegirik eta azken urteetan, grafikoki ikusi den moduan, sortuz eta sortuz joan dira euskal etxe berriak periferiako herrietan.

Izan liteke, baita ere, euskal etxe berriak sortuz egunen batean gehiengoak irauli eta Federazioaren kontrola eskuratu nahian ibiltzea norbaitzuk. Baina Euskadiko erakundearen aldetik, nahiz ere behartuta izan 318/1994 Dekretuak dioenaren arabera, euskal etxeok errekonozitzera, eta ezin eragotzi, nahikoa ordezkartuta dago Argentina bezalako herrialde bat dituen 76 euskal etxeekin.

Guzti horren atzean susmatzen da FEVA bera erakunde bezala alderdikeriatik kanpo badago ere, euskal alderdi politikoak bakoitza bere jokia jokatzeko ari dela Argentinako euskal elkarten kontrola eskuratzeko.

Beste kontu bat da erregistroan dauden 76 erakunde horiek guztiak euskal etxeak diren ala ez. Izan ere, helbide berean euskal etxe bat baino gehiago daude kasu batzuetan, eta litekeena da euskal etxe horretako batzorde, edo zati, eginkizun berezia dagokielako, izan zitezkeenek, beste euskal etxe bat eratu izana (arrazoi historikoengatik, adibidez).

Bi helbidetan behintzat erakunde bat baino gehiago dago une honetan euskal etxeen zerrenda ofizialean.

Politikari dagokionez, euskal argentinarrak bakoitzak izan ditzake bere ideia politikoak Euskal Herriko egoeraz baina erakundea “apolitikoa” da, Estatutuen bigarren artikuluan dioenaren arabera.

Egia da baita ere alderdi politiko abertzaleek bakoitzak bere ordezkartza duela Argentinan, eta bereizi beharra izango da pertsona bat noiz ari den afiliatu bezala, edo noiz euskal etxe edo Federazioko arduradun bezala.

Guztiarekin, kanpoko euskaldunen politizazio mailari dagokionez ezin da esan gauzak beltzak ala zuriak direnik. Argentinako euskaldunak erabat politizatuak daudela esatea ez litzateke egia izango. Bai esan ohi da, bertako politikari dagokionez, euskaldunek gehien bat Alderdi Radikala babestu izan dutela.

Euskal Herriko alderdi politikoek diasporan jarri duten interesari dagokionean, esan beharra dago ez gaudela Galiziaren kasuan. Galiziak 300.000 boto jaso ditzake diasporatik, eta hori erabakigarria da: Galiziako bigarren hiri handiena Buenos Aires dela esan ohi da, eta hauteskundeak deitu bezain pronto ikusi izan dira zerrendaburuak abioiak hartzen, botoen sarekadaren bila.

Hori ez da kasua Euskal Autonomi Erkidegoari dagokiona. Hona datu batzuk, azken hauteskunde autonomikoetakoak:

DIASPORAREN BOTOAK 1990-2005

	1990	1994	1998	2001	2005
Erregistratuak	7.005	14.373	26.396	32.858	38.270
Boto emaleak	2.152 (%30,7)	3.118 (%21,7)	6.888 (%26,1)	10.522 (%32)	9.900 (%25,87)

BOTOEN BANAKETA

PNV	647 (%30,1)	978 (%31,4)	2.011 (%32)	PNV / EA 4.165 (%39,5)	PNV / EA 4.325 (%43,68)
PSOE	523 (%24,3)	858 (%27,5)	1.500 (%24,3)	2.161 (%20,5)	2.391 (%24,15)
PP	205 (%9,5)	431 (%13,8)	1.343 (%21,7)	2.898 (%27,5)	1.906 (%19,25)
HB /EH/PCTV	204 (%9,5)	312 (%10)	522 (%8,5)	625 (%5,9)	446 (%4,5)
IU	0	31 (%1)	256 (%4,14)	384 (%3,6)	305 (%3,08)
EA	105 (%4,9)	251 (%8,1)	378 (%6,1)	-----	-----
ARALAR					145 (%1,46)
Besteak	468 (%21,8)	258 (%8,3)	166 (%2,7)	159 (%1,5)	300 (%3,03)
Baliogabeak	0	0	712 (%10,33)	+ Zuriak 160 (%1,5)	+ Zuriak 82 (%0,82)
GUZTIRA	2.152	3.119	6.888	10.522	9.900

Nahiz eta gero eta jende gehiago ari den nazionalitatea eskuratzen (batez ere emigrazio berrien efektua baino, nago bigarren eta hirugarren belaunaldietakoek espainiar nazionalitatea berreskuratzeko erraztasunean datzala arrazoa, CERA deitzen zaion zentsu horren gorakadarena), bozkatzera ez da hirutik bat ere joaten (gehien gehien 2001ean izan zen, euskaldunen aurkako presio kanpaina bortitz hura eman zenean).

Beraz, gehienez, neurri ertaineko herri batean beste boto jaso dezake gehien jasotzen duen alderdi politikoak diaspora guztian.

NABOren kasuan gauzak arras desberdinak dira. Argentina eta Estatu Batuetako jendea eta kultura desberdinak diren modu beretsuan.

NABO 1973-74-ean jaio zen, Estatu Batuetako euskal klubien federazio modura. Esan daiteke ordurarte Kaliforniako euskaldunak (Iparraldekoak eta nafarrak gehienak), Idahokoak (bizkaitarrak gehienak), Wyomingekoak (nafarrak),... elkarren berri jakin gabe bizi zirela.

Bitxia da *chain migration* delakoaren ondorioz sortu zen mapa Estatu Batuetan: herrixka bat hartu eta hango emigrazio guztia toki bereberan kokatu (Arneguy Buffalon bezala). Hori ez zaigu ezezaguna egiten: Deba bailarako zenbait herritan ere, Euskal Herriko beste hainbat herri industrialetan bezala, Galizia eta Extremadurako zenbait herritatik denak herri berera etorri ziren.

1959an Sparks-en egin zen jaialdi erraldoia izan zen lehen aldia EEBB-etako Mendebalde osoko euskaldunak bildu zirenekoa. Handik aurrera, Boiseko jaialdiak hartu du, esan daiteke, testigua, orain 1990tik bost urtean behin egiten denak.

NABOK orain arte izan duen ibilbidea oso emankorra izan da. Urtean hirutan biltzen da: bilerak udazkenean eta neguan egiten dira, eta Convention derizotena uda partean, jaialdi eta guztikoa izaten baita.

Euskal klub bakoitzak bere ordezkaria bidaltzen du bilera horietara, eta gainera, *NABO representative* askok dute batzorderen baten ardura: pilota, euskara, musa, egutegia, haurren udalekua,... Beraz, Lehendakaria, idazkaria eta diruzaina dauden arren, lana eta ardurak ondo banatuta daude eta erabakiak biltzarrean hartzen dira, denen aurrean bozketak eginez.

FEVAren kasuan ez bezala (13 kidez dago osatua FEVAren Zuzendaritza, eta ez guztiak euskal etxeetako Zuzendaritzek hautatuak), NABOK egitura eta funtzionamendu oso horizontala du. Horrek azken urteetan arazoak ekarri izan ditu, erantzuna emateko bilera batetik besterako tartea behar izan duelako NABOK sarritan, eta oso inoperatiboa gertatu izan da.

Batez ere kontuan hartzen badugu bere programak gehitzen eta handitzen joan direla urteak joan urteak etorri, "profesionalizatzeko" premia bat nabari zaio. Gaur egun pertsona liberatu bat dute, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntza bidez ordaintzen duena (*part time*) eta alde handia da elkarrekin eguneroko kontuetan jarduteko eta euskal etheen arteko jardura koodinatzeko (informazioa bidali, "Hizketa" buletinaz arduratu, web orria eguneratu, eta abar luze bat).

Beraz, FEVA bezala, NABOren baitan ere gauzak aldatzen ari dira. Politika usaia izan zezakeen edozertatik ihes egiten zuten moduan (oso nabarmena izan zen NABO ez zuela Eusko Jaurlaritzak ofizializatu 1999 urtera arte, ba omen zirelako euskal etxeak "Eusko Jaurlaritza eta ETA gauza bera" zirela mantentzen zutenak, eta azkenean bi euskal klubak ezetzarekin egin zuen gainera, Susanville eta Winnemucca), gaur egun gauzak aldatzen hasi dira, eta badirudi musa eta dantzak egitera ez direla mugatzen eta mugatuko aurrerantzean.

NABOK urtean hiru aldiz kideen artean banatzen duen "Hizketa" buletinaren 2006ko udazkeneko alean honela zioen:

Years ago a book was published with the title of "Chorizo, Beans and other things". It was a collection of poems with some illustrations, but it was the title that resonated because it succinctly captured the essence of "Basqueness" here in America. We know what chorizo and beans are. Furthermore, we know that these elements of Basque culture seem certain to endure... It's the last part of the title, however, the "other things" that is now our focus. What are these other things of Basque culture, and which do we want to work to preserve and promote? What is worth our time, energy and money?...

Urte horretan bertan, NABOk Nevadako Gardnervillen egin zuen udazkeneko bilkuran (urtean hiru aldiz biltzen dira ordezkariak, Mendebaldeko iparraldean, hegoaldean, ekialdean edo mendebaldean kokatutako hiriren batean), gogoeta sakona egin zuten, federazioak joka dezakeen paperaren inguruan. Pilota, musa, egutegia, udalekua, eta batzorde bakoitzeko arduradunaren azalpenak entzun ostean, hurrengo bilerarako NABO hamabost urteren buruan non eta zertan ikusten zuten, horren inguruko gogoeta prestatzen hasteko erabakia hartu zuten lehen aldiz.

Gloria Toticaguenak zuzendu zuen *brainstorming* saioa eta agerian utzi zuen oso garrantzitsua izan daitekeela EEBBetako euskaldunentzat egiten ari diren boluntario lan guztia, baina liderrak eta profesionalak prestatzeari ekin beharrean daudela.

Euskal Diasporan aditua den Toticaguenak euskal etxeen etorkizunaz jarduten duenean esaten du euskal etxeek ahal duten guztia egiten dutela euskalduntasuna transmititzeko, eta batez ere azken urteetan hitzaldiak ematen eta sugarrak piztuta irauteko lanean ari diren guztien lana eskerga dela dio.

Halere, eta Munduko IV. Biltzarreko irekiera ekitaldian euskal etxeei zuzendu zitzaizkion ere gogor hitz egin zien, aurrerago ikusiko denez, esanez aukera anitzen aurrean aurkitzen direla eta derrigorrez egin behar dutela salto bat aurrera, iraungo badute.

Kalitatezko adierazlerik ez dela erabiltzen esaten du Toticaguenak euskal etxeen jarduna neurtzeko, ez dute lanik egiten euskal nortasunarekiko "inplikazio sentimental psikologiko eta espirituala gero eta handiagoa" izatearen alde, eta...

Diasporak hainbat ekintza eta lan egin dezake, euskaldunei buruzko informazio zehatza eta egiazkoa emateko: demokrazia, bakea eta giza eskubideak babesten ditugula, esaterako.

Hiru gertakizun aipatuko nituzke azken urteetakoak, Estatu Batuetako euskaldunen artean gauzak aldatzen doazela frogatzen dutenak:

## 1) Idaho Senate Memorial 114

2001eko udazkenean Euskal Herriko politika gertutik jarraitzen zuen talde bat bildu zen Boiseko Basque Museum-ean, Idahoko kapitolioan Euskal Herriaren aldeko adierazpen bat bultzatzeko asmoarekin.

Denbora gutxira erretiroa hartzekotan zegoen euskal jatorriko Estatu Idazkari Pete T. Cenarrusa errepublikarrak, tartean izanik ere, ezin zuen berak testu bat proposatu, bere kargua exekutiboa zelako, bai ordea gaur egun Boiseko alkate den David Garmendia Bieter demokrata gazteak. Eta biak izan ziren bultzatzaile nagusi (errepublikarra bata, demokrata bigarrena).

Testua aurkeztu eta 2002ko urtarrilean egin zuen talde bultzatzaileak lehen agerraldia batzorde baten aurrean. Testigantza aurkeztera deitua izan zen euskal jatorriko boisear talde hau: Gloria Totoricaguena, Mark Guerry, Toni Lawson, Joseba Chertudi eta Tracy Basterrechea.

Ebazpenaren testua tramitatzen ari ziren bitartean Kapitolioko ordezkariak presioak jaso zituzten onar ez zezaten. Horrela, Javier Rupérez Espainiako Enbaxadorearen idatzia jaso zuten, Euskal Herriko egiazko egoeraz informazioa jasotzeko gonbitea luzatuz eta gomendatuz bakearen alde egin nahian bazebiltzan, ETAr indarkeria oro etetea eska ziezaiotela.

Condaleezza Rice berak ere telefonoz hots egin zion Sheila Sorensen goi-kamarako batzordeburuari, eta honek beste egun batera atzeratu zuen testua onartzeko jarritako bilera.

Azkenean, Bieterrek eta Cenarrusak onartu egin zuten Washington planteatzen ari zen aldaketak sartzea (terrorismo oro gaitzetsiz, ETA espreski aipatuz eta EEBBek terrorismoaren aurka zeramaten borroka sostengatuz).

Aldaketa eta guzti, ekimen honek sekulako oihartzuna izan zuen mundu mailan, batez ere euskaldunen artean, eta testimoniala izan badaiteke ere (ez baitira EEBB euskal gatazka konpontzera etorriko, eta gehiago hartu zuten Kapitolioan Cenarrusaren erretiroko opari bezala askok), *Senate Memorial 14* ak 64 kidetik guztien aldeko botoa jaso zuen, eta bozketa Ruperezen azken idatzia iritsi baino ordu batzuk lehenago onartu zen. Azken zatian ("Be it resolved that...") bakearen eta negoziazio politikoaren aipamena egiteaz gain, esaten da Idahoko Estatuak laguntza ematen diola euskaldunek duten autodeterminazio eskubideari.

Gero, testua bera munduko hainbat tokitan onartu zen (Argentinako Buenos Aireseko kamara probintzialean, esaterako).

Esan beharra dago ekimen honetan NABOk ez zuela parte hartu.



## 2) Wall Street Journal

2007ko azaroaren 6an, AEB-ko *The Wall Street Journal* egunkariak Espainian duen korrespontsal Keith Johnsonek artikulu bat argitaratu zuen, izenburu honekin: *Basque Inquisition: How Do You Say Shepherd in Euskera?*

Artikulua batez ere bere lanpostuan euskararen eskakizuna gainditu ezinik dabilen irakasle baten eta PPko parlamentari baten ikuspuntuetan zegoen oinarrituta, eta iseka handia zen euskararen kontra. Harrigarri gerta ala ez, Amerikako edizioan argitaratu zen, eta ez Europakoan.

Linguistikako inolako ezagupenik gabe eta ezjakintasunetik egindako artikulua baino maltzurkeriatik idatzitakoa zela ulertu zuten euskaldunek, eta askok ez zuen gehiegi pentsatu erantzun kanpaina hasteko: partikularrek, interneteko sareak, egunkariak, adituak... martxan jartzeko egoera piztu zen (2001eko hauteskundeetako kanpainako ginoa zirudiena sortu zen, batez ere kontuan izanik egunkari horren jabe den taldeko Administrazio Kontseiluan Aznar Espainiako Presidente ohia zegoela).

Hemen partikular baten idatzia, lehen egunetakoa:

*Dear Mr. Johnson,*

*I am a trilingual Basque (fluent Basque, Spanish and English), aged 43, whose mother tongue is Basque. I have 2 daughters, 10 and 4, who are fluent in Basque and Spanish (the eldest) and only in Basque (the youngest), as I was at their age. But by the time they are 16, they will be trilingual, too.*

*You should know that in certain areas of the Basque Country where the Basque language is spoken by the vast majority, there are public services that are not still bilingual.*

*Imagine that you have to take your child (Basque-only speaker) to the pediatrician. After 20 years of being co-official, do you mean that the child should explain the symptoms of their disease in Spanish to that person?*

*Which inquisition is still alive? The Spanish Inquisition.*

*Leopoldo Barreda and Santiago Abascal are members of the Basque Parliament. They should take care that Law regulating the status of the two official languages in the Basque Autonomous Community (passed by a majority of the members of the Basque Parliament in 1982) is taken into account.*

*Instead, they are worried about the fact that the Basque language is gaining speakers and more and more people define themselves as Basque.*

*I would suggest that next time you are to write about linguistics, you should inform yourself better, contacting those who are specialists on the subject.*

*Do please tell your Spanish friends that there will probably be a Basque speaking community in 7000 years from now, as it was 7000 years ago, before the Indo-European languages were created, because the Basque language is our most precious treasure and if we Basques do not preserve that enduring legacy, nobody else will, as you can easily guess.*

*It must be Basque stubbornness against Spanish Inquisition.*

*Benan Oregi*

Partikularren idatzi oholdea ikusita, egunkariak erantzun automatikoa prestatu zuen:

*Dear All:*

*First of all, I wanted to thank you for taking the time and trouble to write. And forgive the mass nature of the reply, but the sheer volume of mail makes individual responses physically impossible.*

*Second, for the many non-English speakers among you, I appreciate the effort made to write in English.*

*While there were a variety of opinions regarding the article, a common complaint was that it denigrated Euskera. I think that some people have seen only local press summaries which, I feel, presented a distorted view of what I wrote, but even some readers who saw the original version took umbrage at certain aspects.*

*I wanted to stress that I never set out to denigrate Euskera, and regret any offense it may have caused to Basque speakers. As in any article, I tried to gather a variety of different voices and present their opinions, rather than my own.*

*Which brings me to two smaller points that many readers complained about. First, the headline, "Inquisition." That is an unfortunate choice of words; but in U.S. newspapers, journalists don't write their own headlines.*

*Secondly, many readers complained that the article somehow is related to an editorial agenda of News Corp., and drew a link with one member of the News Corp. board, Jose Maria Aznar. I just wanted to stress that whatever errors there are in the article are mine; there is never any interference from above at any time, and certainly not when the editorial independence of the newspaper has been the key concern during the whole takeover process.*

*Best regards - Keith Johnson*

2007ko azaroaren 16an "Letters to the Editor" sailean azaldu ziren erantzun idatzietako batzuk argitaratuta, besteak beste, Joxe Mallea Renoko irakaslearena eta Steve Mendive NABOkoko Presidente ohiarena.

Eusko Ikaskuntzaren euskosare.org web orriaren bitartez ekindako kanpainak 5000 lagun ingururen sostengua jaso zuen. Hona testua:

*Utilizo el euskara para reír, enfadarme, reconciliarme y llegar a acuerdos en el trabajo. Para comunicarme con los amigos y la familia. Para investigar y aprender. Para soñar, dormido y despierto. Para jugar, alegrarme, amar,*

*castigar y discutir con mis hijos. Para ligar, hacer el amor, pasarlo bien... Y para todo lo que se pueda hacer en cualquier otro idioma.*

Sinadura guzti horiek entregatzeko, Eusko Jaurlaritzaren Estatu Batuetako Ordezkari Aitor Sotes eta Emilia Doyaga euskal amerikarrak bilera eskatu zioten WSJ egunkariari eta eskuz eraman zituzten milaka eta milaka herritarren sinadurak, euren haserrea erakutsiz eta zuzenketa bat exijituz.

Hona hemen Aitor Sotes, Euskadiren Estatu Batuetako ordezkariak berak bidali zuen idatzia:

*Mr. Alan Murray  
Executive Editor  
The Wall Street Journal  
200 Liberty Street  
New York, N.Y. 10281*

*Dear Mr. Murray,*

*After Reading the article written by Keith Johnson and published by your newspaper under the title “Basque Inquisition: How do you say Shepherd in Euskera”, I would like to express my astonishment with the lack of knowledge and culture of its author, as well as my indignation for the lack of respect and the treatment shown to very sensitive aspects of the Basque cultural identity and the Basque language. There are so many false statements and so much lack of knowledge of the Basque Country, Basque language and its political structure in this article that it is surprising to me that such a prestigious newspaper as the Wall Street Journal published it.*

*After 40 years of active repression under a dictatorship, the Basque language is rebounding and headed off the list of moribund languages. This is due to an effort by the Basque government to provide services, including education and health, in Euskara, the language that most people in the area prefer to use. While Basques are comfortable using Spanish in everyday activities, the majority continue to vote for the parties that encourage more use of Euskara in public. In fact, public schools that provide instruction mainly in Euskara continue to grow due to voluntary enrollment by parents. Basque children do not leave these institutions unable to speak or write in Spanish. Quite the contrary, under current linguistic policy they graduate with academic fluency in Basque, Spanish, English, and quite often a fourth language.*

*I would also like to note that by Spanish constitutional law Basque is an official language in the Basque Country along with Spanish. Therefore, all public institutions have the obligation to protect it, promote it and require its knowledge, especially in public areas such as education.*

*In mixing political issues with educational policy and the personal stories of a minority of teachers, the author creates confusion and paints a picture of a*

*climate of manipulation that is far from reality. The teachers that the author mentions in his article have had the opportunity to learn Euskara for free during work hours for 2 to 3 years with a full salary paid by the Basque Government. After this period these teachers didn't pass the required exam: Is that discrimination?*

*Furthermore, all languages are systematic and cannot be judged to be more highly evolved than another. The Basque language, though spoken by a relatively small group of people, is just as worthy of respect as any other. The examples for its so-called primitiveness would make any linguist in the world laugh. All languages borrow words from other languages. The same words that Mr. Johnson uses to show the backwardness of Basque are similar in English and Spanish as well. Democracy, democracia, demokrazia. These are all words with Greek origins.*

*Lastly, Mr. Johnson notes that theories link Basque to Berber and Eskimo languages. I'm not sure what "theories" these are since linguists believe Basque is the last of many languages that once existed across Europe and were forced out by the arrival of Indo-Europeans beginning about 2000 BC. Basque seems to have survived more serious assaults than this article, though it is a stunning piece of misinformation.*

Aitor Sotes  
Delegate of the Basque Country in the US

Ezin esan guztira zenbat erantzun jaso zituzten mundu guztitik, milaka eta milaka. Orain azetergai dugun ondorioetarako, bai da adierazgarria halako egoera baten aurrean NABOren osoko bilkurak aho batez onartu zuela idaztea aldizkarira, artikuluaen aurka eta euskararen alde. Beraz, lehengokoan sartu ez ziren moduan (autodeterminazioaren kontuan) euskararen aldeko kanpainan parte hartzearen alde ahobatez agertu ziren.

### **3) Stanford University**

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak gonbidapena jaso zuen 2008ko otsailaren 14ean Stanford Unibertsitateko Ikasketa Iberikoen Zentroan hitzaldia emateko.

Horren aurka laster sortu zen plataforma bat Stanford Unibertsitatetik bertatik (ikasle espainiarren batek bultzatuta, dirudi) eta "En defensa de la integridad de Stanford, contra la manipulación de Ibarretxe" izenburupean manifestu bat aurkeztu zuten, eskatuaz Unibertsitateari beste ikuspuntua duen norbaitekin batera gonbida zezatela.

Internet bidez barreiatu zen idatzi horrek milaka sinadura jaso omen zituen, tartean, eta oso esanguratsua da, Espainiako politikari zenbaitena. Horren

aurrean "Sopla el viento de la libertad" izeneko beste manifestu bat atera zen interneten, Ibarretxeren partehartzearen aldekoa.

Oraingoan Unibertsitatea bera atera zen, hain zuzen, Departamendu antolatzaileko arduraduna, Joan Manuel Resina Doktorea, Unibertsitatearen askatasuna aldarrikatu eta kanpoko ingerentziak arbuizatzen.

Azkenean ekitaldirako propaganda izan zen kontrako kanpaina guzti hori, sortutako ikusminaren ondorioz areto handiago batera eraman bait zuten hitzaldia eta gainera beste areto bat prestatu behar izan zuten pantaila bidez handik jarraitu ahal izan zezaten bertan bildutakoek.

Kontra egitera doenerdi bat ultra-eskuindar bertaratu zen, baina segurtasun neurri oinarritzko batzuk nahikoa izan ziren istilurik ez gertatzeko.

Egunetara, NABOko Presidente Mary Gaztambidek idatzi bat bidali zien Unibertsitateko errektore edo Presidente John L. Hennessy jaunari, Provostari eta Joan Ramon Resina antolatzaileari Estatu Batuetako euskaldunen partez, eskerrak emanez.

Stanfordekoaren ostean Ibarretxe Lehendakariak San Frantzisko bisitatu zuen eta harrera egin zioten hango euskaldunek. Mary Gaztambide NABOren presidenteak ere hartu zuen hitza ongi etorria emateko, eta hitz horien bitartez errekonozitu egin zuen Ibarretxe Lehendakaria bakearen alde egiten ari den ahalegina, eta adierazi zion enpresa horretan berarekin egongo dela NABO, bakearen aldeko edozein gauza egiteko prest azalduz.

Azalduz hiru gertakari hauetan NABOk izan duen jokabideak adierazten du gauzak aldatzen ari direla NABOren barruan ere, eta konturatu direla euren egitekoa izan daitekeela eskubide zibilak eta giza eskubideen aldeko lobby egite hori, beraz, antzematen da salto bat gutxika ematen ari direna alde horretara (Toticaguenak irekitako ildotik). Beste gauza bat da FEVAtik proposatu berri dieten CEVA Konfederazioan parte hartuko luketen: lehenago orain urte asko ere egon zen erakundea da CEVA (\*)<sup>\*</sup> (Confederación de Entidades Vasco Americanas), baina funtzionatu ez zuena.

Nago horrelako egitura bat, errealitatetik (euskal etxe eta klubetatik) bi maila goragokoa, ez dela premiazkoa, ez bada arduradunen kargu-pilatzerako eta joan-etorrietan gastu gehiago sortzeko.

Lanak eta proiektuak, trukeak, eta abar, era koordinatuan aurrera eramateko ez dago egitura berrien beharrik nire ustez, eta hego-amerikako kulturarekin bat etorriko litzatekeen arren, NABO bezalako erakunde horizontal batean istilu

---

\* CEVA sortzea 1956an Parisen egindako Euskal Mundu Kongresuan proposatu zuten Txileko, Uruguako, Argentinako eta Venezuelako euskal etxeen ordezkariak

iturri baino ez litzateke izango. Ezin dira herrialde batera beste herrialde bateko kulturaren oinarrituta dauden praktikak eraman, istiluak sortzeko ez bada.

Beraz, herrialde bien arteko zubiak bota eta estutu daitezke, baina NABOren filosofia ez dator bat egituraketari dagokionez FEVAren 2008-2011 lau urteko planean duten asmoekin: "6. Participar en el proceso de refundación de la CEVA". Izan ere, zein izango litzateke Argentinaren ideia? Nola indarrak banatu? Oso adierazgarria da egitura sortzea dela eurentzat lehena, eta gero proiektuak bultzatzea: "Constituir un Consejo de Dirección" eta ondoren "Elaborar y ejecutar proyectos comunes", ez litzateke alderantziz izan beharko?

Operazio arriskutsua, nonbait, Estatu Batuak "argentinizatzea".

Diru-laguntzei dagokienez (ikus taulak), Argentina eta Estatu Batuei erreparatuz gero, aldea ikusten da, adibidez:

2004

Argentinak diru-laguntzen %55,42 jaso zuen  
Estatu Batuek, ordea, %7,97

2005

Argentinak diru-laguntzen %32,32 jaso zuen  
Estatu Batuek, ordea, %23,27

2006

Argentinak diru-laguntzen %32,59 jaso zuen  
Estatu Batuek, ordea, %12,02

2007

Argentinak diru-laguntzen %46,09 jaso zuen  
Estatu Batuek, ordea, %11,89

Euskal etxe kopuruari dagokionez, gaur egun, Argentinan (161tik 76), %47,20a dago eta Estatu Batuetan (161tik 36), %22,36a

Datu hauek irakurketa asko izan ditzakete eta beti izango dira kontuz erabiltzekoak, ez baitira aipatzen zenbat euskal etxek eskatzen duen herrialde bakoitzean, eta batez ere, zein proiekturi aurre egiteko.

Bistakoa dena da Estatu Batuetan ez dutela diru-laguntzen menpekotasunik eta Argentinan bai. Horretarako arrazioen artean, azken urteetan 2001-2002tik hona, bizi izan dute krisia aurki daiteke. Baina ez da hori bakarrik, kulturala ere bada aldea eta badaude gutxiegi ematen zaiela adierazten dutenak (Argentinako zenbait kasu), eta hainbeste ez litzaiekela eman behar (Estatu Batuetako beste batzuk).

## **Itzulera**

8/1994 Legeak lehena eta geroa markatu zuen kanpoko euskaldunekiko harremanetan, zalantzarik ez da. Halere, zenbait pasartetan zaharkitua gelditu da. Beste Autonomi Erkidego batzuetan egin den bezala, Legearen zenbait artikulua aldatzeko aukera ez da aztertu, agian orain arte ez delako 1994ko egoera politiko berbera errepikatu...

Badira bizpahiru puntu legean jasota egon arren garatu gabe daudenak oraindik. Horietako bat itzulerarena da.

8/1994 Legearen 11.1 artikuluan jasotakoa betetzen dela esan daiteke: behin itzultzen direnean (beti ere nazionalitatearekin eta azken bizitokia EAE-n izandakoak badira, edo Gerra Zibilagatik erbesteratuak), ez dute aldeaz aurretik epe batean bizi izan direla egiaztatu behar osasun eta gizarte-laguntzak jaso ahal izateko (beraz, salbuetsita gelditzen dira baldintza hori bete beharretik).

11. artikuluko 2 eta 3. zatietako zerbitzuak, ordea, ez dira orokorrean eskaintzen: hau da, etxebizitza publikoetan portzentaia bat eurentzat destinatzea, edo bidai-gastuetarako laguntzak ematea, nahiz eta puntualki bai eman diren halako laguntzak (Errusiatik itzultitako Gerrako Umeen kasuan gertatu zen).

Catalunyan, 2002tik itzulera legea dute (25/2002 Legea, kataluniar emigratuen eta horien ondorengoen itzulerarako neurriak onartzeko dena), eta Espainiar Estatuari aurrea hartuta ibili dira eta dabilta, eskaintzen dizkieten laguntzei dagokienez.

Lege horretan Catalunyak bulego edo leihatila bakarra sortu zuen eta itzultzen diren familiek ez dute leihatilaz leihatila ibili beharrik hainbeste tramite egiteko (padroia, laguntza sozialak, etxebizitza, tituluen eta gidatzeko baimenaren homologazioa, ...), eta horrez gain beste laguntza batzuk eskaintzen dizkiete gizarteratzea ahalbaitlehen lor dezaten.

Bulegoko horretatik 2004 urtean, adibidez, 233 kasu eraman ziren.

Espainiar Estatuak 8/2008 Erret Dekretua onartu berri du, kanpoan bizi diren espainiarrentzako eta itzultzen direnentzako diru-laguntzak arautuaz. Kasu honetan, Catalunyakoz ez bezala, atzerrian kotizatu izana eskatzen zaie diru-laguntzetarako eskubidea izateko.

Eta zenbat lagun itzultzen dira Euskal Herrira diasporatik?

Zaila izanik ere neurtzen, datu faltagatik batez ere (Estatistika Institutu Nazionalaren zenbakiei erreparaturaz gero, hurbilpen bat baino ez baita begiratzea zenbat lagun datorren espainiar nazionalitatearekin euskal gizataldeak daudeneko herrialdeetatik Euskal Autonomi Erkidegora edo Nafarroara bizitzera). Datu horrek ez ditu denak hartuko, eta barruan hartzen dituen guztiak ere ez dira "itzulitakoek" kategorian sartuko.

Hala eta guztiz, bistan da euskal erakundeetatik bultzatutako hainbat programatan parte hartu duten gazte asko eta asko Euskal Herrian gelditu direla bizi izaten: Gaztemundu programako partehartzaileak, Euskal Herrirantz izeneko beka deialdien bidez etorritakoak, barnetegietara hizkuntza gaitasun handi batekin euskalduntze prozesuak amaitzera etorritakoak...

Adibide bat jartzeagatik, Maite Iturre gaztearena. Orain gutxi komunikabide guztietan ikusi dugu Brasilen jaio eta Argentinan hazitako neska hau, gaur egun EHUn irakasle dena, Espainiako Ministerioak Estatuko espediente akademiko onena izateagatik saritua (Lazkaoko barnetegira etorri, eta bertan gelditzea erabaki eta EHUn egin zituen ikasketak). Argentinan euskara irakasle izateko prestatzen ari zena gaur EHuko irakasle dugu.

Euskal Herrira datozen etorkinetako batzuk behintzat euskal jatorrikoak izanik, kultur talkarik ez dute jasaten, ez da inmigrazio prozesua euren. Halere, ukaezina da etorkinek euren ekarriarekin aberastu egiten dutela bertako kultura. Beraz, asimilazioa eta integrazioa ala errespetua eta akulturazioa... horra hor gaur gaurko beste arduetako bat, kultura gutxitu batentzat.

Jarraian eskaintzen dira Estatistikako Institutu Nazionalaren azken datuak, hurbilpen horren berri eman dezaketena.

Horrek erakusten du uste baino handiagoa dela itzultzen ari direnen kopurua (batez ere Hego Amerikako krisiarekin izan dezake lotura zuzena).

Horrela, gai hau 2008ko martxoan Euskal Gizataldeen Aholku Batzordeak izandako bileran ere tratatu zen, eta kontaktuak hasteko dira Administrazio eskudunen artean gaiari era koordinatuan nola heldu edo erantzun aztertzeke.

**Nazionalitate espainiarra izanik, atzerritik datozen pertsonen altak EAE-ko padroietan alta eman duteneko lurraldearen arabera**


	2002		2003		2004		2005		2006		GUZTIRA	
	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%	N	%
<b>Araba</b>	197	12,8	179	11,0	219	13,4	200	12,8	174	12,7	969	12,5
<b>Gipuzkoa</b>	586	38,1	642	39,3	606	37,0	539	34,6	549	40,0	2.922	37,8
<b>Bizkaia</b>	755	49,1	812	49,7	811	49,6	818	52,5	650	47,3	3.846	49,7
<b>EAE</b>	1.538	100,0	1.633	100,0	1.636	100,0	1.557	100,0	1.373	100,0	7.737	100,0



Atzerritik EAE-ra Inmigratu duten espainiarren jatorriko tokia, alta eman duten lurraldearen arabera (2002-2006)								
	ARABA		GIPUZKOA		BIZKAIA		EAE	
	N	%	N	%	N	%	N	%
EB15	291	30,0	1.224	41,9	977	25,4	2.492	32,2
EB25	295	30,4	1.236	42,3	994	25,8	2.525	32,6
EB27	319	32,9	1.281	43,8	1.141	29,7	2.741	35,4
EB Besteak	72	7,4	195	6,7	348	9,0	615	7,9
Magreb	14	1,4	28	1,0	65	1,7	107	1,4
Afrika besteak	18	1,9	50	1,7	80	2,1	148	1,9
Iparramerika	63	6,5	213	7,3	303	7,9	579	7,5
Hegoamerika	372	38,4	941	32,2	1.664	43,3	2.977	38,5
Txina	83	8,6	147	5,0	161	4,2	391	5,1
Asia Besteak	20	2,1	36	1,2	61	1,6	117	1,5
Ozeania	8	0,8	27	0,9	23	0,6	58	0,7
Ez da ezagutzen	0	0,0	4	0,1	0	0,0	4	0,1
Guztira	969	100	2.922	100	3.846	100	7.737	100

Iturria: Ikuspegi, inmigrazioaren euskal behatokiak prestatutako taulak, INE-ren datuetatik hartuta

EAE-ra azken urteetan itzultakoen kopuruak:



EAE-ra azken urteetan itzuli direnen zenbatekoari erreparatuz gero, ikusten da ez dela nolanhiko kopurua eta azken urtean gutxira egin badu ere, garaia izan daitekeela neurri orokorrak hartzen hasteko, Estatuak eskaini ahal dizkien

laguntzez gain beste tratamendu berezi bat izan dezaten euskaldunok gure artean.

Hala ere, Jaurlaritzan bertan honen inguruko kontraesan edo ikuspegi desberdinak izan daitezke, Inmigrazioaren Saila kudeatzen duen Ezker Batua alderdiko agintarientzat euren familiarekin Euskadin biltzeko baimenaren zain Ekuadorren edo Bolivian dauden emazte edo senar edo haurrak izango baitira batez ere euskaldun berriak.

Horrek erakusten du alderdi abertzaleek kanpoko euskaldunetikiko hurbiltasun hori ez dutela Estatu mailako alderdiek.

Euskal diaspora "abertzaletzat" dutelako izango ote da?



## EUSKAL KULTURAREN ADIERAZPENAK DIASPORAN

Robin Cohenen diasporaren definizioarekin bat etorriz, esan daiteke erakunde etniko bezala jaio zirela euskal etxeak, historia eta jatorri komun idealizatu bat zuten euskaldunek bultzatuta, eta elkarri laguntza eskaintzeaz gain, etnikotasuna edo desberdintasuna ospatzera dedikatzen zituztela jarduerak.

Toki batzuetako eta besteetako errealitateak hain dira diferenteak, Oscar Alvarez EHU-UPVko historia irakaslearen ikusmoldeaz begiratu beharra dagoela euskal diasporari, nortasun eta jite diferenteak izaki han hemenka barreiatuta daudenak, fenomeno plural bezala.

Bada joera bat gaur, euskal diasporaren hainbat kultur ekitaldi eta agerraldi gutxiestekoa, folklorikotzat joaz.

Urko Apaolazak dioenez:

...folklore hutsetik harantzago lan egin behar dute... beste askotan dantzari taldeak dira oraindik ere gazteentzako euskarri bakarretakoak...

Argi dago txorizoa eta babarrunak baino eginkizun jasoagoak dituela diasporak. Halere, gauza batek ez du bestea kentzen. Esan nahi da ezin dela gutxietsi manifestazio folkloriko bat, beste komunitateen aurrean bereiztasuna eta norberaren nortasuna azaltzeko adierazpide moduan erabiltzen den elementu delako, baita gastronomia eta herri-kirolak bezalako agerraldiak ere.

Sarritan, turismoaren erakartzaile erabiltzen dira ba? Zergatik? Modu errazenak direlako euskaldunetaz ezer ez dakien bati lehen irakaspenak eskaintzeko.

Jakina ez dagoela etorkizunik dantzan aritzen diren diasporako gazteentzat dantza egitera mugatzen badira. Baina ez al da hori euskal girora erakartzeko modu bat? Toticagunaren lotura psikologikoa eta komunitate bateko kide izateko gaur egun erabiltzen den bidea, dantzan ari diren ehundaka gazteentzat.

Euskal Herrian bizi diren euskaldunek ez dute premiarik euren euskalduntasuna kanporatzeko, euren etxeetan ez dago ikurriñarik edo Gernikako Arbolarik hormetan zintzilik, ez dute txapelik eramaten eta gehien gehienak ez dira gai ezpata dantzan egitera edo dantza soltera ateratzeko plazara.

Diasporan desberdina da, helburu bikoitza betetzen duelako: batetik, beste talde etniko asko dagoen herrialdeak dira *host country* horiek, eta besteengandik bereizi beharra dago. Zein da biderik errazena? Kultur adierazpide bisualak erabiltzea, erraz ikusteko modukoak.

Euskara, gure kulturaren zutabea, "euskaldun egiten gaituena" dela onartzen bada ere askotan (ez beti baina zentralitate hori onartzen zaio, lan honen hasiera ikusi bezala), badakigu diasporako euskaldunen artean ez dela berdina egoera: euskarak oso toki gutxitan iraun du, Hego Amerikan familia gutxi batzuetan (normalean Euskadin jaiotakoaren artean), nahiz eta gaur egun belaunaldi berrietan galduta dagoen, eta Ipar Amerikan gehiago, baina ez gehiegi ere (horretarako, David Lasagabaster Herrarteren lana).

Euskararen ordeaz beste heldu-leku batzuk erabili dituzte euskal etxeetan, gazteak bildu eta eurei euskaldun sentiarazteko heldu-lekuak eskaini, aldi berean ondo pasatzeko aukera paregabea irekiz.

Uka ezina da jai-giroan ematen direla euskaltasunaren kultur adierazpen gehienak diasporan (dantza, herri kirolak, gastronomia, sinboloak, ...) eta horrek oso ondo balio izan du gazteak euskal etxeetan txiki-txikitatik eta hogeitaz urte ingurura arte atxikitzeko. Hor azpi-kultura sinboliko bat sortu da, diasporakoa, *leisure identity* edo ondo pasatzearekin lotua, bigarren identitatea bizitzeko modua.

Boiseko azken Jaialdian (2005) Ibarretxe Lehendakariak *Basque Block*-ean egin zuen hitzaldiaren ostean musikariak "banakua" jotzen hasi eta jendartetik bakoitza alde batetik irtendako zortzi laguneko taldea sortu zen, gizon kuadrilla bat, elkarren artean ezagunak batzuk, beste batzuk ez, Amerikanoak eta Euskal Herriatik joandakoak tartean.

"Banakua" dantzatu ondoren jaso zuten txalo zaparrada izugarria izan zen, eta komunitate zentzua ematea lortu zuen agerraldi espontaneo hark, Ibarretxek hitzetan esandakoa gero errepresentatu izan balute bezala.

Horregatik, akatsa litzateke politikatik kanpo gelditzen diren ekitaldiak gutxiestea. Sarritan horien garrantziaz jabetu beharra dago eta euskaldunak batzeko orduan jokatzeko duten paperaz (politikak ez bezala). Berdin gertatzen da kantagintzarekin, eta abar.



## DIASPORAREKIN “ZUBIGINTZAN”: IV. KONGRESUKO EMAITZAK

“Zubigintzan” Euskal Gizataldeen IV. Mundu Biltzarraren izenburu moduan aukeratu zen, 2007an. Izan ere, aurreko kongresuetan akademikoek planteatu zuten “Aurrera goaz, baina norantz?” galderari erantzun nahian asmatu zen zubigintzarena. Transmittitu nahi zen ideia zen euskal erakundeen aldetik diasporarekin zubiak eraikitzen jarraituko zela aurrerantzean ere, diasporako euskaldunak gerturagotzeko, beti ere eurekin elkarlanean.



Horrez gain, zubi bakarra izan beharrean, zubi asko, era guztietakoak eta joan-etorrirako balioko dutenak. Zubiak dira tresnak, dira komunikazioak erraztea, laguntza eskabideak internetez egiteko aukera, interneteko presentzia handiagoa izateko tresna berriak sortzea, trukeak erraztea, trafikoa ugariago izateko eta ondorioz gertuago egoteko batzuk besteengandik.

1994ean kanpoko euskaldunetako harremanak arautzeko legea onartu zenean, esaten zen euskal etxeak direla (2.2 artikuluan) "...euskal gizataldeetako kideen eta Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioen artean harremanak bideratzeko bide nagusia".

Horien ardura izateko Lehendakaritzan bertan, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Zuzendaritza bat sortu zen, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritza. Zuzendaritza horretatik bideratzen dira euskal etxeei eta horietako kideei zuzendutako programa gehienak, lehenago aipatuak izan direnak.

Legea onartu zeneko garaian zubi bakarra zena, ordea, eta normalean Euskaditik haranzko norabidean, gaur egun biderkatu egin da: alde batetik, kanpoko euskaldunak ez daudelako euskal etxeetan bakarrik. Azken datuen arabera, 21.000 inguru bazkide ziren 21 herrialdeetan zehar barreiatutako 161 euskal etxeetan, eta euskaldunak ehundik gora herrialdetan bizi dira. Zenbat diren? Horri ez dago erantzuterik.

Beste alde batetik, Lehendakaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritza horrek, baliabide mugatuak baditu ere, egiten duen lanaz gain, eta propio euskal etxeetara begira, azken urteetan biderkatu egin dira kanpoko euskal etxeetako euskaldunengana eta euskal etheen babesik gabeko euskaldunengana jotzen duten erakundeak; Administrazio guztietako ordezkariak, Eusko Jaurlaritzako Sail desberdinak, Eusko Ikaskuntza bezalako erakundeak (www.euskosare.org-ren bitartez batez ere), batez ere Kultura eta Hezkuntza Sailak, aurki abian jarriko den Etxepare Institutua, eta hainbat eta hainbat elkarte eta erakunde pribatu eta norbanakok egin dute Ameriketarako bidea.

Batez ere Ipar Amerikako jaialdi haundietan normala da ikustea Euskal Herritik joandako senitartekoen taldeak... Berdin esan daiteke handik honako norabidean ere... Ekonomia indartsu bat duten herrialdeetako euskal gazte gehienak izanak dira Euskal Herrian, ez, aldiz, krisian bizi direnak: nabari nabaria da datu hori Gaztemundu programan parte hartzen duten gazteen artean. Partikularren mugimendua ere kontuan hartu beharrekoa da, eta bidaiatzeko ohitura eta erraztasunekin dago lotuta (beti ere, egoera ekonomikoaren ondorioz datorrena).

Hortaz, zubiak gaur ez dira bakarrak, zubi asko daude botata (eraikita) eta botatzeko... Xabi Paia bertsolariak Sao Paulon izandako payadoreen bilkuran (2008ko martxoan) bertsotan esan berri duen bezala "bi munduen erditik pasatzen den ibaia (Atlantikoagatik)" zeharkatzeko gero eta erraztasun handiagoak daude.

Euskal Gizataldeen IV. Mundu Biltzarraren emaitzei dagokienez, labur adierazteko, konklusioen dokumentuan 2008-2011 aldirako, hau da, hurrengo Kongresura bitartean, helburu eta jarduera eremu hauek onartu ziren.

Helburuak:

1. Atzerriko politikaren markoaren barruan jardutea diasporarekiko lanean

2. Euskal komunitate globaleko kide izateko aukerak irekitzea mundu mailan
3. Euskal etxeen barneko batasuna eta elkarte horien jardueren eraginkortasuna lantzea
4. Euskal etxeen eta kanpoko gizataldeen kanpora begirako proiektzioa indartzea
5. Emakumeen eta gazteen partehartzea bultzatzea

Jarduera eremuak:

1. Egoera larrian dauden euskaldunekiko elkartasuna eta asistentzia soziala
2. Euskal kultura eta euskara
3. Kanpo irudia eta komunikazioa
4. Trebakuntza
5. Memoria historikoa berreskuratzea

Oso izaera desberdineko 54 neurri jasotzen dira lau urterako planean, horien artean:

- Indarrean dauden araudiak / berriak
- Aurre txostenak
- Garatuko diren politikak
- Asmoen adierazpenak
- Jarduera neurri zehatzak

Hauek izanik lan ildo nagusiak:

- Programa berriak garatu ahal izateko informazioa eskatu eta eskuratu
- Euskal kultura, orohar, eta euskara, bereziki, bultzatu
- Gazteen artean liderrak eta monitoreak izango direnak trebatu
- Memoria historikoa berreskuratu

## **ERAKUNDE SARE BERRI BAT**

Orain arte Legearen arabera euskal etxeak eta Zuzendaritza ziren tokian, orain sare bat sortu da, Euskal Autonomi Erkidegoa garatuz joan den neurrian, erakundeak ere eremu berrietara helduz eta egoera berrietara egokituz joan dira.

Beraz, mugimenduak zubien alde bietan ari dira gertatzen.

Horren lekuko, Eusko Jaurlaritzak 2005. urtean onartu zuen "Euskadiren kanpo harremanetarako estrategia" dokumentua. Bertan jasotzen dira, besteak beste, ekintza politikoa, kanpoko esparruko politikak, helburu estrategikoak eta instrumentalak, Euskadi Europako eta nazioarteko subjektu aktibo izateko asmoa, jarduera esparru berriak eta, batez ere, kanpo harreman koordinatuak nola bideratu Euskadiko erakundeetatik.

### **Euskadiren Ordezkaritzak**

Gerra denboran eta ostean Eusko Jaurlaritzak izan zuen ordezkaritza sarea oso inportantea izan zen. De Castro eta Ugaldek dioten moduan, "1936ko urrian, Eusko Jaurlaritza eratu zenetik batez ere, izaera instituzionaleko kanpoko harreman aldia hasi zen". Ordezkaritzak Paris, Londres, Brusela, New York, Boise, Geneva (huts egin bazuen ere), Argentina, Mexiko, Dominikar Errepublika, Venezuela, Kuba, Uruguai, Txile, Kolonbia, Panama eta Perun izan ziren; eta baita ere Espainiako Estatuan ordezkaritzak Madrilen, Bartzelonan, Valentzian eta Alacanten.

Aro berri honetan, Euskadik kanpoan izan zuen lehen ordezkaritza Bruselakoa izan zen. Horrek konpetentzia arazo ugari sortu zituen, baina azkenean Konstituzio Auzitegiak ebatsita utzi zuenez, autonomia erkidegoek kanpoan proiektioa duten jarduerak burutu ditzakete (ikus "Estrategia") euren eskumenak erabiltzeko edo, gutxienez, komenigarriak badira, betiere jakinda jarduera horiek muga batzuk dituztela, adibidez, Estatuaren kanpo politikan eraginik ez izatea edo horrek atzerriko estatuekin edo nazioarteko zein nazioz gaindiko erakundeekin duen erantzukizunik ez sortzea.

Arazo legalak gainditu ondoren, ordezkaritza gehiago irekitzeari ekin zion Jaurlaritzak, eta gaur, irekita daude: Madrilen (2003), Mexikon (2002), Argentinan (2003), Txilen (2003), Venezuelan (2003), Estatu Batuetan (2007), (egoitza prestatzen), eta abian da Pariskoa. Ondoren irekiko dira, badirudi, Berlin eta Londres.

Ordezkaritzak euskal diaspora kokatuta dagoeneko herrialdeetan ireki dira lehenengo, eta hori ez da kasualitatea.



Adibidez, Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza sortzen eta arautzen duen Dekrretuaren zioen adierazpenean jasota datorrenez, "Maiatzaren 27ko 8/1994 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzkoak, bere helburuen artean zehaztu zituen, besteak beste, harreman sozialak, kulturalak etea ekonomikoak instituzionalizatzea eta atzerrian dauden euskaldunei bultzada eta babes integrala ematea. 8/1994 Legea indarrean sartu zenetik, lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko modu egokiak ezartzeko beharra nabaritu da, helburuok era eraginkorragoan lortuko badira behintzat. Hartara, Estatu Batuetako euskal gizataldeekin badago harreman egonkor bat, bai North American Basque Organizations, Inc (Amerikako Euskal Erakundeen Elkarte) erakundearen bidez, bai eta aitortutako beste euskal etxe batzuen bidez ere".

Dekretua esaten ari dena da Euskal Administrazioak euskal diasporarekiko lana "era eraginkorragoan" egiteko ere irekitzen direla ordezkaritzak, Administrazioa gerturatu egiten zaie kanpoko euskaldunei euren hiriburuetara (Estatu Batuen kasuan, New York aukeratu zen arren, euskaldun gehientsuak Mendebaldean errota daudenean). Horrek adierazten du, noski, ez dela bere lehen helburua.

Lehenengo artikuluan dator jasota, Euskadiren Ordezkaritza (kasu honetan, Estatu Batuetakoa, baina berdin guztiak), Euskal Autonomia Erkidegoak zenbait arlotan duen ordezkaritza-organoa dela, "besteak beste, euskal gizataldeekiko harremanen arloan".

Ondorioz, Euskadiren ordezkaritza harreman estuan daude kokatuta daudeneko herrialdeetako euskaldunekin. Horrez gain, egoitza fisiko bat izateak esan nahi du ordezkaritzan euskaldunek edo euskal etxeek entregatzen dituzten eskabide edo edozein idatzi euskal administrazioan sartzen ari direla automatikoki, eta horrek asko errazten ditu gauzak, Administrazio prozedurari begira.

Kontuan izanik euskal etxeetan batez ere kultur jarduerak burutzen direla, nahiz eta alderdi asistentzialak, eta abar ere inportanteak diren, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila ere gero eta gehiago joan zaie gerturatzen kanpoko euskaldunei, batez ere 1990etik aurrera euskarako klaseak era masiboan abian jarri zituztenetik, "Argentinan Euskaraz" programaren bidez.

2008an, Kultura Saileko bi ekimeni begiratzea komeni zaigu batez ere: Kulturaren Euskal Planari, eta Etxepare Institutuaren sorrerari.

## **Kulturaren Euskal Plana**

Kulturaren Euskal Plana 2004ean onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Planaren aurkezpenean web orrian esaten denez, Plana, zalantzarik gabe, Eusko Jaurlaritzaren plana da, eta erakunde horren jarduerak bideratu eta konpromisoak ezarriko ditu. Baina hori baino gehiago ere bada.


Lehenik, filosofia bat da, gure herriko erakunde eta eragile guztientzat esparru orokor bat. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, maila horretan, aurreneko bateratze-lan kolektiboa izan da. Gainera, dokumentuek, taldeek, hausnarketek erreferentzia orokor izateko asmo hori ageri zuten, beren aberastasunean erakundeak epel utziko ez dituzten diagnostikoak eta lehentasunak azalera ekarri.

Bigarrenik, ildo nagusi horiek garatzeko konpromisoa ere bada, jarduerak koordinatu eta adostu, baliabideak zentzuz banatu edo sinergiak sortu nahi dituzten erakunde zenbaiten bitartez, beti ere erakundeen eskumenetan sartu gabe eta eragile sozial edo pribatuen erabakietan nahastu gabe.

2007an egindako ebaluaketaren arabera, %58a betea zen ordurako, eta %41 2007 eta 2008an egiteko.

Bi urte hauetan zehar egiteko gelditzen diren puntuen artean, diasporari dagokionez, honako hauek aipatu zituen Miren Azkarate Kultura Sailburuak uztailako Kongresuan:

- ?? Lankidetzaren lerroak abian jartzea EAEko eta kanpoko erakunde publiko eta pribatuekin, batez ere Nafarroan, Iparraldean eta Diasporan kokatutakoekin (Etxepare Institutua joango denez honen ardura hartzen, ekimen hauek birdefinitzen joango dira 2008-2009an)
- ?? Kulturaren Euskal Kontseilua indartu egingo da, bere baitan Batzorde Bereziak eratuz (diasporak akta guztien berri izango du eta bere premiak helarazteko bidea)
- ?? Kulturaren Euskal Behatokia sortuko da, estatistikak landu eta *Kulturkaria* boletín digitala bultzatzeko (diasporarekiko harremanak sendotzeko balioko duena)
- ?? Teknologia berrien erabilera bultzatu, Zentro kudeatzaile bat aukeratu eta bertatik koordinatu materialen digitalizazioa, Artxibo eta Liburutegi Sarearekin lankidetzak arituko delarik. Kanpoko euskaldunek parte hartu beharko lukete honetan ere, eta euren premien berri eman, materialak lortzeko.



### **Etxepare Institutua: "...jalgi hadi mundura..."**

Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute sortzeko eta arautzeko, Eusko Legebiltzarrak 3/2007 Legea onartu zuen, ahobatez, 2007ko apirilaren 20an.

Lege horren zioen azalpenean jasota datorrenez, euskara, euskal kulturaren ondare den aldetik, Euskal Herriaren identitatearen funtsezko elementua da eta belaunaldiz belaunaldi gugana iritsitako milaka urteko legatua osatzen du. Euskarak azken urteetan ospea eta presentzia lortu du gure gizartean; aurrerantzean, berriz, ospe eta presentzia hori Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora eraman behar da eta, horrela, sustapen unibertsalaren bidez, euskal hizkuntzaren onespeneri bide eta bultzada emango zaio nazioartean ere.

Ildo horretatik, kanpoko kultura-aniztasunari eta unibertsaltasunari irekita agertzeaz gain, euskal komunitatea bere identitate kulturalari eutsita proiektatuko da kanpora, bere adierazpen eta agerbide guztietan.

Beraz, Etxepare Institutua sortzen da, euskara eta euskal kultura, bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo sustatzeko, hedatzeko eta proiektatzeko.

Bere jarduera nagusiak izango dira: Euskara irakasteko ikastaroak sortu, sustatu eta antolatzea; Euskararen ezagutza egiaztatze probak antolatzea; IKT berrien bidez euskara sustatzea; Irakurletzak ezar daitezen laguntzea eta euskalariei eta atzerriko ikerketa-zentroei lagundu eta haiekin lankidetzan aritzea; Euskal kulturaren sortze-lana kanpoan sustatzeko ekintzak eta estrategiak gauzatzea; Diru-laguntzak ematea; Hizkuntza, hezkuntza eta kultura jendarteratzeko azoka eta erakusketetan parte hartzea; Unibertsitate eta beste erakunde batzuekin hitzarmenak eta, hala dagokionean, elkarlanerako protokoloak sinatzea; eta, gaztelania, euskara bezala Euskadiko hizkuntza ofiziala, katalana eta galegoa sustatu eta kanpoan zabaltzea helburu duten erakundeekin, eta euskal hizkuntza eta kultura sustatzen jarduten dutenekin ekitaldiak gauzatzea eta koordinatzea.

Azpimarragarria da Institutuak arreta berezia jarriko diola, bere jardueretan, euskal komunitate linguistikoaren herrialde eta herrietako hizkuntza- eta kultura-ondare komunari: Nafarroa eta Iparraldea, hain zuzen.

Etxeparen Institutuaren sorrera legean esaten da legea bera garatuko duen araudia urtebeteko epean onartuko duela Jaurkitzak. Horrek esan nahi du 2008 urtean zehar martxan jarriko dela erakunde berri hau Donostian, eta zalantzarik ez dago, notizia oso ona izango da.

Hala ere, Institutua ez da hutsetik hasiko. Badira urte mordoxka bat HABEtik euskarazko klaseak antolatzen direla atzerrian.

1990 urtean "Argentinan Euskaraz" izenarekin jaio zen programaren bidez, gaur "Munduan Euskaraz" bihurtu dena, 2000 ikasle inguru dira mundu guztiko euskal etxeetan euskara ikasten ari direnak (horietatik 900 inguru Argentinan). Prozesu horren arrakasta informatikak ekarri du alde batetik (Hezinet klase presentzialetatik Boga sistemara pasatzean, bakoitzak bere etxean egin ditzake aurrera pausuak, gero tutorearen premia izan arren). Baina baita ere, ezin uka, Munduko leku askotan euskara irakasleak prestatzeari ekin zitzaiola lehenengotik, eta jarraitzen dira prestatzen.

Adibidez, Argentinan bakarrik 1990 urtean 17 irakasle eta 175 ikaslerekin hasi ziren, eta 2005erako 42 ziren irakasleak eta 826 ikasleak.

Patxi Baztarrika, Hizkuntza Normalkuntzarako sailburuordearen hitzetan (2007ko maiatza) "Gaur egun Amerikako eta Europako 9 herrialdetako 17 unibertsitatetan eskaintzen dituzte euskara eta euskal kulturaren irakaskuntzak eta Amerikako Estatu Batuetako, Argentinako eta Mexikoko beste 5 unibertsitatetan horren atarian dira; azkenik, beste 31 unibertsitateren eskaerak aztertzen ari gara".

2007ko uztailan Euskal Gizataldeen Mundu Biltzarrean Kultura Sailburu Miren Azkaratek Euskal Diasporaren ordezkarien aurrean adierazi zuenez, garatu ahala, institutua bere gain hartzen joango da alde batetik Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritza (Lehendakaritzatik) eta bestetik Kultura Sailerik beste erakunde batzuk (HABE, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Kultura Sailburuordetza) euskararen eta euskal kulturaren zabalkuntzarako burutzen diren jarduera gehienak.

Bai Kultura Saila eta baita Lehendakaritzako Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia ere Etxepare Institutuaren Patronatuko eta Zuzendaritza Kontseiluko kide direnez, beharrezko koordinazioa bermatuta gelditzen da (adibidez, gaur egun Lehendakaritzako Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritzak kudeatzen duen "kultur birak" programari dagokionez).

Eusko Jaurlaritza ari den moduan, beste erakunde publiko batzuetatik ere badira harremanak diasporarekin, esaterako, Gipuzkoako Diputazioan "Kirolak eta Kanpo Harremanak" izeneko Departamentua antolatu da azken urteetan.

Nafarroan ez da Gobernu egituran islatzen, baina Presidentearen menpe dago Nafar Etxeen errolda eta ari dira munduko nafarrei laguntza helarazten. Deigarria da nafar etxe bat eratzeko baldintzetako bat "nafar" azaldu behar izatea derrigorrez elkarre edo erakundearen izenean, Nafarroako Gobernuak onartuko badu.

Euskal etxeetan, jakinekoa da, ez zaiola begiratzen bakoitza zein lurraldetakoa den: berdin dira Iparraldekoak, Nafarrak, Bizkaitarrak, Gipuzkoarrak edo Arabarrak. Arazoak sortu izan dira diru-laguntza bat norbanako batengana zuzendu behar denean, pertsona hori EAE-tik kanpo jaioa bada.

Kasu zehatza da egoera larrian daudenei laguntzeko deialdia: horretan parte hartzeko, legean euskal gizataldekoetat jotzen direnek baino ezin dute parte hartu, beraz, nafar jatorrikoek edo iparraldeko jatorrikoek parte hartu ahal izango dute euskal etxeko bazkide badira, baina bazkide izateari utzi ezker, kanpoan geldituko lirateke (eta EAE-an jaiotakoek, aldiz, ez dute bazkide izan beharrik). 2003an abian jarri zenetik programa hori kasu bakarren batean gertatu da kanpoan gelditzea.

Beste kasu bati zango litzeteke kultur biretan: egoitza EAEz kanpo (Iparraldean eta Nafarroan) duten artistek ezin dute parte hartu, deialdia gaur dagoen moduan. Horri aurre egiteko ordezkariak aurkez dezake eskabidea, eta ezingo da atzera bota EAEn badu azken horrek egoitza.

## **Eusko Ikaskuntza: [www.euskosare.org](http://www.euskosare.org)**

Euskal Herri guztian, orain arte behintzat, lan egin dezakeen erakundeetako bat Eusko Ikaskuntza da, eta azken urteetan ahalegin handia egin du kanpoko euskaldunen sarea antolatu eta baliabide ugari jartzeko euren eskuetan.

Eusko Ikaskuntzak Euskomedia Fundazioaren bitartez jarri zuen abian Euskosare ekimena ([www.euskosare.org](http://www.euskosare.org)).

Ehundaka lagunek eta adituk hartzen du parte Euskal Komunitate Globalean, eta gune honek daraman ibilbidea goranzkoa da zalantzarik gabe. Jakinekoa da nondik hasi ziren baina dituen hazteko aukerak mugagabeak dira.

Euskosareren arrakastaren adierazle bat da edonork izan dezakeela interesa, internautaren euskal munduarekiko ezagutza eta interes maila nolakoa, erantzuna halakoa delako.

Diasporako berriak eskaintzen dituzte lau hizkuntzatan, eta datu-base inportantea egiten joan dira: pertsonena, argazkiena,... euskal diasporarekin lotuta dagoen guztiarena.

Horrela, ezer gutxi dakitenentzat informazio orokorra eskaintzen da Euskal Herriaz, euskaraz, hezkuntzaz, ekonomia eta enpresez, turismoaz... blogak ere baditu gai horien inguruan.

Bigarren maila batean, zerbitzu eskaintza bat ematen du: enpleguak bilatzeko (eskaintza eta eskaera), familiakoak bilatzeko, abizenen esan nahiaren inguruan ikertzeko, eta abar.

Sarean sartzen den pertsona batek Komunitateetako batean parte hartzeko aukera izan dezake aurrerantzean, bibliotekariena, dantzariena, ikertzaileena,... Hori konpromiso mailarik altuenean kokatuko litzateke.

Balorazioa, adituen ahotan, ezin hobea da:

Oscar Álvarez Gila, Ikertzaileen sarearen koordinatzaileak dioenez: "EuskoSarek euskal diasporaren inguruko ikerketa munduan zegoen hutsunea bete zuen".

Esan beharra dago EuskoSare euskal erakundeek finantziatutako egitasmoa dela, eta halako proiektu bat aurrera eramateko derrigorrezko giza baliabideak (materialak baino) ez direla txantxetakoak.

Hala eta guztiz ere, sarean dagoen euskal gune inportanteena bilakatu da, diasporari dagokionean.

## **EUSKAL EMIGRAZIOAREN HISTORIAREN BILKETA**

### **Andrés de Irujo saria**

Euskal Gizataldeen I. Mundu Biltzarrean, 1995eko urrian, lehen lau urterako plan instituzionala onartu zen (1996-1999). Plan horretan lehenengo aldiz jaso zen emigrazioaren historiaren inguruko aipamen bat. Horrela zioen: "diasporako euskaldunen historia eta bizipenak ezagutzera eman beharra dago, eta komeni da lehiaketa bat antolatzea helburu horrekin bat datozen lanak saritzeko".

Gomendio horri erantzunez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak "Andrés de Irujo" saria eratu zuen 1999 urtean, urtero ateratzeko asmoarekin. Sariaren helburua XX. mendean zeharreko euskal emigrazioarekin zerikusia duten ikerketa lanak edo sorkuntzakoak saritzea da, eta emigrazio orokorra izan dezakete gaitzat, edo baita ere bizipen pertsonalak.

Euskal emigrazioaren bilketa lanetako bat baino ez zen izan abian jarri zena, lehena. Gero horri beste askok jarraitu diote.

### **Euskaldunak Munduan bilduma eta Urazandi proiektua**

Lehen urte hartan (1999) saritua izan zen lanaren aurkezpena egin eta egun batzuetara, Vitoria-Gasteizen egin zen Euskal Gizataldeen II. Mundu Biltzarraren irekiera hitzaldian, William A. Douglass antropologo estatubatuar diasporan adituak euskal agintariei eskatu zien presazkoa zela euskal kolonien historia jasotzea. Zalantzarik gabe, berak zekien inork baino hobeto eremu honetan egindako ikerketa kontaezinei esker, jatorrizko iturriak galtzen ari zirela (izan ere, emigratu zutenen azken belaunaldi hori hiltzen hasia zegoen, eta denborak ez du atzera bueltarik).

Bere mezua jaso zuten, ordea. Horrela, Biltzar hartarik atera zen "2000-2003 lau urterako Ekintza Instituzionaleko Planak", D.9. puntuan jaso zuen, Andrés de Irujo sariari buruzko aipamenaz gain (D.7. puntua), honako konpromiso hau: "Euskal etxeek euren gain hartzen dute bakoitzak bere erakundearen historia (aktak, argitalpenak, argazkiak, e.a.) osatzen duten agiriak, eta emigrante eta/edo exiliatuen testigantzak jasotzeko plana garatzeko ardura".

Azken testigantza horiei dagokienez, 2000 urtean ekin zitzaion bilduma berri bat argitaratzeari: "Euskaldunak Munduan" izenekoa. Orain arte argitaratu diren zortzi zenbakietan argitaratzen joan diren lanak, akademikoak eta ikerketa sakonen ondoriozkoak izan gabe, kasu gehienetan kontakizun pertsonalak eta familiarrak dira. Horien bitartez, kanpoko euskaldunei euren bizipenen berri emateko tokia eskaini zaie, beti ere migrazioa bera oinarri hartutako kontakizunak badira.

Kanpoko euskal erakunde garrantzitsuenen historia biltzeko proiektuari 2002 urtean ekin zion Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritzak, "Urazandi" izenarekin.

Urazandi proiektuak hartzen joan zen neurriaren ondorioz, proiektua hiru fase nagusitan burutzea deliberatu zen:

- ?? Lehenengoan, 2002 eta 2003 urteetan zehar, mundu osoko historialari eta akademikoekin harremanak abiatu ziren, munduko euskal gizatalde esanguratsuenen historia dokumentatzen eta idazten has zitezten. Bildumaren lehen 16 deak Euskal Gizataldeen III. Biltzarrerako prestatu ziren, 2003 urterako. Proiektuaren lehen fase hori amaitu gabe dago oraindik, argitalpen berriak ari baitira lantzen oraindik. Gaur egun, inprentan dira 20 eta 21 zenbakiak, eta 22 eta 23.ak ere 2008an zehar argitara ematea espero da.
- ?? Urazandiren bigarren fasean Ameriketara argitaratutako 134 euskal aldizkarien aurkitutako ia zenbaki guztiak digitalizatu dira. Material guzti horren berri IV. Kongresuan eman zen, 2007ko uztailan. Guztira 180.000 orrialde inguru dira digitalizatu direnak, eta ikerlarien eskuragarri jarri dira dagoeneko. Lan hau kutxa batean atera da, 9 DVD gordetzen dituen kutxa batean, "Urazandi Digital 1" izenarekin.
- ?? Hirugarren fasea garatu ahal izateko, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak hitzarmena sinatu du EHU/UPV eta Bahia Blancako (Argentina) Universidad del Sur-ekin. Hitzamenaren helburua euskal gizataldeak errotuta daudeneko herrialdeetako egunkarietan euskaldunen inguruan argitaratutako guztia biltzea da. Aurre ikusita dago hitzarmen hori hedatzen joatea beste unibertsitate amerikar batzuetara.

Komunitate zientifikoan ekimen guzti honek sortu duen interesa sekulakoa izan da eta esan liteke, beste ekimen batzuekin batera, euskal diasporaren inguruko ikasketak mapan jartzea ekarri duela (Eusko Ikaskuntzaren "Euskal Herria Mugaz Gaindi" jardunaldiak edo Eusko Sare sarearekin batera).

### **Migrazioen museo eta interpretazio zentroaren egitasmoa**

Egiten ari den bilketa historikoko lana eskerga bada ere, guzti horren banaketa eta zabalkundea ez da nahikoa gertatzen ari. Frogatuta gelditu da mendetan zeharreko emigrazioak euskal herritarra eta familia gehienek ekonomian, emakumearen paperean, politikan, psikologian eta soziologian eragina izan duela.

Halaber, Renon dagoen Nevadako Unibertsitateko Euskal Ikasketen zuzendari ohi Gloria Totoricaguenak Euskal Gizataldeen III Mundu Biltzarraren irekiera ekitaldian, 2003 urtean, adierazi zuen moduan, "Euskal Herriko unibertsitateek ez dute ikastaro bakar bat ere eskaintzen diasporaren inguruan; ez dago



unibertsitate mailako beka bakar bat ere ikerlariak diasporako gizataldeak iker ditzaten; kanpoko euskaldunen berri ez da ematen lehen eta bigarren mailako eskola curriculumetan, eta ezta ere Euskal Herriko hainbat eta hainbat museoetako erakusketetan ere". Gabezia horri erantzuna emate aldera, euskal erakundeei eskatu zien gaiaren inguruko konpromiso handiagoa hartzeko. Guztiarekin, sortutako interesa ez da adituen eta ikerlarien mailan gelditzen, aurrerago azalduko dugunez.

### Interes orokorrekoa eta norabide bikoa

Euskadik azken hogeita bost urteetan lortu duen bizi maila altuak milaka eta milaka laguni aukera eman die bidaiatzeko eta egun batean erbestera ziren senideekiko etendako harremanari berrekiteko. Harreman guzti horien ondorioz, gero eta gehiago dira Ameriketako toki askotara joaten hasi diren euskaldunak, euren senideek ospatzen dituzten euskal jaiak bertatik bertara ezagutzeko. Harrotasunez erakusten dizkiete amerikanuek euren kultura euskal-amerikarraren adierazpide horiek.

Herritar gehienak gero eta garrantzia handiagoa ematen hasi dira familiaren historiari, eta "mikrohistoria" bezalako terminoak gero eta usuago erabiltzen hasiak dira.

Europa mailan ere asko dira emigrazio fokoen historia jasotzeko lanari ekin dioten erakunde publiko nahiz pribatuak, eta maiz egiten dira kanpainak itzultitako testigantzak jasotzeko, familietako eskutitzak diren altxorrek batzeko eta antzeko beste ekimen batzuk.

Interesa gero eta handiagoa da, eta hori behin joan ziren emigratzaileen ondorengoen artean ere antzematen da azken urteetan: idazlan honetan lehenago aipatu den "hirugarren belaunaldiaren itzuleraren hipotesia" (Marcus Lee Hansen) bezala deitu izan zaio gertakizun horri. Teoria horren arabera, emigratu zuten belaunaldiak berak, harrera gizartean, elkarre etnikoak, elizak, eskolak, e.a. antolatzen zituen, jarraipen kulturala bermatuz nola edo hala. Erakunde horiek guztiak izango dira jatorrizko herrialdeetako adierazpen kulturalen, sinboloen eta hizkuntzen gordailu.

Seme-alaben belaunaldikoak gurasoen bizitza estiloaren aurkako jarrera nabarmena izaten dute, besteak bezalakoak izan nahi izaten dute, gizarteko eremu guztietan normaltasunez parte hartu ahal izatea dute helburu, eta uko egiten dieten gurasoen sinesmen eta ohiturei, baita militantzia etnikoari eta erlijioari ere.

Biloben belaunaldikoek ez dute arrazoirik besteak baino gutxiago sentitzeko, euren gurasoeri gertatzen zitzaienaren kontra, erabat integraturik daude gaur egungo gizarte globalizatuan, eta horregatixe besteengandik bereizteko premia sentiarazten die horrek, bereiztasunak oso erakargarriak baitira. Hirugarren

belaunaldiko pertsonen talde bateko kide senti araziko dien nortasuna bilatzen dute eraikitzea, eta talde horretako kide bezala onartuak izatea. Hori izan liteke euskal etxeetako bazkide kopuruaren gorakadaren arrazoi bat, eta baita ere azken berrogeita hamar urteetan emigrazioerik jaso ez duten tokietan euskal etxe berriak eraikitzearen arrazoia ere.

Euskal Herrian zehar barreiatutako turismo bulegoetara, udaletxeetara edo beste erakundeetara senitartekoen bila edo abizen baten inguruko informazio bila jotzen duten atzerritarren kopurua oso handia da, eta ehundaka dira helburu berarekin internet bidez toki horietan jasotzen diren kontsultak ere. Guzti horrek, agerian uzten du ez dagoela erreferentzia toki bat, nora joan, senitartekoekin harreman oro galdu duen euskal jatorriko edonorentzat.

### Konpromisoa

Errealitate berri honi erantzuteko asmoarekin, *hiruko* gobernuaren osatzen duten alderdi politikoen VIII Legegintzaldirako (2005-2009) sinatu zuten koalizio-akordioan honako hau jaso zuten helburuen artean: "Euskal Emigrazioaren museo bat sortzea, eta emigrazio horren dokumentazioaren berreskurapenari ekiteko egitasmoa abian jartzea".

### Jarduerak

?? Lehen txostena

Lehenengo hartu zen neurria 2005eko urrian bertan hartu zen, euskal museo arloan esperientzia handiko IKEDER, S.L. kultur zerbitzuetarako enpresari aurre azterlan bat eskatu zitzaionean. Zehazki, horrelako ezaugarri hauetako egitasmo baten bideragarritasun azterlana eta dauden museoaren ereduena eskatu zitzaien egiteko.

IKEDERek txostena egiteko inkesta bidali zuen emigrazioaren 49 zentro eta museotara, batez ere Europa mailan, horietatik 31 AEMIko kide direlarik (*Association of European Migration Institutions*). Guztien arteko ikerlan konparatiboak mota honetako zentro batek eskaini beharreko zerbitzu eskaintza zehazteko lagundu zuen, eta baita promozioa, finantziak eta espazio fisikoa bera mugatzeko ere.

?? Izandako harremanak

Beste alde batetik, 2005. urtean zehar zuzeneko kontaktuak ireki ziren AEMI-rekin ([www.aemi.dk](http://www.aemi.dk)); erakunde hau 1989an sortu zen eta emigrazio europarra ikertzeko liburutegi, museo eta ikerketa zentroek osatzen dute, honako herrialde hauetakoak: Alemania, Kroazia, Txekia, Danimarka, Eskozia, Eslovenia, Finlandia, Frantzia, Ingalaterra, Ipar Irlanda, Aland Uharteak, Italia,

Luxemburgo, Norvegia, Polonia, Portugal, San Marino, Suedia. Horiez gain, Brasilgo, Estatu Batuetako eta Kanadako inmigrazio erakundeek ere parte hartzen dute, elkartutako erakunde bezala.

AEMIrekin hasitako harremanen ondorioz, honako ekintza hauek burutu ahal izan dira:

?? Europa mailako museo eta ikerketa toki esanguratsuenak identifikatu eta bisitatu:

~~///~~ *Deutsches Auswandererhaus Bremerhaven*, Alemaniako Emigrazio Museoa, Bremerhaven, Alemania

~~///~~ *BallindStadt Port of Dreams*, Hamburgon, Alemania

~~///~~ *Centre for Migration Studies at the Ulster-American Folk Park* en Omagh, Tyrone Konterrian, Ipar Irlandan

~~///~~ *Museo dell'Emigrante*, San Marino Errepublikan

~~///~~ Fafeko Emigrazioaren Museoa, Portugalen

?? AEMIren urteko bileran parte hartzea Eusko Jaurlaritzak, erakunde gonbidatu bezala. Trogirren egin zen (Kroazian) 2006ko irailean.

?? AEMIren urteko bileran parte hartzea Eusko Jaurlaritzak, kide bazala oraingoan. Turkun izan zen (Finlandian) 2007ko urrian.

?? Europa mailako erakunde horiekin hasitako harremanarez ondorioz, New Yorkeko Ellis Island-era ere bisita egin zen, han erakustetak antolatze dagoen aukera aztertzeraz. Gaur egun, Boiseko *Basque Museum & Cultural Center*-ekin batera, Ellis Island-erako erakusketa proiektu bat landu da 2009 urterako euskaldunek EEBBetako historian egin duten ekarpenaren inguruan, honako izenburu honekin: *"Invisible Cargo: Basques and What They Brought With Them"*. Ellis Island-en erantzuna 2008ko apirilera espero da.

?? Bigarren txostena

2007 urtean zehar Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendaritzak lehiaketa mugatu batera deitu zituen hiru enpresa, museo-zentro horren ikerketa sakonagoa egiteko.

Lehiaketa XABIDE enpresak irabazi zuen eta kontratuan ezarritakoa betez, 2007ko urte amaierarako lan mardul bat prestatu zuen, Bideragarritasun Txostena deitu ziotena, egitasmo horren inguruan.

Bideragarritasun Txosten hori Euskal Gizataldeen Aholku Batzordearen osoko bilkuraren aurrean aurkeztu zen 2008ko martxoaren 4ean, erakunde guztietako ordezkarien aurrean. Zenbat eta gehiago joan den egitasmoa lantzen, orduan eta argiago ikusi da helburu nagusia, eta euskal emigrazioaren museo soil bat izatetik Euskadi migrazioen interpretazio zentro izatera pasa da fase berri honetan. Orain, azterlana eginda dagoen honetan, agintari politikoei dagokie martxan jartzearen erantzukizuna.

## **IKT-AK ETA PLATAFORMA INTERNETEN**

1998an Luistxo Fernandez internauta eibartar ezagunak bere "Etxepare porno" saiakera idatzi zuenean honako pasadizo hau zekarren gogora: 1996 urtean interneteko bilatzaileetan Euskadiko Lehendakariaren izena, "Ardanza" tekleatu eta "bilatu" aukerari emanez gero, bilatzaileak "Do you mean *Sardana*?" erantzuten omen zuen. Adibide horrek lotsagarri uzten zuen euskal erakundeek sarean zuten presentzia.

Ordurako, euskal gaien inguruan zegoen web orririk bisitatuena Estatu Batuar batena zen, Blas Pedo Uberuagarena, hain zuzen, [www.buber.net](http://www.buber.net) Berak ematen dio gerora interneteko euskal web orri onenari ematen zaion "Buber" saria, hain zuzen.

Hara nola aurkezten duen bere euskal orria Buberrek:

Created by Blas, Buber's Basque Page attempts to compile information about the Basque people. The pages contain many contributions from volunteers from all over the world. The topics span history, language, sports and games, folklore, politics, and genealogy, among many others

Gaur egun euskal etxeek eta federazioek interneten duten presentzia apala dela esan genezake, salbuespen batzuekin. Web orririk biziena seguruenik NABOrena izango da ([www.nabasque.org](http://www.nabasque.org)), eta euskal etxe gehienek badute web orria (FEVak ere bai) baina ez dute nahikoa eguneratzen eta zenbait kasutan informazioa hain da zaharkitua eze, oso irudi txarra ematen duela horrek (hobe ez egotea).

Foroak, txatak, eta abar badira nonahi, batzuk beste batzuk baino biziagoak eta gaietan ere denetarik: arlo bateko gaiak ikutzen dituztenak, politikaz ari direnak...

Esan beharra dago Eusko Jaurlaritzak berak ere [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net) orrian diasporarentzako duen gunean [www.euskadi.net/euskaldunak](http://www.euskadi.net/euskaldunak) ez dela informazioa behar bezala islatzen eta sarritan zaharkitua egoten dela. Horren arrazoia da erakunde haundi baten web instituzionala dela, eta mugak eta baldintzak hainbeste dira, eta hain da motela eze, sarritan erorita ere egoten dela.


Horrek ez du esan nahi euskal erakunde publikoen aldetik informazio eta teknologia berrie jaramonik egiten ez zaienik.

Adibidez, 2006ko azaroaren 28an onartu zen 238/2006 Dekretua. Araudi berri honek aukera ematen die euskal etxeei parte hartzen duten prozedura edo deialdien izapidetzea telematikoki egiteko. Horretarako, Izenpe zertifikazio digitalerako enpresak txartelak banatzen dizkie bide hori erabili nahi duten

euskal etxeei (euskal etxe bakoitza da txartelaren titularra), txartelaren irakurgailu batekin batera.

Lehen urtean ez ziren taldetxo bat baino bide hori erabili zutenak, baina espero da gero eta gehiago izatea datu guztiak internet bidez bidaltzen dituztenak, gauzak errazago eta azkarrago egiteko helburuarekin.

Kongresuaren ostean, interneteko plataforma bat sortzeko proiektua jarri da abian, euskal etxe eta federazioen erabilerarako. Hori burutzeko federazioek hitzarmen-egitasmoa sinatuko lukete, euren gain hartuz egitasmoaren erantzukizuna.



## EUSKAL ETXEEN ETORKIZUNA

William A. Douglass antropologo estatubatuarra da euskal diasporan adituenetarikoa. Hara zer dioen etorkizunaz (2000):

To be specific, if in the Basque case persistence of meaningful Basque-American ethnicity during the new millennium requires the survival and prospering of Basque clubs, festivals, dance groups, and hotels, then I am pessimistic (...)

In short, it is now, or soon will be, possible for each Basque-American to construct his or her own desired variety of the Basque ethnic experience and reinforce it by visiting electronic chat rooms. At that juncture there will exist a Basque cyberspatial cultural reality that is the result of an interplay of selected Old World and diasporic Basque cultural referents, yet subject to individuated kaleidoscopic recombination by empowered consumers who fashion their own Basque products in accord with their personal preferences. Where, if anywhere, such virtual ethnicity might take us is as yet more science fiction than social science-but the force is definitely now with us!

Euskal erakundeek diasporarekiko egiten duten lanaz:

... it is fair to say that Euskadi..." -EAEaz ari da- "...is among the most proactive territories on the planet with respect to maintaining ties with its emigrants and their descendants...

Gloria P. Totoricaguenak, 2007ko uztailean, Euskal Gizataldeen IV. Mundu Biltzarraren irekiera ekitaldiko bigarren zatia euskal etxeen inguruko hausnarketa eta autokritikara gonbidatu zituen ordezkariak, hitz gogorrak erabiliz:

... Nuestras euskal etxeak son organizaciones de voluntarios, y que funcionan con una dinámica especial que debe ser cuidada y abonada, aunque también desmalezada y podada...

...Las euskal etxeak deben ser motores de desarrollo que animen a los individuos a buscar su "vasquidad" de la forma que deseen... El objetivo de la euskal etxea como puente no debe ser dirigir y controlar el tráfico, sino ofrecer nexos de conexión que vinculen a las instituciones y la gente de los siete territorios con todos los vascos que viven actualmente repartidos por múltiples países...

...La diáspora ni puede ni debe concebir una identidad homogénea cuando la propia tierra de origen es rica en esa diversidad... Somos un pueblo plural, lo que podemos considerar como una ventaja si empleamos sabiamente nuestro conocimiento y experiencia...

...Algunas euskal etxeak acostumbradas a las jerarquías y a la rutina deben aprender a adaptarse y a improvisar soluciones rápidas pero acertadas. El entorno ha cambiado y las organizaciones exitosas se han alejado de las estructuras trasnochadas del pasado y han progresado hacia formas organizativas más fluidas y renovadas, tales como las redes de interés y las comunidades de expertos...

...La memoria institucional y la formación de líderes son elementos fundamentales para conservar el conocimiento de la organización...

...Al mantener la jearaquía de la “vasquidad” (más que) a menudo se deslegitima a personas que tienen ideas diferentes, lo cual es contraproducente, especialmente para los vascos del exterior...

Euskal Herriko Unibertsitateko Historia Saileko Doktore Oscar Alvarezek, “Vascos en la Prensa Americana” proiektuaren koordinatzaile moduan Buenos Airesera egin zuen bisitaren ondoren adierazi berri du bere ikuspegia:

... orain 15 urte lehen aldiz joan zenean diaspora hilda zegoela ikusi bazuen ere, orain mugimendu desberdina antzeman du Argentinako euskaldunen artean. Horrek ez du esan nahi krisialdirik ez dagoenik, batez ere euskal etxe batzuetan, baina beste berri batzuk irekitzen ari dira eta hori oso da interesgarria. Euskal etxeak ez daude orain emigranteen eskuetan, haien ondorengoan eskuetan baizik. Orain jendea kultur kontuetan dago interesatuta, folklorean. Euskalduntasunaren zabalkunde guneak dira eta jarraituko dute izaten, horiek baitira gaur egun dituzten premiak...

Argitxu Camus, Estatu Batuetako euskal klubaren federazioa den NABOren historiaren egilearen aburuz (ikus Larrun-en egindako elkarrizketa):

...Euskal elkarteak bidegurutze batean dira etorkizunari begira eta erronka zenbaiteri aurre egin behar diete. Euskal Herriko etorkizuneko inmigrazioa agortua den kontestu honetan, euskal elkarteak belaunaldi aldaketa prozesu batean dira. Aldaketa hori batzuek xarmanki pasa dute, beste batzuek zailtasun batzuk ezagutzen dituztelarik. Kasu batzuetan, belaunaldi gazteek ez dute interesik elkartearen segitzeko, beste kasu batzuetan aldiz belaunaldi zaharreko kideek ez diete errazki gazteei edo ideia berriei lekua uzten...

...Euskaltasuna ez da errazki etortzen den sentimendua Estatu Batuetan sortu den haur batentzat. Nortasun hori eraiki behar da. Ondorioz, azken urte horietan euskal elkarteak aktibitate berrien integratzen hasi dira, tradizionalak ez direnak, euskal gazteria euskal elkarteetara erakartzeko...

...Garrantzitsua litzateke, belaunaldi gazteentzat, euskal gaietan heztea, uler dezaten haien arbasoak nondik heldu ziren, eta Euskal Herria nola bilakatu den. Estatu Batuetan badira hainbat talde hezkuntza arloan espezializatuak direnak, eta haien ezagutza interesatuekin partekatzeko prest direnak, baina orain arte oso guti izan dira haien laguntza edo kolaborazioa galdetu duten euskal elkarteak...

Joseba Etxarri, euskal diasporan adituak eta [www.euskalkultura.com-eko](http://www.euskalkultura.com-eko) zuzendariak, elkarrizketa sorta berean, hala zioen:

...Etorkizuna? Euskal etxeen baitan eta euskal administrazioen baitan dago... “Zertarako nahi dut euskal etxea?”... Boisen, eta Boisen bezala beste toki askotan, ari dira galdera horiek mahaigaineratu eta erantzuteak eskatzen duen ahalegin serioa egiten. Batzuetan, zenbat eta euskal etxe handiagoa eta zaharragoa, bizio gehiago eta pisu gehiago gauzak mugitzeko. Eta ez mugitzeak kasu askotan heriotza ekar dezake. Aldaketa etengabe ari den munduak aldaketak eskatzen dizkio euskal etxeari helburu beretsuak betetzen segitzeko, eta toki batzuetan nahi edota ahalik ez daukate bide horri ekiteko. Beste askotan bai.

Josu Legarreta, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendariak, Administrazioetik diaspora ondoen ezagutzen duenak, hara nola planteatzen duen egoera (Larrun, esandako elkarrizketan):

...Egun ukaezina litzateke Euskal Herriaren izen ona gehienbat gizaldietan zehar erbesteratutako euskaldunei eta euskal etxeoi esker dela. Eta, eskerronez, herri honek eta erakunde publikook badugula beraiekiko erantzukizuna. Baina ez hainbeste zertarako behar ditugun galderaren arabera egindako gogoetei erantzunez, zertarako behar gaituzten entzun eta aztertuz baizik.

Egitasmorik onenak interesdun bat baino gehiago dutenak omen badira, euskal etxeen alorrean ere adierazpen berbera egin daiteke. Gaur egun bada, zoritxarrez, ikuspegi honen aurkako jokabiderik: harremanak hain erraz sortu eta bultzatu daitezkeen mundu globalizatu honetan, benetan kaltegarri bilakatzen da bertan ditugun arazoak bertaratzea. Euskal Herritik bultzatzen diren harremanek eta laguntzek nahitaez helburu hau izan beharko lukete: euskal etxeak elkarre bezala indartzea. Hala egiten ez den guztia litzateke kaltegarri. Zer esanik ez ikuspegi honetan oinarrituta luzatzen direna Eusko Jaurlaritzaren jokabideak eta laguntzak...

...Zenbat eta elkarre sendoagoak izan, herri honek ere ahalbide handiagoak izango dituela nazioarteko bere ibilbideetan.

*(Ikus Josu Legarretaren adierazpenak YouTuben:*  
<http://es.youtube.com/watch?v=f1sxpflVmo>)





## **AMAITZEKO, HAUSNARKETA**

Euskaldun izateko modu asko daude, anitzak dira euskalduntasuna bizitzeko moduak, eta diasporan zer esanik ez. Nortasun edo identitate gidoidunak daude nonahi eta gizarte posmodernoan horrela da izan.

Euskal kultura dagoen bezala, kanpoko euskaldunen elkarteak ere bidegurutze batean daude, aldaketa ugari bizi dituzten garaian bizi dira eta horrek arriskuak eta mehatxuak sortzen dizkie, baina baita aukerak ere.

Euskal diasporaren historia biltzen ari garen honetan, badirudi aro baten amaieran gaudela, eta amaitu direla XIX. eta XX. mendean zehar izan diren praktikak.

Eszenatoki berri baten aurrean aurkitzen gara: emigraziorik ez dago herrialde horietara, beraz, lotura gero eta zaharragoa izango dute denboran, historikoagoa. Noiz artekoa da zorra? Noiz utziko diote euskaldun izateari?

Aurrera begira, euskal etxeek ardura handiagoak hartu behar dituzte euren gain, euskal nortasunaren gotorleku eta banatzaile izaten jarraitu nahi badute. Horretarako informazio trukea etengabea behar du izan eta konektatuta egon behar dira.

Bihar edo etziko liderrak gaurko gazteak izango dira, mundu globalizatuko seme-alabak, eta gazteei tokia egiten ez bazaie euskal etxea hilda geratuko da.

Estrategiak landu beharko dituzte erakunde bakoitzean, zer nahi duten, nola ikusten duten etorkizuna kasu bakoitzean, eta horri erantzuteko programak landu. Elkarre bakoitzak bere herrialdeko izaeratik eta kokatuta dagoeneko hiriko premiei eta gabeziei aurrez aurre begiratu, zer eskaini diezaiotke hurrengo belaunaldiari?

Baliabideak eta laguntzak bilatzeko aukerak ere izango dituzte, hori izango baita euskal erakundeen ardura.

Ziklo bat itxi da baina ireki dira hainbat ate: gaur egun mundu mailan unibertsitate askotan dago euskararen edo euskal ikasketen presentzia, eta hori areagotuz joango da 2008tik aurrera.

Nolakoak izango dira euskal etxeak beste hamabost urte barru, ez dakigunean gizartearen nondik norakoa asmatzen?

Zer gertatuko da Euskadin aldaketa politikoa ematen bada? Izango du eraginik euskal etxeen sarean?

Praktika okerrak izan dira bai euskal etheen aldetik eta baita euskal erakundeen aldetik ere: elkarren instrumentalizazioa gertatu izan da. Horrelako praktikekin amaitu beharra dago.

Inportantea da bereiztea euskaldunok zerk biltzen gaituen eta zerk bereizi, politikakeriak eta alderdikeriak kalte baino ez dio egiten kultur elkarte bati, eta zenbait arrisku kontrolpean izan behar dira.

Praktika berriekin hasten badira lortuko dute erreferente bat izatea nora-ezean dabiltzan gazteentzat.

Derrigorrezkoa da diasporarekin lanean ari diren euskal erakundeen aldetik era koordinatuan lan egitea, erreferentzialtasuna galdu ez dezaten.

Ez du inolako zentzurik nahikoa ordezkatzuta dauden tokietan euskal etxe gehiago sortzeak, baldin eta interes okerrengeatik ari badira horretan.

Informazio eta Komunikazio Teknologia berriak bultzatu eta erabili beharra dago, eta hori ez dator bat sarritan euskal etxeetako soziologiarekin. Aldaketak etorriko dira, lehenago edo geroago, denborak ez du atzerabiderik.

Etengabeko aldaketak ari dira zubien alde bietan, ez dakiguna da mugimendu osoak norantzako norabidea hartuko duen (Nor dago abangoardian? Norantza doa?)

Euskal etxeak pil-pilean daude; politikatik kulturara, kulturatik politikara, lehengo garaietatik garai berrietara, modernizatzerara, batzuk noraezean, edo hiltzorian, burua jaso ezinda... Urte gutxi barru argazkia erabat diferentea izango da.

Ez du zentzurik hiltzorian dagoenari laguntzen jarraitzea, ahaleginean sano dagoenari kalte egiten bazaio.

Eremu berriak konkistatzen ari dira: Unibertsitateak, internet,... eta horrek egoera hobean jarriko ditu munduko kultur merkatuan.

Prestakuntza. Prestakuntza. Prestakuntza. Garai berrietara, egoera berrietara, IKT berrietara... Gazteentzat heldu-lekuak sortu, erakarri, ez uxatu. Zeintzuk dira heldu-lekuak eskaintzen ari direnak gaur egun euskal etxeetan? Jarraipena?

Zuzendaritzetan daudenen erantzukizuna: hila ala bizikoa. Besteei ere tokia utzi, praktika berriak sor daitezten, egiteko modu berriak, aniztasuna, aire freskoa sartu behar da XIX. mendeko eraikuntzetan, eta horretarako ateak eta leihoak ireki beharra dago, estatutuak aldatu behar badira aldatu, garai berrietara egokitu.

Ala dena goitik behera egin beharra dago?

Berrasmatze premia horretan espiritualitate baten beharra, balore batzuk berreskuratu behar al dira, euskaldun zaharrenak zirenak? Segurutzuk bai. Zeintzuk?

Gerturatzen zaizkien euskal erakundeen aldetik, gero eta gehiago dira: Eusko Ikaskuntza; Unibertsitateak; Eusko Jaurlaritzako hainbat sail; Euskadiren Ordezkaritzak, Etxepare Institutua,... aktore gero eta gehiago.

Euskal etxeetako bazkide soilek bereizten dituzte? Zein da euren ezagutza maila? Parean al daude? Ala oso deskonpentsatuta gelditzen dira harremanak? Zer egin dezakete datorkienari aurre egiteko?

Zer espero dute Euskadiko erakundeek euskal etxeetako bazkideengandik? Kanpo Harremanak bideratzeko laguntza? Eta ba al dute horri erantzuteko mailarik? Ikusi eta ikasi.

Zer espero dute euskal etxeetako bazkideek Euskadiko erakundeetatik? Laguntza, zertarako? Bizirik irauteko, ala beste zerbaitetarako? Prestatzen hasi al dira erronka berriei aurre egiteko? Ikusi eta ikasi.

Orain arte bezala, euskaldunek kanpora irtetzen jarraitzen dute, azken urteetan, destino berrietara: hiri handietara, Europako beste herrialde batzuetara, Asiarara... Destino berri horietan ez dira elkarteak sortu (Shanghaikoa salbu), emigrazioa joan-etorrikoa delako. Mundua txikitu egin da erabat eta orain ez du inork betirako alde egiten. Horregatik elkartzen jarraituko dute, baina premiak ez dira berdinak izango. Emigrazio historikoa eta emigrazio berria bereizten hasi beharko dira egun batean. Batek historia markatuko du, eta besteak etorkizuna.





### **ELKARRIZKETA EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURU MIREN AZKARATEREKIN (GASTEIZ, 2008/05/07)**

**Nola ikusten dituzu munduko euskal etxeak gaur, zu sarritan ibilia zara, eta, osasun onarekin ikusten dituzu?**

Euskal etxeak oro har esango nuke baietz baina gero egia da afirmazio orokor guztiek izaten dutela beren puntu ahula ere eta ez dut uste euskal etxe guztientzako baieztapen bakar bat egin daitekeenik.

Badaude euskal etxe batzuk nik ezagutzen ditudan neurrian behintzat oso osasuntsu ikusi ditudanak eta, beste batzuk, gutxienak, baina ikusi ditut, oso kinka larrian daudenak ere.

**Beraz, egoera diferenteetan daudela esan daiteke...**

Nik uste dut baietz eta oso nabarmena da hori lehenengo aldiz joan eta kasu batzuetan ordu gutxi batzuk baino pasatu ez dituen pertsona batentzat ere nik uste dut begi-bistakoa dela hori.

**Orduan horren etorkizunera begira eragina izan daiteke, hau da, zuk uste duzu horien egoera mantendu egingo dela hemendik 10-15 urtera? Nola ikusten duzu horien bidea?**

Ba nik uste euskal etxe bakoitza azkenean egitasmo bat dela, eta horretaz gainera uste dut aurreko ni egon naizen bi Munduko Kongresuetan behintzat hori argi gelditu dela, euskal etxe bakoitzak aurkitu behar duela bere egitasmoa eta bere bidea, eta alde horretatik egitasmoak ez dira betikoak izaten ez euskal etxeei dagokienez eta ez gainera kontuetan ere, orduan logikoena eta naturala izango litzateke euskal etxe batzuk desagertzea, berriak sortzea... eta hori berriro esan hori egitasmoen artean normala izaten dela, betiko iraupena bermatua bermatua duen egitasmorik eta, ez dakit, proiekturik ez dago, beraz ikusi egin behar da zer nahi den, zein helburu daukan bakoitzak, horretarako zein bitarteko jarriko dituen, aldian-aldian inguruan gertatzen diren aldaketetara nola egokitzen den edo ez den... Horrek guztiak sekulako eragina dauka.

**Eta esan duzu orduan batzuk ixteko bidean egon daitezkeela, hori ulertu dizut, eta berriak irekiko direla, ezta?**

Et-et: ireki daitezke.

**Gertatzen ari zaiguna da berri horiek ari direla, ari dira sortzen, urtean lau bost onartzen dira Gobernu Kontseiluan, baina 40. hamarkadatik hona emigraziorik jaso ez duten tokietan sortzen ari dira euskal etxe berri horiek.**

**Orduan, zenbateraino dauka horrek zentzua? Emigrazioa gaur egun ez doa Argentinara. Argentina ez dago nahikoa ordezkaturik edo beteta euskal etxez?**

Nik uste dut hori hemendik nekez ulertu daitezkeela hori bertakoek ikusi behar dute. Eta hain zuzen ere nik uste dut euskal etxeak desagertzeko modurik ziurrena izango litzatekeela euskal etxe berrien sorrera emigrazioari oraindik irauten duen emigrazioari lotzea. Horrek esan nahiko luke (egia da momentu honetan Argentina, edo Txile edo Mexiko ez dira emigrazio guneak) beraz, horrek esan nahiko luke euskal etxe berririk ez eta daudenek irauteko zailtasun handiak, horrela irakurtzen baldin bada.

Orduan, euskal etxe berriak sortzeko... Zergatik sortu? Dudarik gabe, ez orain bada hemendik hara joan den jendeak sortuak. Behar bada bigarren edo hirugarren edo laugarren belaunaldiak, aurreko belaunaldiek behar bada ez dute horrenbesterainoko interesik izan eta inguruan behar bada beste euskal etxe batzutan ikusi dutena kontuan hartuta, edo euskal jatorrikoen artean ikusi dutena kontuan hartuta, nolabait beren euskalduntasuna edo euskal jatorri hori indartzeko gogoia sentitu duen jendea, eta hori da nik uste bermerik onena nolabait kanpoan ditugun euskaldun komatxo artean edo behintzat garai batean hemendik joandako ondorengoekin harreman hori izateko.

**Hain zuzen azken Kongresuari deitu genion Zubigintzan, ikusten zelako premia zubiak eraikitzen jarraitzeko eta norabide biko zubiak izango dira, eta ez bakarrik erakunde batetik zuzenduak, toki askotatik.**

**Ikusten da: Diasporarekin gaur egun bai Lehendakartzatik, Saitetatik, Eusko Ikaskuntzatik, Etxepare Institutua izango denetik, Delegazioetatik, Udalbiltza eta Udalbidetik ere joaten dira, alderdi politikoetatik, hainbat elkarte pribatuetatik....**

**Dago interes berpiztu bat diasporarekiko, ezta? Esango nuke hemendik, EHTik begira, baina beste aldean ikusten da euren euskalduntasun hori kasu batzuetan behintzat, boluntarioz osatutako elkarteak izango diren neurrian, erantzun maila ez da diferentea? Hemendik joaten dira sailburuak, gorenko zuzendariak, puntako ordezkariak eta gero han interlokutoreak izaten dira herri txiki bateko boluntario bat, informazio asko ez daukana, prestakuntza ez daukana...**

**Ez da “desenbarko” handiegia hemendik egiten duguna?**

Nik ez dut uste diasporarekin edo munduan zehar barreiatuta dauzkagun euskaldunekin harremanak izatea planteatzen denean, Gobernuko Sail desberdinek horrelako egitasmo bat planteatzen dutenean, hori bestelako harremanetan esate baterako Estatuarekin edo gainerako Autonomia Erkidegoekin edo Europarekin ditugun harremanetan planteatzen ditugun parametroetan planteatu behar denik.

Nik benetan Argentinako edo Mexikoko edo Txileko edo Boiseko edo Kaliforniako euskaldunekin harremana nahi baldin badut, ezin diet eskatu edo ezin dut exijitu: hara, sailburua doa eta horren arabera... gainera ez dut horrelakorik nahi ere. Nahiago dut beste modu bateko harremana izatea: hemen dago nolabait Euskadi, haiek ere Euskadiren parte sentitzea eta horren arabera gure kasuan maila horretako “desenbarkoa” komatxo artean ia ia zor diegula, egiten duten ahaleginagatik, erakusten duten harrotasunagatik, zentzurik onenean, euskaldunak direlako, euskaldun jatorrikoak direlako, eta herri baten eta kultura baten zenbait ezaugarri behintzat gorde nahi dituztelako, lortu hori gorde nahi dutelako.

Nik uste dut kasu horretan ia ia zor diegula joatea ahal dugunean laguntzea eta gure eskerrona azaltzea eta aintzakotzat hartzen ditugula eta herri honetako ataltzat edo partetzat dauzkagula aitortzea.

**Beste alde batetik, ikusten da horrek ere eurengan sortzen duela halako Zuzendaritzetan jarraitzeko desio bat eta abar, ezta? Nire ustez behintzat zaildu egiten du gazteei bide ematea, eta abar. Zeren, jendea ohitu egin da edo ohitzen hasi da sailburuarekin zuzenean tratatzera, edo lehendakariarekin bisitara doanean, eta jakina nola uko egingo diozu holako postu bati?**

**Eta horrek sortzen ditu barne kohesioari kalte egiten dioten dinamika batzuk ezta, euskal etxeetan. Eragin kaltegarriren bat ez duzu sumatu?**

Kasu batzutan ikusi baino entzun egin dut komentarioren bat edo beste, ba bai gazteek sartu nahi eta goian oztupoak ikusi. Baina ez dakit hori zuzenean lotuagoa dagoen behar bada azken urteetan aktiboagoak izan garelako, gehiagotan joan garelako edo presenteago egon garelako, edo lehendik ere bazegoen jarrera bat: nik uste dut pertsonengan naturala izaten dela, ez ona baina bai naturala, ditugun botere gunetxo horiek uzteko sekulako erresistentzia izaten dugu, eta nik euskal etxe baten edo bestean sumatu dudakexua izan da gazteek esatea guk nahiko genuke baina hor badaude eta hori bazegoen ni behintzat lehen aldiz hara joaten hasi nintzenerako.

Iruditzen zait beharbada orain ia urtero sailburu bat edo beste edo bat baino gehiago eta behar bada lehendakaria bera ere izateak ere hori areagotu egin duela, baina horrelako erresistentziak hemen ere hainbat elkartetan ikusten dituzu eta lehen esaten nuenean euskal etxe batzuk kinka larrian ikusi ditudala horrelako jarrerek ere badute zerikusia eta ez dakit zenbat urte Zuzendaritzan daramatzazunean eskuzabal jokatzeko jakin behar duzu eta atzetik datozen gazteei erreleboa uzten, baina han eta hemen elkarteetan beste horrenbeste, eta jakin egin behar da gazteen kezka, beharrak, behar bada zuzentzat euskal etxe horretan bultzatu nahi dituzun jarduerak batzuk izango dira, gazteek beste behar batzuk ikusiko dituzte, ez nahitaez guztiz diferenteak baina bai aldaketa batzuk eskatzen dituztenak eta horregatik esaten nuen betiko iraupenik ez dagoela ziurtatuta, ez han eta ez hemen, eta jakin egin behar dela belaunaldi berriek zer eskatzen duten, zer nahiko luketen, eta inguruko gizarteak zer onartzen duen zer nahiko luketen.

Orduan hemendik joan zirenek edo orain dela ez dakit zenbat urte han Zuzendaritza taldean sartu eta egitasmo bat egin zutenek ikusi egin beharko lukete garaiak aldatu direla, gizartea asko aldatu dela, ez dakit mundu osoan zehar, baina maila bateko garapena duten gizarteetan bai, eta horren arabera, egokitu behar dutela aurrera egin nahi duten egitasmoek.

**Pixka bat hitz egin dugu egiturez eta egoeraz. Gai potoloago bat hartu nahiko nuke hizpide. Zer da euskaldun izatea? Euskaldunek nortasun hibridatuak dituzte.**

**Hori hemendik nola bizi dugu? Onartzen ditugu euskaldun izateko era horiek? Eta zein abertzaletasun mota espero dugu eurengandik?**

Horretan ez dut uste Gobernu bezala erantzun bakar bat dugunik, besteak beste gai horiek horrela planteatu ere ez ditugulako egin, ezta? baina nik neuk uste dut horretan ere onartu behar dugula haiek han bizi direla eta gu hemen bizi garela eta beraz euskalduntasuna ezin dela berdin planteatu han eta hemen eta ez abertzaletasun kontu batengatik bakarrik.

Nik hauteskundeetako azken kanpainako leloa hartuz, ezta? "Ni Euskadin bizi naiz" beraz abertzale izan zein ez izan nik gizarte honen garapenaren alde egin behar dut, eta gizarte hau dago gaur Espainiako Estatuaren barruan Europaren baitan eta horren arabera eta klabe horietan lan egin behar dut nire identitate abertzale honetatik herri hau garatzeko eta aurrera eramateko.

Haiek Argentinan edo Txilen edo Mexikon edo EEBBetan edo ez dakit non bizi diren eta beraz gizarte haietan eta gizarte haietako klabeekin lan egin behar dute eta gizarte haietan oso normala da gainera hemendik hara joan berdin zait edo arrazoi politikoak direla medio edo, askotan, hemen bizibiderik ez zeukatelako eta gosea baino beste etorkizunik ez zeukatelako, hara joan eta lan egin eta aurrera atera diren neurrian eta han onartuak sentitu diren neurrian harro egotea amerikano direlako edo argentinarrak direlako edo mexikarrak direlako eta nik uste dut hori guztiz errespetagarria dela eta ez bakarri hori, horrek erakusten duela posible dela nolabait nortasun bikoitza edo "pertenentzia" bikoitza izatea eta horretan leial izan zaitezkeela hartu zaituen herriarekin eta leial izan zaitezkeela edo lotura gorde dezakezula, eta atxikimendua, utzi zenuen herriarekin, eta utzi zenuen herria esaten dudanean ez dut esan nahi zuk zeuk fisikoki utzi zenuena, behar bada zure gurasoek edo aiton-amonek edo birraitonek utzi zuten herriarekin atxikimendua izatea.

Eta beraz alderdi horretatik ez dakit, ez da eskuzabal izatea, uste dut ulertu behar dugula identitate, atxikimendu, klabe horiek oso modu diferentean planteatu daitezkeela munduan zehar, eta ez bakarrik hemen bizi garenon eta kanpoan bizi direnen artean.

Kanpoan bizi direnen artean ere ez du nahitaez zertan berdin planteatu Argentinan edo Mexikon edo Txilen edo Uruguain edo Kalifornian edo Idahon, eta beharbada euskal etxeko kide direnen artean ere bakoitzak modu diferente batean planteatzen du, baina niretzat gauza guztien gainetik estimatzen dudana da nolabait herri bateko kide izateko borondate hori eta lotura batzuk eta ezaugarri batzuk, eta ni argentinarra naiz edo estatubatuarra naiz baina euskalduna ere banaiz. Nolabait pluraltasun hori edo aniztasun hori adieraztea, ezta? Eta alderdi horretatik, kontu hauetan ere biodibertsitatea eta horrelako kontuak aipatzen ditugunean eta hori bultzatu nahi dugunean, eta eleaniztasuna eta kultur aniztasuna eta European behintzat diskurtsoan aberastasun seinaletzat daukagunean nik uste dut hori bera aplikatu beharko genuela, ez dakit politika kontuak diren edo zerbait sakonagoa den, baina identitate, sustrai, herri bateko edo gehiagotako kide izan, kontu horietan ere biodibertsitatea eta aniztasuna eta... oso onuragarria dela eta defendatu beharrekoa eta gorde beharrekoa.

**Orduan ez duzu ikusten gaur egun hemen EHan zabaldu den kontzeptu euskaldun izatearen inguruko bueno ez dago adostasun bat baina badirudi ireki egin dela, irekiagoa da, orain hiritartasunarekin lotuta definitzen dugu gehiago, eta euskal etxeetan osteria lotzen dute**



**gehiago sasoi bateko definizio haiekin, "primordialista"goak dira, lotzen dute edo jatorriarekin, edo odolarekin, edo abizenarekin...**

Ez dakit, nik uste dut horretan ere poliki-poliki kontu horiek aldatzen ari direla ikusi dut urte hauetan, zeren euskal etxeetan esate baterako euskal etheen jarduera oso loturik ikusi nuen, eta azken urteetan esaten dudanean, azken zazpi urteez ari naiz, nik lehenengo harremana 2001-2002an izan nuen haiekin, eta oso loturik ikusten nuen bazirudien ezinbestekoa zela mus txapelketak izatea, eta pilota, eta euskal dantzak, eta horrelako kontuak.

Eta hori ondo dago, haientzat badelako ezagutu duten nortasun bati jarraipena ematea, baina gero horrekin batera, batez ere ondo doazen eta eredu moduan hartu beharko genituzkeen eta besteek ere hartu beharko lituzketen euskal etxeetan ikusi ditut gauzak askoz zabalago egiten: hizkuntzari ere toki egiten, eta ez dugu pretendituko han EGA aterako dutenik baina bueno horren ingurukoak...

Hemen orain egiten den euskal kulturaren inguruko kezka eta horretan ere egon da hemendik sentzibilitatea, esate baterako, Euskal gizataldeekiko harremanez arduratzen den Zuzendaritzatik, hemengo oraingo kultura adierazpenak hara eramateko, inguruko gizarteari ateak zabaldu, saiatu jendea erakartzen, ez euskal etxeak ez daitezela izan harresi batzuk eta harresi haietatik barrura pasako da bakarrik ez dakit zenbat euskal abizen dituen, baizik nahi duen guztiak izan dezala aukera, euskal jatorriko izan edo ez izan, jakiteko euskaldunen zenbait ez dakit ezaugarri edo jarduera edo euskal etxeek zer bultzatzen duten, eta nik uste dut horrekin dagoela pittin bat etorkizuna lotua, segurutik hibridatze mestizaje puntu horrekin.

Azken batean edozein gizartetan gertatzen diren gauzekin eta identitate kontuak, nazio izaera bera, bueno, nazionalismoak onartzen da eta horrela izan zen gainera, XIX. mendean sortu ziren batik bat European eta gero Amerikan ere ezagutu ziren mugimenduak eta gaur Estatu ikusten ditugun horiek independentzia lortzea eta bata eta bestea. Orduko definizioak orduko gogoetak nola esango nuke pentsamolde filosofiko-historiko horrek ez du zerikusirik gaur egiten denarekin, eta gaur European berriro ere identitateak, nazioak bere lekua baldin badu eta indarra baldin badu eta oso presente baldin badaude ez da XIX. mendean ez dakit nola definitu eta ez dakit nola sortu zirelako, ez, ez: gaur eta hemen eta XIX. mendean hasieran eta munduan zehar oso aurreratua dagoen Europa baten, beste modu bateko gogoeta eginez, ez dakit, oraindik ere klabe batzuk baditugulako.

**Hori izango litzateke emigrazio historikoa, ez? Aipatu dugu destino historiko horretan ematen dena. Gaur egun, ordea, gazteek beste helmuga batzuk dituzte: Estatura joaten dira, Madrilera, Bartzelonara, ikasketak egitera, zuk badakizu zerbait horretaz, Europako beste herrialde batzuetara ere bai, ezta? Batez ere datuek esaten dute batez ere Europara eta gero Asiara zerbait deslokalizazioarekin eta abar**

**enpresetako langile batzuk eta joaten hasiak dira. Beraz, Unibertsitate eremuan eta enpresa eremuan ematen dira batez ere gaur egun emigrazioak eta dira joan-etorrikoak, golondrina, ez dira betiko joaten zirenen kasua, ontziratu eta betirako agurtu familia. Egiten da ezer emigrazio mota berri hori identifikatu eta laguntzeko?**

Ez bereziki. Egiten da ez emigrazio mota horri begira gure euskal izaera gure hizkuntza kultura zabaltzeko garai batean euskal etxeak genituen eta orain ere baditugu. Azken urteetan lektoreak sortu ditugu unibertsitateetan baina hori ez dago nahitaez emigrazioari lotua, lektoreak sortu ditugu, aukera izan den neurrian behintzat, Europan, EEBBetan, egia da Hego Amerikan eta Ertamerikan sortu ditugunean oso loturik egon direla hasiera batean behintzat indar handiko euskal etxeekin eta kolektibitateekin eta EEBBetan ere Renon eta Boisen hor hasi garela baina orain Stanfordera joan gara, eta Stanforden ez dut uste horrela emigrazio berezirik dugunik baina Europan ere edo Frankfurten edo Berlinen edo Helsinkin aritu garenean ez dago...

Orduan, zer nahi dugu? Erreferentzia izan daitezkeen unibertsitateetan ere hango ikasleek aukera izatea neurri batean behintzat Europan badagoela euskal nazio bat eta euskal nazio horren ezaugarri nagusien berri izateko, zerbait jakiteko, eta alderdi horretatik nik ez dut uste orain egiten dugun lana, Kultura Saitetik egiten duguna behintzat, nahitaez lotua dagoenik emigrazio gune horiei begira, besteak beste, zeuk esan duzun bezala, aldakorrak direlako eta gaur adibidez Txinan dago eta Txinan ere leku diferenteetan eta behar bada hemendik urte batzuk barru ez dakit non egongo den.

Orduan, alde horretatik, dena dela, ikusiko balitz hor badagoela leku batean edo bestean gune egonkor xamarra pentsa daiteke zer egin daitezkeen haiei begira baina oraingoz nahiko gauza aldakorrak dira asko egia da ikasleei dagokienez Erasmus bat egitera joaten dira eta hori hilabete batzuetako kontua da, edo ikasketak amaitzeko proiektua egitera joaten dira, eta hori urtebeteko kontua da, edo behar bada ondoren hiru, lau, bost urte geldituko dira enpresa baten eta gero itzuliko dira... oso zaila da horren arabera eta horiei begira egite kultura politikak.

Askoz errazagoa da pentsatzea kulturaren ikuspegitik eta jakituriaren ikuspegitik gune inbertsoak non ditugun eta horren arabera planifikatzea gure zabalkunde plana non egin dezakegun.

**Orain beste salto bat eman nahi dut. Argentinara goaz. FEVAko hauteskundeetan estreinakoz bi zerrenda egon dira hauteskundeetan eta lehia nahiko gogorra izan da badirudi, eta botoen aldea ere horrela izan da 23-26 irabazi du zerrenda ofizialistak. Jakin nahiko nuke horren atzean hemengo alderdi politikoen jokoak ikusten duzun ala ez.**

Egia da ez dut gai hori gehiegi kontrolatzen baina egon liteke, egon liteke alderdi politikoen ez dakit, tirabira eta alde batetik pena ematen dit euskal etxeetan nik hasieran ikusi nuena behintzat gehiago zelako hemengo tirabira politikoetatik kanpo hainbat oinarritzko gauza oso argi edukitzea eta inork ez eztabaidatzea nafarrak zeuden neurrian euskaldunak zirela eta nafarrak ere oso eroso sentitzea iparraldekoekin, bizkaitarrekin eta beste lurralde batzuetakoekin.

Orduan politika gehiegi sartzeak ez dakit mesede handiegia egingo dien baina bestalde normala ere izan liteke lehen esan dudanaren arabera, beste klabe batzutan, beste kezka batzuekin hasten badira lanean hemen bizi garen gizartean bizi gara, eta hemengo gizartean ere orain daukagun politizazio maila orain dela hogeita hamar urtekoa edo berrogei urtekoa baino askoz handiagoa da eta beste modu batekoa gainera, orduan dena dela pena izango litzateke bi zerrenda baldin badaude eta boto gutxiren diferentziarekin integrazio lanik ez egitea horren gainera beste modu bateko proiektu, denentzako balio dezakeen proiektua asmatzean, hori oztopo izatea. Hori benetan pena izango litzateke.

**Beste salto bat: lehenago ere komentatu dugu, eseri aurretik, euskal emigrazioaren kontua modan dagoela, modan dago erakunde askok lan egiten duelako kanpoko euskaldunei begira edo euskalduntasuna kanpora ateratzen eta abar, ezta? Baita ere euskal gaia kontua estreinako sartu eta eskola kurrikulumetan eta oraindik ez daukagu badirudi horretan hastapenetan gaudela, baina ibilbideren bat egin beharko litzateke honetan. Badago –badakit Hezkuntzari dagokiola- baina zer eragin izan dezake eskola kurrikulumean sartzeak gai hau?**

Eskola kurrikulumean sartzean esan nahi du eskolatik pasatzen diren ume guztiek, hau da, gaur egun hemen ikasten duten neska mutil guztiek gutxienez jakitea badaudela munduan zehar beste gune batzuk non jendeak bere burua euskalduntzat ere badaukana eta euskaldunak beste leku batzutan ere aurkituko dituztela, jakitea gainera zergatik joan ziren hara, zergatik gorde nahi dituzten bere sustraiak...ikuspegi aberatsago bat izateko balioko diela uste dut.

Honi lotura gure alaba gaztena joan zen nirekin orain urte pare bat NABOren bilerara eta jaialdira eta batez ere NABOren bilerak utzi zuen hunkituta eta berak eta han topo egin zuen bere kurtsoko beste neska batek, esaten zuten momentu batean edo bestean, edo derrigorrezko bigarren hezkuntzan edo batxilergoan guztiek pasatu beharko lukete leku hauetatik. Eta benetan oso hunkituta gelditu zen beste moduko euskaldunak, baina berak euskaldun bezala identifikatzen zituenak, ikusi nola bizi zuten.

Eta ez da esatea gu hara joaten garenean hunkituta geratzen gara, azken batean Euskadiko ordezkari politikoak gara. Ez, ez, hamasei urteko neska bat zen.

**Bada beste egitasmo bat moda honetan, euskal emigrazioaren edo euskal migrazioen interpretazio zentro bat eraikitzeko dagoen egitasmo bat. Dakizunez, hirukoaren programan sartu zen horren azterlana egitea eta egin egin da azterlana eta hori hor dago. Ikusten diozu irteerarik proiektu honi?**

Irteera eta gainera uste dut beharrezko proiektu bat dela. Hor dagoen dokumentazio guztia, historia hori modu hausnartu, bateratu, moderno batean kontatzea uste dut guztiz beharrezkoa dela.

**Eta beste fenomeno bat da ez bakarrik emigrazioarena, baita ere, orain inmigrazioa jasotzen ari gara; orain gara hartzaile, bihurtu gara hartzaile... oraindik ehunekoak ez dira oso handiak, baino gure hirietan koloreak ikusten hasiak gara, ezta? Eta horien artean daude ba euskaldun jatorrikoak direnak eta euren herrialdeetan duten egoera kaxkarragatik erabakitzen dutenak itzultzea, ezta?, itzulera esaten dioguna, eta datuen arabera, ez dauzkagu datu oso fidagarriak, geureak direnak, baina "Instituto Nacional de Estadística" k ematen dituenetatik irakurrita, dakigu 1300 lagun inguru bueltatzen direla EAE-ra urtean nazionalitate espainiarrarekin eta horrek ematen digu pista bat...**

Bai eta ez, izan liteke beste batzuk ezagutzen dituztelako hona etorri direnak eta lana aurkitu dutenak, edo ideia daukatelako han euskaldunen iritzi ona eduki eta ondo hartuko genituela... izan litezke euskaldun jatorrizkoak baina ez nahitaez.

### **Guztiak ez lirateke izango orduan?**

Hori banan-banan galdetu beharko litzaieke zergatik aukeratu duten. Esate baterako Donostian badaude taberna batzuk ia-ia zerbitzari gehienak argentinarrak dituztenak eta ez nuke esango horiek euskal jatorrikoak direnik. Bueno, hona etorri dira lan bila eta askotan hara joatean ere horrela izaten zen, ezta? Hara doa bat, ikusten du lana badagoela, eta "efecto llamada" esaten dena, badatoz beste hainbat, e?

**Eta bueno, Catalunyak hauentzako egin du programa berezi bat, itzultzen diren kataluniarrentzako. Guk ez dugu ezer egin, nahiz eta gure legeak aipamenen batzuk badituen "retorno" horrentzako. Ez dugu ezer garatu, aztertze bidean gaude. Bada ere hirukoan alderdi bat behintzat euskaldun berriak izango direla kolonbiarrak eta marokoarrak euren familiaren batzea gertatzen denean. Baina beste horiek euskal jatorrikoak itzultzen ari direnak ez lukete tratamendu politikoki zuzena esateko "diferente" bat izan beharko? Esan nahi dut, ilaretan egon ez daitezen, leihatila bakarra Catalunyan bezala, edo beste laguntza mota batzuk bideratu...**

Ez dakit, lehenengo ikusi beharko genuke zer gaitan egin dezakegun horrelako bereizketa bat eta gero hori ondo aztertu beharko genuke eta ondo pentsatu kontu horiek beti izaten direlako bi aho dituzten ezpatak eta ondo pentsatu beharko genuke horretan noraino joan beharko genukeen eta noraino ez.

Hona etortzen direnei begira ez baina han daudenei begira bai, badaude programak ez kulturatik jakina edo ikasketetan laguntzeko, edo benetan han behar gorrian dauden euskal jatorriko familiei nolabaiteko diru-laguntza edo asistentzia emateko... beraz orain arte egin dena, nik ezagutzen dudan neurrian behintzat, gehiago da hemendik harantz begira. Handik hona etortzen direnean lehenengo beharko genuke datu fidagarriak izan benetan horrelako gauzak sortzen direnean horrek gero berarekin ekartzen du "picaresca" bat ere; handik datozenek sumatzen baldin badute, euskaldun jatorrikoak izateagatik erraztasunak dituztela edo beste kontsiderazio bat ematen zaiela, esan beharrik ez dut zenbat pauso edo agiri edo horrek zer arrisku ekarriko lukeen eta gero berriro esan kontuan edo oso kontuz ibili behar izaten da gai hauekin beste kolektibo batzuekin diskriminazio handiegirik ez egiteko, ez mintzeko,...

**Aipatu dugu Catalunya. Orain, Galizian, adibidez PP zegoenean gobernuan zeukaten sail oso bat emigrazioari zuzendua; orain Idazkaritza Nagusi bat da eta gure kasuan beti izan da Zuzendaritza bat, gure emigrazioa ere txikiagoa delako. Nahikoa ikusten duzu Zuzendaritza bat eta erabiltzen dira baliabideak hemendik hala, eta lotzen dut hurrengo galderarekin, Etxepare Institutuarekin eta abar, hori orekatuko da?**

Nik uste dut hemengo Zuzendaritza gehiago dagoela kanpotik hona datozenei antolatua, hemendik kanpora joan direnak euskal etxean inguruan edo, ikuspegi horretatik hartu ditugu eta hori gehiago izan da Kanpo Harremanetarako Idazkaritzatik eraman dena, Zuzendaritza bat egon da horretarako, eta gero, batez ere azken urteetan, Kultura Saitetik hizkuntza, kultura, gai horien inguruan egin den lana. Eta, hortik aurrera, nik uste dut Etxepare Institutuak lagundu beharko luke baina ez diasporari begira bakarrik.

Etxepare Institutuak lagundu beharko luke sail desberdinetan, hezkuntzan, kanpo harremanetan, kulturean, egiten dena euskal hizkuntza eta kultura hemendik kanpora zabaltzeko eta alderdi horretatik oso puntu, gune inportanteak dira dudarik gabe euskal etxeak eta kanpoan ditugun euskal kolektibitateak baina lehen esan dudan bezala kontuan hartu behar dugu unibertsitateetan ere badugula, baditugu momentu honetan 23 irakurle edo lektore 17 herrialdetan banatuta, izan dezakeguna gure presentzia, badugula azoketan esate baterako Frankfurteko azokan edo beste... Berlinen edo Parisen egiten diren hizkuntzaren inguruko azoketan eta abar, eta hori guztia modu koordinatuan egiteko balio beharko lukeela Etxepare Institutuak, eta orduan diferentea da nik uste kanpotik hartzen ditugunei begira nolako baliabideak jarri behar ditugun eta zer politika egin behar den horiek hobeto integratzeko, gizarte asistentziaren aldetik behar dituzten gutxienekoak izan ditzaten,

osasuna, hezkuntza, eta abar, euskararen aldetik ere gizarte elebidun batera etorri direla jabetu daitezenean, horien euskalduntzea errazteko, beraz hori etxe barruan kanpotik datozkigunei begira egiten den lana da, kanpotik datozkigunei begira egiten den lana da bide batez nik beti defenditu izan dut Sail barruan bertan baino gehiago beste batzuk aldarrikatu dutelako Gazteriak hemen bere Sailsa izan behar lukeela, Hizkuntza Politikak bere Sail propioa izan beharko lukeela edo Lehendakaritzan egon beharko lukeela, nik uste dut horretan ez dela hain inportantea Zuzendaritza den, Idazkaritza Nagusia den... inportantea da benetan egitasmo sendoak izatea eta egitasmo horiek behar dituzten baliabideekin hornitzea eta hor Lehendakaritzan egoteak edo ez dakit zer izateak ez dut uste beste ezer bermatzen duenik.

Orduan, lortu nahi dena, nik behintzat hemen nagoen urteetan ez dut bestela pentsatzeko inolako daturik izan, lortu nahi dena berdintsu lor daitekeela Zuzendaritza bat izan, Idazkaritza bat izan, Lehendakaritzan egon edo Kultura Sailean egon.

**Esan duzu diferentziak ikusten dituzula euskal etxe batzuetatik besteetara. Errealitate diferenteak daude herrialde batzuetan, bai ekonomikoak, kulturalak, eta abar, eta euskaldunak ere sektore diferenteetan errotu dira herrialde horietan, orduan daukagu panorama oso koloretsua. Hala eta guztiz guk egiten dugu politika bakar bat, nik daukat behintzat susmo hori: diru-laguntzak guztientzat berdin. Ez genuke egin beharko zerbait "a la carta", edo bakoitzak dituen premien arabera programak?**

Ba horrela galdera horrela formulatuta, lehenengo bururatzen zaizun erantzuna da bai, beharrak ere diferenteak direlako bakoitzaren egoeraren arabera eta beraz ona izan daiteke diru-laguntza deialdiak eta egiten direnean malgutasun pittin bat izatea baina egia da beste alde eta hori hemen barruan ikasten den zerbait da, diru-laguntza deialdiak egiten dituzunean, ezinbestekoa dela guztientzat diren gutxieneko batzuk izatea.

Bestela, "a la carta" hori, honi baldintza hauekin, besteari beste baldintza edo irizpide horiekin... azkenean hori bera ere kudea ezin bihurtzen dela. Hori alde batera utzita gero, barruko Administrazioaren egin behar diren tramite guztietan momentu batean baten batek esango dizu honek ez du inolako itxurarik eta guztientzako berdintasun minimo bat behintzat lotu behar da.

Beraz, gehiena zer ikusi beharko litzateke? Minimo horiek zeintzuk diren eta hortik aurrera zein puntutan egon daitekeen malgutasun bat edo baremoan edo irizpideetan edo nahi denean, baina hori kudeatzen duenak hartu behar du batez ere kontuan eta ez da hori Kultura Sailearen kasua.

Guk, esate baterako, euskarazko.../... baina irakasleen prestakuntzari dagokionez, sarean, urrutiko prestakuntza honetan eta beste hainbat kasutan ere oinarrizko standard batzuk gorde behar dituzu nahitaez.

**Amaitzeko, galdera bikoitza egingo nizuke: badirudi toki historikoetara joandakoa dugula diasporatzat eta destino berriekin bestela jokutzen da, hori komentatu dugu, beste erakunde batzuetatik eta beste era batzuetan. Gure Zuzendaritzatik, dakizunez, esfortzu handia egiten ari gara orain emigrazioaren memoria historiko guzti hori biltzen, eta jasotzen, hor da Urazandi bilduma guztiaren kasua eta abar.**

**Beraz, horrek ez du esan nahi historian euskaldunen historian orri bat pasatzen ari garela? Memoria historikoarena sartu zaigulako dakigulako hemendik aurrera beste zerbait izango dela historia?**

Nik uste dut hori, gaur behintzat nahiko begi bistakoa dela, hor aipatzen aritu gara eta dokumentuak azaltzen diren neurrian eta bakoitzak bere historia kontatzen duen neurrian ere, berdin da Hego Amerikara zoazen, edo Estatu Batuetara zoazen, eta han kontatzen dizute nola joaten ziren artzain eta zenbat hilabete pasatzen zituzten mendian... inor ikusi gabe, gehienez ere txakurrarekin edo ardiekin hitz egiten...

Hori, baina ez euskal emigrazioari dagokionez, bizimodu hori amaitu da. Alderdi horretatik, eta lehen esan duguna, hemendik alde egin, joan, eta garai batean itzultzeko inolako esperantzarik gabe.

Orain, han daudenak, lehen belaunaldiko izan, edo bigarreneko izan, edo hirugarreneko izan, urtean behin nahi baldin badute, edo bi urtetik behin itzultzen dira, orduan bizimodua ikaragarri aldatu da, askoz mundu globalizatuagoan bizi gara eta urte horietan zer gertatu den, jendea zergatik joan zen, nola bizi izan zen, zer egin zuen, zer pentsatu zuen, baldin badago behintzat, zer idatzi zuen, nolako egiturak sortu ziren hasierako ostatu haiek: EEBBetan esate baterako, euskal artzainak menditik jaisten zirenean, ez dakit, asteburua pasatzeko edo negua pasatzeko, hori guztia kontatu beharra dago.

Baina bizimodu hori amaitu da, hemendik joandako euskaldunentzako eta gainerakoentzat, orain nik beti entzuten dut esate baterako ardiak zaintzeko eta euskaldunik ez dutela aurkitzen eta behar bada Perutik joaten direnak eta seguru nago horien bizimoduak ez duela zerikusirik XIX. mendearen amaieran edo XX. mendean hara artzain joan zirenen bizimoduarekin eta hor ikusten ditugun "karromatoekin", eta abar.

Alderdi horretatik, ez da bakarrik hemengo historiaren zati bat, bizimodu, bizitzeko mota jakin bat da oraingoz behintzat amaitu dena, gero etorkizunak zer ekarriko duen ez dakigu, baina gaur mendebaldeko gizarte deitzen diogun honetan bizimoldeak asko aldatu dira eta horrekin batera aldatu dira guretzat hemendik leku batera eta beste batera joan zirenentzat, eta hemendik kanpora joaten direnentzat ere oso bestelako kontua da: orain joan-etorrikoa da, behar bada joaten dira eta gelditzen dira, baina ez dakit hango batekin ezkontzen

direlako, edo bizitza proiektu bat beste leku baten egin dutelako, ez politikak edo goseak hartara behartu dituelako.

**Nola ikusten duzu euskal etxeen etorkizuna? Zer egin euskal erakundeen aldetik euskal etxeen etorkizuna bermatzeko eta noiz arte diegu lehen aipatu duzun "zor historiko" hori?**

Zer egin euskal etxeen etorkizuna bermatzeko? Nik uste dut horretan euskal etxeen etorkizuna bermatu behar dutenak lehenik bertakoak direla eta guk hemen Administrazioak egin dezakeena nik uste da haiei laguntzea, haiekin batera lan egitea izatekotan ere eta entzutea zer gogoeta egiten duten, behar bada gogoeta hori egiten laguntzea, baina beti ere nola esango nuke bigarren mailako protagonismoa edo izango genuke, nik behintzat horrela ikusten dut. Horri buruzko erabakia, eta hori da gainera gobernu honen ikurretako bat, ezta? bakoitzari dagokio bere etorkizuna erabakitzea eta uste dut kasu horretan ere euskal etxeek ikusi behar dutela zer egitasmo nahi duten eta etorkizunerako zer nahi duten.

Hala ere uste dut oso lagungarri gertatzen zaiela, nik behintzat horrela ikusten dut, baina hor ere haiek zer esaten duten entzun beharko litzateke, Mundu Biltzarrak egitea, eta baten eta bestearen esperientziaren berri izatea, trukeak izatea, uste dut oso lagungarri gertatzen zaiela NABO edo FEVA bezalako egiturak izatea, eta horretan laguntzea, berriro esan, gogoeta egiten, zer baliabide behar dituzten, noraino iritsi gaitzkeen, gogoeta horretan bidelagun izatea, uste dut hori dela dagokiguna.

Eta noiz arte zor diegu zor historikoa? Beren euskaldun izaera horri atxikimendua dioten arte, eta nik nahiko nuke mendez mendez izatea, jakina.

**Eskerrik asko.**



## BIBLIOGRAFIA

- AA, *Homenaje al Comité Pro-Inmigración Vasca en Argentina (1940)*, Txertoa argitaletxea, 1988
- Aguirre, José Antonio, *Escape via Berlin*, University of Nevada, 1991
- Azkarraga Etxegibel, Joseba. *Mendebaldearen mintzo mindua...* Euskaltzaindia eta BBK, 2006 (Mikel Zarate Saria Saio onenari)
- Bieter & Bieter. *An Enduring Legacy, The Story of Basques in Idaho*. University of Nevada Press, 2000
- Camus Etchecopar, Argitxu. *The North American Basque Organizations, Incorporated*. Urazandi Bilduma 19, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007
- Cohen, Robin. *Global History and Migrations*, edited by Wang Gungwu, West View Press, 1997
- Clark, Robert P., *The Basques: The Franco years and beyond*, University of Nevada Press, 1979
- Digitalak Lan Taldea. *Euskal Aztarna Argentinan, Memoriaren bitartez hezi eta ikasi*. Eusko Jaurlaritzaren eta Argentinako Gobernuaren Hezkuntza Sailek argitaratutako lana, 2005
- De Castro Ruano, J.L. eta Ugalde Zubiri, A. *La Acción Exterior del País Vasco (1980-2003)*. IVAP-HAEE, Eusko Jaurlaritza, 2004
- Douglass, Urza, White, Zulaika (editoreak). *Basque Cultural Studies*. Basque Studies Program, University of Nevada, Reno, 1999
- Douglass, Urza, White, Zulaika (editoreak). *The Basque Diaspora – La Diáspora Vasca*. Basque Studies Program, University of Nevada, Reno, 1999
- Douglass, William A. eta Bilbao, Jon. *Amerikanuak, Los Vascos en el Nuevo Mundo*. University of Nevada Press, 1975. Gaztelaniazko bertsioa: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1986
- Douglass, William A. *La Vasconia Global: Ensayos sobre las diásporas vascas*. Urazandi Bilduma 2, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003

- Echeverria, Jerónima. *Home away from home. A History of Basque Boardinghouses*. University of Nevada Press, 1999
- Elustondo, Miel Anjel. *Western Basque Festival 1959*. Susa, 2007
- Etulain, Richard W. eta Echeverria, Jerónima (editoreak). *Portraits of Basques in the New World*. University of Nevada Press, 1999
- Etxarri, Joseba. *Euskaldunen Amerika. Bidai bat EEBBetan zehar*. Elkar, 1994
- *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran (askoren artean)*. Eusko Ikaskuntza, 2006
- Fernandez Osotolaza, Luis. *Etxepare Porno*. Alberdania, 1998
- Fernandez de Larrinoa, Kepa. *Estatu Batuetako mendebalde urrutiko euskal jaiak. Amerika eta Euskaldunak bilduma*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1992
- Gallop, Rodney. *A Book of the Basques*. University of Nevada Press, 1998
- Iriani Zalakain, Marcelino. *"Hacer América". Los vascos en la pampa húmeda, Argentina (1840-1920)*. Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000
- Jacob, James E., *Hills of Conflict*, University of Nevada Press, 1994
- Jaime, Juan Cruz. *Medio siglo de labor vasco-argentina*. Euskaldunak Munduan Bilduma, 8, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007
- Kurlansky, Mark. *The Basque History of the World*. Alfred A. Knopf Canada, 1999
- Legarreta, Dorothy. *The Guernica Generation*, University of Nevada, 1984
- Lhande, Pierre. *L'émigration Basque*. Elkarlanean, 1984
- Mallea-Olaetxe, Joxe (compiled, edited and translated). *Shooting from the lip. Bertsolariak Ipar Amerikan*. North American Basque Organizations, 2003
- Mehats, Claude. *Organisation et aspects de l'émigration des Basques de France en Amérique: 1832-1976*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005
- Moya, Jose C., *Cousins and Strangers, Spanish Immigrants in Buenos Aires, 1850-1930*, University of California Press, 1998

- Oiarzabal, Agustín M. y Pedro J. *La identidad vasca en el mundo*, Ed. Erroteta, 2005
- Oiarzabal, Pedro J., *A Candle in the Night, Basque Studies at the University of Nevada (1967-2007)*, University of Nevada, 2007
- Sarasua, Jon. *Biziaren hizkuntzaz, Txepetxekin solasean*, Gara argitaletxea, 1997
- Totoricaguena, Gloria. *Boise Basques: Dreamers and Doers*. Urazandi Bilduma 3, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003
- Totoricaguena, Gloria. *Diáspora Vasca Comparada*. Urazandi Bilduma 1, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003
- Totoricaguena, Gloria. *The Basques of New York, A Cosmopolitan Experience*. Urazandi Bilduma 12, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003
- Ugalde Zubiri, Alexander. *Memoria 1980-2005 (Memoria de la Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas en el exterior del Gobierno Vasco)*. Urazandi Bilduma 18, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2007
- Urdangarin, Clara eta Etxebeste, Joseba (koordinatzaileak). *Euskal jokoa eta jolasa. Transmitting the Basque heritage through play and game*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2005
- Xamar (Juan Carlos Etxegoien). *Orhipean, The Country of Basque*, Pamiela, 2001 (5. edizioa)
- Xamar (Juan Carlos Etxegoien). *Orekan, Herri eta Hizkuntzaren ekologiaz*, Pamiela, 2001
- Ysursa, John. *Basque Dance*. Tamarack Books, Inc., Boise, 1995
- Zallo, Ramón. *Euskal Herria, gaur*. Alberdania, 2006
- Zubiri, Nancy. *A travel guide to America: familias, Feasts & Festivals*. University of Nevada Press, 1998
- Zulaika, Joseba. *Guggenheim Bilbao Museoa*, University of Nevada, 2003
- Zulaika, Joseba. *ETAren hautsa*. Alberdania, 2006

## Artikuluak

- Apaolaza, Urko (et altri). *Euskal etxeak: erreleborik gabeko etorkizuna?* Larrun, Argia aldizkaria, 2125 zk., 2008
- Apodaka, Eduardo. *Kulturgintza: gizarte-ideologietatik eta kontsumora...*
- Bauman, Zygmunt. *El arte posmoderno o la imposibilidad de la vanguardia.* En *La posmodernidad y sus descontentos*, Akal, Madrid, 2001
- Cohen, Robin. *Diasporas in the age of globalization*, from *Global Diasporas, An Introduction*, University College London Press, 1997
- Díaz Noci, Javier. *The creation of the Basque Identity through Cultural Symbols in Modern Times.* University of Oxford, 1999
- Douglass, William A. *Interstitial Culture, Virtual Ethnicity, and Hyphenated Basque Identity in the New Millennium.* Nevada Historical Society Quarterly, volume 43, Summer 2000
- Echeverria, Jeronima. *Expansion and Eclipse of the Basque Boarding House in the American West*, Nevada Historical Society Quarterly, Vol. 43, 2000
- Elkins, David J. *Globalization, Telecommunication and Virtual Ethnic Communities*, from *International Political Science Review*, Vol. 18 (1997)
- Gabilondo, Joseba. *Globalizazioak eta kulturantzaren fantasma.* Egan aldizkaria eta [www.joseba.net/kulturantzaren.html](http://www.joseba.net/kulturantzaren.html)
- Legarreta Bilbao, Josu. IV Congreso Mundial de Colectividades Vascas 2007. *Revista Internacional de Estudios Vascos.* 53, 1, 2008, XX-XXX (argitaratzeko)
- Martínez de Luna, Iñaki. *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran.* Euskonews & Media 381, 2007
- Oregi, Benan eta Arregui, Joseba: "From an ethno-diaspora to a techno-diaspora: the Basque case", Trogir, Kroazia, AEMIren urteko bilera, 2006
- Oregi, Benan eta Arregui, Joseba: "The Basque Emigration: one step forward", Turku, Finlandia, AEMIren urteko bilera, 2007 (argitaratzeko)
- Sanz Goikoetxea, Eneko. *Ideologia eta gatazka Montevideoko Euskal etxeen eraketetan.* Euskal Herria Mugaz gaindi, Vitória-Gasteiz, 2004

- Scott, George M., *A resynthesis of the primordial and circumstantial approaches to ethnic group solidarity: towards an explanatory model*, in Ethnicity (Ed. Hutchinson and Smith), Oxford University Press, 1996
- Sheffer, Gabriel. *The Emergence of New Ethno-National Diasporas, in Migration, Diasporas and Transnationalism*, Ed. Steven Vertovec and Robin Cohen, Elgar Publishing, 1999
- Smolicz, J.J. *Australia: from migrant country to multicultural nation*, The International Migration Review, New York; Spring, 1997
- Totoricaguena, Gloria P., *Celebrating Basque Diasporic Identity in Ethnic Festivals: Anatomy of a Basque Community*, RIEV, 2001
- Totoricaguena, Gloria P., *The Idaho Memorial 114*, euskonews & media, <http://www.euskonews.com/0197zbk/kosmo19702en.html>
- Urla, Jacqueline. *Kafe Antzokia: The Global meets the Local in Basque Cultural Politics*. CEIC papeles, # 10, 2003
- Urza, Carmelo. *Basque Ethnic Identities: Old World and New World Expressions*, From Art and Symbolism in the National Basque Monument, University of Nevada Press, 1993
- Vertovec, Steven. *Conceiving and researching transnationalism*, From Ethnic and Racial Studies, Volume 22, 1999

### **Euskal Gizataldeen Biltzarrak**

- Euskal Gizataldeen I Biltzarra: *Euskaldunak Munduan – Etorkizuna eraikitzen*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1995
- Euskal Gizataldeen II Biltzarra: *Euskadi Munduan Eraikitzen*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1999
- Euskal Gizataldeen III Biltzarra: *Aurrera Goaz*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003
- Euskal Gizataldeen IV Biltzarra: *Zubigintzan*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2008

### **Egunkarietako artikulak eta elkarrizketak**

- Azkarraga Etxagibel, Joseba. *Soberanismo aeta oinarrigintza*. Berria, 2008-03-16

- Castells, Manuel. *El poder de la identidad*, El País, 2003-02-18
- Odriozola, Joxe Manuel. *Hizkuntzak berezkoa du identitatea*. Berria, 2007-02-27
- Odriozola, Joxe Manuel. *Kultura eta hizkuntza*. Berria, 2004-01-04
- Otegui, Sabrina. *Oscar Alvarez Gila, una mirada optimista sobre la Diáspora actual*, 2007an Euskalkultura"rentzat Buenos Airesen egindako elkarrizketa, [www.euskalkultura.com/index/php?artid=6547](http://www.euskalkultura.com/index/php?artid=6547)
- Euskonews & media, Patxi Baztarrikari elkarrizketa, 2007ko maiatzean, [http://www.euskonews.com/0394zbk/elkar\\_eu.html](http://www.euskonews.com/0394zbk/elkar_eu.html)

## Bestelakoak

- Kulturaren Euskal Kontseilua. *Identitatea eta Kultura: Euskal Herriko hiru lurraldeetako sintesi konparatiboa*
- Txostena: *Euskara Munduan 2007-2011*, HABE, 2007ko ekaina
- Euskal etxeak aldizkaria, 54. zk., Eusko Jaurlaritza, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, 2002
- 8/1994 Legea, Euskal Gizataldeekiko Harremanak arautzekoa
- 3/2007 Legea, Etxepare Institutua sortzeko eta arautzekoa
- Euskal Kulturaren Plana ([www.kultura.ejgv.euskadi.net](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net))
- FEVAren Estatutuak
- The Wall Street Journal (2007-11-6): Basque Inquisition... [http://online.wsj.com/article/SB119429568940282944.html?mod=hpp\\_us\\_pageone](http://online.wsj.com/article/SB119429568940282944.html?mod=hpp_us_pageone)
- *Euskadi: Kanpo Harremanetarako Estrategia*, Eusko Jaurlaritza, 2005
- Miren Azkarareri elkarrizketa, Gasteiz, 2008ko maiatzaren 7an
- Josu Legarretaren adierazpenak YouTuben, 2008ko maiatza: <http://es.youtube.com/watch?v=f1sxpflVmO>